|---|---|---|---|---|
| Negozio-ereduaren ibilbidea (Qs) | 3 | 18 | 36 | 37 |
| Egin zure zenbakiak | 3 | 3 | 6 | 27 |
| Enpresa sortzeko urrat-sak | 3 | 3 | 6 | 28 |
| Kontsultak | 5 | | | 6 |
| Guztira | | 24 | 48 | 98 |

GELTOKI ESPAZIOA

Eutsi egin zitzaion koordinazioari Geltokiren kudeaketaren arduradunekin, autobus-geltoki zaharraren barruan.

AUTOBUS-GELTOKI ZAHARREKO NASEN ERABILERA-LAGAPENAK

Autobus-geltoki zaharreko nasak erabiltzeko baimenak kudeatu ziren. 2020an, 19 aldiz lagatu ziren: 11 alditan, CPAEN-NNPEKen EKOMERKATUA egiteko; 7 alditan, Nafarroako V. Azoka Ekologikoa egiteko CPAEN-NNPEKen eskutik (irailaren 15etik 21era), eta azaroan, Modako pasabidea egiteko, Geltoki gizarte ekimeneko mikrokooperatibaren eskutik.

IRUÑEKO MERKATARITZAREN MAHAI TEKNIKOA

Merkataritzaren Mahai Teknikoa hiriko merkatarien elkarteetako eta Udaleko Merkataritzako Alorreko teknikariek osatua. Aholku-emailea da, eta Alorreko jardueren garapenari buruzko informazioa emateko, iradokizunak jasotzeko eta kontsultak ebazteko sortu zen.

Hilean behin egiten da (urtean 8 hilabetean). 2020ko martxotik, astean behin egin zen deialdia, modu telematikoan, sektorearen egoera zela eta, pandemiaren ondorioz.

# TURISMOA

## JARDUKETA NAGUSIAK

Sektore turistikoak bereziki jasan ditu COVID-19ak eragindako osasun-krisia eta arau-aldaketa. Horrek guztiak, kaltetu ditu bai turismo zerbitzuaren jarduna bai haren udal-zerbitzuak: Turismo Bulegoa eta Ultreia, Donejakue Bidearen Interpretazio Zentroa. 2020an, Turismo Zerbitzuaren jardueraren parte bat sektorerako proposamenak diruz laguntzera bideratu da deskontu-bonuen bidez eta lokalak egokitzeko merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduei emandako laguntzen bidez (ikus COVID-19).

Memoria honetan, garatutako turismo-jarduera aurkezten da, Iruñeko 2017-2019ko Turismoko Plan Estrategikoan zehaztutako ardatz eta jarduketen arabera.

## GOBERNANTZA

Programa honen helburua hiriko turismo-politika kudeatzeko sistema hobetzea da. Jarduketak:

Turismo-sektoreko elkarteentzako laguntzak, 32.700 euroko gastu baimenduarekin

Laguntza-deialdi honen helburua da laguntza ematea programan jasotako turismo-produktuak garatzeko xedez turismoa dinamizatu eta sustatzeko ekintzak garatzen dituzten turismo-elkarteei. Deialdiak bi jarduketa-ildo ezartzen ditu: 3.2.- Sustapen- eta publizitate-kanpainak, Iruña turismo-helmuga gisara nabarmenduta. 7 entitatek 25 ekintza aurkeztu dituzte, turismoa dinamizatzeko 6 eta turismoa sustatzeko 19. Guztira, 31.810 euro banatu ziren:

## HELMUGA EGITURATZEA

Programa honen helburua da Iruña helmuga gisa sendotzeko garatu beharreko alderdiak lantzea, hala nola helmugaren irudia hobetzea, fluxuen kudeaketa adimenduna, turismoaren ezagutza lantzea, turismoa teknifikatzea, inbertsio publikoaren eraginkortasuna eta jarduera turistikoaren inpaktu negatiboak identifikatzea eta kudeatzea (masifikazioa, zikinkeria, ordutegiak, alokairu turistikoak, zarata...). Ekintza hauek egin dira:

Tokiko herritarrak sentsibilizatzeko jarduerak

‘Iruña Quiz’ animazio turistiko birtualeko lehiaketa. Webgunean eta aplikazioaren bidez egindako galdera/erantzun sistema bat, familiarendako aisialdia eta entretenimendua eskaintzen dituena, turista potentzialei hiriko kultura- eta turismo-erakargarriei buruzko informazioa ematen diena, webgunea eta lotutako aplikazioa zabaltzen dituena, eta aplikazioaren deskargen kopurua eta tresna horren erabiltzaileen kopurua handitzea bilatzen duena.

SEINALEZTAPEN TURISTIKOA.
Iruña berdea da programaren barruan sartutako lorategi historikoetan seinaleztapen berria jarri da. 5 totem turistikotan mantentze-lanak eta aldaketak egin dira.

ULTREIA DONEJAKUE BIDEAREN INTERPRETAZIO ZENTROA ETA TURISMO BULEGOA.
2020an, horien kudeaketa 2020ko ekainaren 30era arte luzatu zen (bigarren luzapena), eta Iruñeko Turismo Bulegoan eta Ultreia zentroan bisitariei arreta emateko zerbitzuaren lizitazio berri bat lantzen hasi ziren. Ondoren, kontratazio-prozedurak eten ziren (ikus COVID-19), eta beste luzapen bat egin zen uztailetik azarora eta azken bat, azarotik 2021eko urtarrilera.

2020an bidaiari kopuruak behera egin duenez, zerbitzuari atxikitako langileek barneko hainbat lan-ekintza egin izan ditzakete, kontratuan jasotakoak: argazkien eta bideoen sailkapena, Batto plataformaren mantentze-lanak (Pamplona-Iruña appa) eta webgunea hobetzeko lanetan laguntzea.

SAN BARTOLOME GOTORLEKUA, IRUÑEKO GOTORLEKUEN INTERPRETAZIO ZENTROA.
2020an San Bartolome gotorlekua konpontzeko eta hobetzeko lanak egin ziren, irisgarritasunari buruzko Ilunionen txostenetik eratorriak: bainugela irisgarritasun-arauari egokitzea, erakusketan islak kentzea eta zirkulazio-sistema egonkor bat garatzea. Gainera, saneamendu-sistema garbitu eta ponpaketa egiaztatu zen, kanpoko ateko pintura konpondu zen, 5. kasernako grafitia berreskuratu zen eta itoginak eta hezetasunak konpondu ziren. Elementu teknologikoei eragiten dieten konponketak egin ziren, begizta magnetiko bat instalatu zen, balizak erosi ziren eta zaintza-kamerak eta izuaren aurkako sistema instalatu ziren. Altzariak ere berritu ziren, irisgarritasun-araudira egokitzeko eta turismo-materiala gordetzea errazteko. Gortinak berritu eta seinale irisgarriak jarri ziren. Azkenik, Pamplona-Iruña aplikazioan hobekuntzak aplikatu ziren irisgarritasuna hobetzeko.

Obrak 2020ko uztailaren erdialdean amaitu ziren, 84.446 euroan. Gotorlekua abuztuaren 1etik urriaren 12ra egon zen zabalik, astelehenetik larunbatera 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, eta igandeetan, 11:00etatik 14:00etara. Jendaurreko harrera eta eguneroko garbiketa zerbitzua SEDENAri eta ASPACEri adjudikatu zitzaizkien, hurrenez hurren, honako aurrekontu hauekin: 6.270 euro + BEZ eta 1.750 euro + BEZ.

BERTZE HELMUGA BATZUEKIKO SINERGIAK INDARTZEA.
Donejakue Bideko Udalerrien Elkartea: Turismo Zerbitzuak mahai teknikoan parte hartu zuen (Garesen, otsailaren 28an), eta denbora errealean aterpeetan beteta dauden tokien berri ematen duen sistema baten abiaraztean (Albergues LoT proiektua).

# HELMUGA-ADIMENA

Programa honen helburua da Iruña helmuga adimendun bihurtzea, helmuga turistiko berritzaile gisa ulertuta, etengabeko eguneratze teknologikoko ezarpen egokiarekin, zeina, guztientzat eskuragarri izateaz gainera, iraunkorra izanen baita denboran.

TURISMOAREN BEHATOKIA

Honako puntu hauetan bildutako datuak aurkeztu dira:

1. Turismo Bulegoa.
2. Ultreia, Donejakue Bidearen Interpretazio Zentroa.
3. Jesus eta Maria erromes-aterpetxea.
4. Paderborne erromes-aterpetxea.
5. Autokarabanendako eremua.

TURISMO-BULEGOA

2020an 18.605 bisitari izan ziren guztira, eta 2019an, berriz, 129.808; hau da, -% 85,67ko beherakada egon da. Guztira, 14.503 bisitari nazional izan dira, eta nazioarteko 4.102. Abuztuan bisitari nazional gehien (2.927) izan ziren; nazioarteko bisitarien kasuan, berriz, uztailean (923), nahiz eta Sanferminak bertan behera utzi. Nabarmentzekoa da martxoko eta apirileko ohiko bisitarien beherakada, erromes faltagatik eta udaberrian eta urrian programatutako bidaiengatik. Otsailean igaro dira erromes eta turista ez-erromes gehien (hirian ostatu hartutakoak) Turismo Bulegotik (ikus COVID-19).

Hona hemen bisitari gehien jasotzen dituzten hiru autonomia-erkidegoak: Katalunia 3.117 pertsona (bisitarien % 21,49), Nafarroa: 2.456 pertsona (% 16,93) eta Madril: 2.094 pertsona (% 14,44). Nazioartekoei dagokienez: Frantzia: 2.423 pertsona (% 59,07), Erresuma Batua: 243 pertsona (% 5,92) eta Alemania: 168 pertsona (% 4,10).

ULTREIA, DONEJAKUE BIDEAREN INTERPRETAZIO ZENTROA

2020an 2.220 bisitari izan ziren guztira; 2019an, berriz, 6.266. Bisitari nazionalak, guztira, 1.551 izan ziren, eta nazioartekoak, 669.

2020. urtean, otsaila izan da Ultreiara bisitari gehien joan diren hilabetea, 547 pertsonarekin, seguruenik osasun-murrizketen aurreko azken hilabetea izan zelako. Ultreiako erabiltzaile gehienak tokikoak dira (% 32,31), eta, ondoren, hirian ostatu hartu zutenak, hau da, turista ez-erromesak (bisitarien % 28,94). Bisitari erromesen gailurra irailean jaso zen. Tokiko bisitarien gehieneko kopurua abenduan eman zen.

Jatorriaren arabera, bisitari gehienak autonomia-erkidego hauetakoak izan dira: Nafarroa, 718 pertsona ( % 48,77); Katalunia, 183 pertsona (% 12,43), eta Madril: 138 pertsona (% 9,37). Ultreiara etortzen diren bisitari gehienak herrialde hauetakoak dira: Frantzia, 393 pertsona (% 60,09); Alemania, 51 pertsona (% 7,79), eta Italia, 37 pertsona (% 5,65).

JESUS ETA MARIA ERROMES-ATERPETXEA

Uztailaren 1ean, aterpetxe turistikoa ireki zen, Donejakue bidea egiten duten guztientzako laguntza-puntu gisa (ikus COVID 19), eta urriaren 23ra arte egon zen zabalik. Ireki zen hilabeteetan 4.567 pertsonak hartu zuten ostatu, eta horietatik 2.020 atzerritarrak izan ziren. 2019an 20.564 pertsona hartu zituen aterpetxeak.

Paderborn erromes-aterpetxea (ikus COVID-19)

Autokarabanetarako eremu

Autokarabanetarako eremuak beherakada handia izan du, 2019an jasotako datuekin alderatuta, eta 7.374 eragiketatik 2.820 eragiketara igaro da 2020an.

# EUROPAKO PROIEKTUAK

2020an, hiru proiektu zeuden indarrean: Jacob@ccess eta Kintoan Barna.

- **Jacob@ccess (Donejakue bidea)**
  Iruñeko Udalak Jacob@ccess proiektuaren bazkide gisa parte hartzen du. Proiektu hori Espainia-Frantzia-Andorra Mugaz Gaindiko Lankidetza Programak (POCTEFA 2014-2020) finantzatzen du, EEGF funtsen bidez. Jacob@ccess proiektuaren parte diren herri guztietan (Iruña, Jaka eta Ostabat-Izura) DoneJakue bideari buruzko interpretazio-zentro bat garatzea da helburua, pertsona guztientzat eta, bereziki, desgaitasunen bat dutenentzat irisgarria izanen dena. Gainera, Martilluén (Huesca) aterpetxe egokitu bat jarriko dute martxan.
  Proiektu horren esparruan, Udalak jardunbide egokien eta baliabide erabilgarrien inbentarioan laguntzen du, eta, gainerako bazkideekin batera, azpiegituretan landu beharreko gai eta elementu partekatuen hautaketan parte hartzen du.
- **Kintoan Barna (natura eta kultura)**
  proiektu honen helburua Kintoko inguruaren erakargarritasuna areagotzea da, dinamizazio eta errebalorizazio ekonomikoko ekintzak garatuz bertako biztanleen, eragile sozialen eta bisitarien mesedetan. Iruñeko Udalak turismo-produktuaren komunikazio-jardueretan eta garapenean parte hartzen du. 2020an, Emotion tourisme enpresak egindako "produktu turistikoa" azterlanaren proposamenaren balorazioa egin da. Gainera, hiriko produktu turistikoa eta Kintoko lurraldearekin duen lotura garatu eta hobetzeko asmoz, "Iruñearen blokeoa" izeneko ihes-jokoa garatu da.

# PRODUKTU TURISTIKOAK

MICE mahaia: Elkarteen Merkatuko Sustapen Nazionaleko Jardunaldia hartzeko hautagaitza prestatzen da –azkenean Malagan egiten bada ere–: marka-izena, logotipoa eta sare sozialetako kontuak sortzen dira, eta bileretan, topaketetan eta webinarretan parte hartzen da, besteak beste, MICE Foroaren III. Topaketa Birtualean (ekaina) eta Spain Convention Bureau delakoaren onlineko Biltzar Nagusian (uztaila). MICE mahaiari dagokionez, martxoan bildu zen kongresu eta bileretara joaten diren pertsonek helmugan egiten duten gastuaren profila jakinarazteko, eta ekainean, berriz, Iruñeko eta Espainiako MICE segmentuaren testuingurua eta joerak aztertzeko, bai eta MICE 2020ko Plan Operatiboa ere; MICE Sektoreari Laguntzeko Plana Udalaren aldetik, eta MICE segmentua, Nafarroako marketin-plan berrian. Zerbitzuak IBTM Bartzelona birtualean ere parte hartu zuen: Bidaia-agentzia handizkariak/Agentziak hautatzeko azterketa eta balorazioa (abendua) online hitzorduak hitzartzeko.

**Osasun turismoa. Osasun-klusterrean parte hartzea (ikus COVID-19)**

Donejakue bidea: 2020an, hiru lan-fasetako estrategia bat zehaztu zen Iruñeko Donejakue bidea produktua garatzeko eta Ultreia Zentroa hobetzeko: Ultreia Zentroa abian jartzea (egina), erromesen harreraren kontzeptua eta Frantziako Donejakue bideari buruzko informazioa garatzea (2021) eta Bideari lotutako turismo-enpresen merkaturatzea hobetzea 2022an.

**Gastronomia**

Saborea España sarea

2020an, Iruña Saborea España sarean sartu zen. Onlineko bi sustapen-kanpainatan parte hartu zuen: 'Quédate en casa' (ikus COVID-19) eta 'Contigo sabe mejor'. Azken horretan, leku bakoitzak bidali zituen azalpen-testu bat gastronomiaren ikuspegitik, argazkiak, bideoa, errezetak eta produktu gastronomiko bereizgarriak. Mikroklip bat ere egin zen. Entzierroko, Bideko eta Ibilbide Berdeko ibilbide gastronomikoak ere prestatu ziren, denak ala denak webgunerako, etorkizunean aurrez aurreko ekitaldi promozioa egiteko asmoz.

Helmuga Gastronomikoen Espainiako Elkartea

Udalak bilera, foro eta batzar birtualetan eta/edo aurrez aurrekoetan parte hartu zuen: 4, ekainean; 1, urrian eta 2, azaroan.

Gastronomia dinamizatzeko jarduera: 'Dastaketa freskoak'

Ardo onarekin, artisau garagardoarekin, apardunekin eta haien uztarketekin lotutako usaimen- eta dastamen-esperientziak dira. Pamplona Foody enpresaren eskutik egin ziren, abuztuko lau larunbatetan, San Bartolome gotorlekuan.

IRUÑA BERDEA DA

Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak eta Udaleko Kulturako eta Turismoko Alorrek elkarrekin egindako lanari esker, 2020ko iraila eta azaroa bitartean, jarduera-programa bat prestatu zen hiriko berdegune esanguratsuetan, hala nola Arantzadin, Ziudadelan eta Taconeran. Helburua da natura-ondarea herritarrengana hurbiltzea, naturaz gozatzea eta ingurune seguruetan harremanetan jartzeko eta ongizate fisikoa, psikologikoa eta soziala berreskuratzeko gizarte-premiari erantzutea.

Proposamenak hiriko alderdi esanguratsuei buruzko erronkak sustatzea barne hartzen du, ingurumenaren, kulturaren eta turismoaren ikuspegitik garrantzitsuak izan daitezkeenak.

Produktuen dinamizazioa

Bisita gidatua: 'Iruña ezinbestekoa' (Iruña harresiak dira)

Iruñeari buruzko bisita orokor bat eskaintzen da, gaztelaniaz, gutxi gorabehera 90 minutukoa, oinez egitekoa eta mugikortasun urriko pertsonendako irisgarria. 'Iruña ezinbestekoa' bisitak gai batzuk hurbiltzen dizkie bisitariei: hiriko historia, sanferminak, Donejakue bidearen garrantzia, parke eta lorategiena eta baita gastronomiarena ere.

Bisita doakoa da Iruñera 'Jan ezazu Iruña' kanpainarekin iristen diren turistentzat, eta ordaindu beharrekoa, gainerako turistentzat. Egunero eskaini zen, 11:30ean, uztailean eta abuztuan. PIC txartelari atxikitako kultura-jardueretako enpresa guztiek parte hartzen dute.

Harresietako zaindaria (Iruña harresiak dira - familiak)

Iruñeko harresiari bizia eman zioten pertsonaiak irudikatzen dituen antzerki erako bisita, aktore eta gidari batekin, non Iruñeko gotorlekuen historia ezagutzen baita. Jorge Próspero de Verboom ingeniaria, infanteriako soldadu bat eta harresiko portaleetako bateko zaindaria bisitarien zain daude hainbat puntutan, euren egunerokotasuna umorez eta zorroztasun historikoz kontatzeko.

Uztaileko eta abuztuko zazpi egunetan egin zen familiarteko bisita.

Ihes-jokoa: Taconerako sekretuak (Iruña harresiak dira – berdea da. Familiak)

Logika eta talde-lana emozioarekin eta dibertimenduarekin uztartzen dituen jokoa da, erronka edo misio bati irtenbidea emateko. Mapa bat eta osagarri fisiko jakin batzuk (kutxak giltzarrapoekin, etab.) banatuko zaizkie talde parte-hartzaileei, eta haietaz baliaturik Taconera parkeko tarte batean barna ibiliko dira igarkizunak, asmakizunak eta hieroglifikoak argitzen. Gutxienez telefono mugikor bat eraman beharko dute igarkizun bat edo batzuk argitu ahal izateko.

Jokoak 10 igarkizun ditu. Joko bakoitzeko 5 lagun bitarte parte-hartu dezakete. Zazpi saio egin ziren uztailean eta abuztuan, saio bakoitzeko 50 leku bitarte eskainita.

Bisita gidatuak parkeetara (Iruña berdea da - familia)

Bisita gidatuak eskaini dira Iruñeko parkeetan barna: Yamaguchi, Taconera, Media Luna eta Ziudadela. Familia osoari zuzendutako jarduera da, parke horien paisaia-, natura-, kultura- eta historia-aberastasunaz sentsibilizatu eta gozatu nahi duena. Uztailean eta abuztuan zazpi irteera egin ziren.

| | Saldutakoak | Eskainitakoak | Programatutako saio kopurua |
|---|---|---|---|
| Ihes-jokoa - Taconerako sekretuak | 342 | 350 | 7 |
| Bisita gidatua parke eta lorategietara | 20 | 168 | 7 |
| Harresien zaindaria | 144 | 144 | 6 |
| Dastaketa freskoak | 120 | 120 | 4 |

# MARKETINA ETA PUBLIZITATEA.

**IRUÑEKO TURISMO-WEBGUNE OFIZIALA:** Iruñeko Turismoko webgune ofiziala

2020an Turismoko webgunea bultzatu zen, edukiak berrikusi ziren, eta euskara, ingeles eta frantsesera itzuli zen.

Sare sozialak

Hiru sare sozialekin egin zen lan: Twitter, Facebook eta Instagram. Urtearen hasieran, lehen hiru hilabeteetan, adierazleek goranzko joera erakutsi zuten. Apiriletik aurrera argitalpen kopurua eta maiztasuna handitu ziren (ikus COVID-19). Instagram izan zen urteko lehen hilabeteetan gehien hazi zen sare soziala eta elkarrekintza gehien izan zituena. Abenduaren 24tik aurrera etengabe hazi zen edukien txertatzea, 'Iruña Quiz' zela eta. Egunero egun horri zegozkion galderak argitaratu ziren euskaraz eta gaztelaniaz, eta 26tik aurrera, kultura-jardueretako enpresek grabatutako bideoak, galderen erantzunekin. Dinamika horretan, Facebookeko elkarrekintzak eta 'atsegin dut'-ak nabarmen hazi ziren. Guztira 221.577 ikustaldi egon ziren eta 222 jarraitzaile gehitu ziren sare horretan. Zerbitzuak 1.040 euro inbertitu zituen publizitatean Facebooken eta Instagramen ekimen honekin.

Newsletterra eta agenda turistikoa

Hamabostean behin egiten den newsletterra agenda turistikoarekin batera dago 2020ko bigarren hiruhilekora arte. Une horretatik aurrera, eta egoeraren ezegonkortasuna dela eta, agenda argitaratzeari utzi zitzaion. Newsletterrak hiriko jardueren agenda zabaltzeko betekizuna hartzen du, martxotik ekainera bitarte bere jarduera eteten duen arren. Uztailetik aurrera berraktibatzen da, asteroko maiztasunarekin, eta azaroan, berriz, hamabostekora itzultzen da.

**Publizitatea**

Jan ezazu Iruña

Iruñeko Hotelen Elkarteak, Iruñeko Udalaren babesarekin kanpainaren babesle gisa, Nafarroako Ostalaritza eta Turismo Elkartearen lankidetzarekin (jatetxeen atxikimenduarekin) eta Nafarroako Gobernuko Turismo Departamentuaren laguntzarekin, "Cómete Pamplona" kanpaina abiarazi zuen, 2020ko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra. Ekimen turistiko honen helburua da Iruña helmuga gisa sustatzea nazioko eta nazioarteko (Frantziako hegoaldea) turisten aurrean, gastronomian (39 jatetxe), ostatuan (26 hotel) eta bisita gidatuetan –aktibo osagarri gisa– oinarritutako balio-proposamen baten bidez.Udala arduratu zen Atrápalo bidaien webgunean eta El Heraldo de Aragón, el Correo, el Diario de Burgos eta Sud Ouest egunkarietan egin zen publizitate-kanpaina digitala diseinatu, gauzatu eta kostuak bere gain hartzeaz. Gainera, Instagramen eta Facebooken publizitatea txertatu zen eta Sisters in the City eta Viajeros 3.0 influencerrek parte hartu zuten. Kanpainaren kostua 20.000 eurokoa da.

Tourmagazine

Gipuzkoako eta Bizkaiko Tourmagazine aldizkarian publizitatea kontratatu zen, udaberri, uda eta udazkeneko aleetan. 3.800 euro + BEZ urteko (1.900 euro banatutako izenburu bakoitzeko. Pandemiaren ondorioz, enpresak erabaki zuen udako eta udaberriko paperezko bertsioak ez argitaratzea, eta aldizkariaren banaketa digitala egin zuen hoteletan).

Azokak. FITUR

Urtarrilaren 22an, Iruñeko Udalak City break delakoa sustatzeko lan-ildoa eta 2020. urterako hiriko jaialdi nagusien zorroa aurkeztu zituen Madrilen. Gainera, azoka egin bitartean, hainbat lan-bilera egin ziren sektoreko eragile eta enpresekin.

# AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Iruñeko Udaleko Aholkularitza Juridikoa Alkatetzari, Tokiko Gobernu Batzarrari eta zuzendaritza-organoei aholkularitza juridikoa emateaz arduratzen den administrazio-organoa da. Eginkizun hauek ditu esleiturik: aholkularitza juridikoa ematea, bai eta Iruñeko Udala eta haren erakunde autonomoak epaiketetan defendatu eta ordezkatzea ere.

2020. urtean, honako langile hauek izan zituen: 2 administrari, zeinak lanean aritu baitziren dela Osoko Bilkuraren Idazkaritzarako dela Gobernu Estrategikoko Alorrerako –kasu horretan informazio publikoa eskuratzeko aurkeztutako eskabideen tramitazioan–, 8 lizentziadun Zuzenbidean eta 10 legelari, eta horiez gain, Tokiko Gobernu Batzarrari Laguntzeko Organoaren titularra, Alorreko zinegotzi ordezkaria eta Aholkularitza Juridikoko zuzendaria –bi organo horiek beharrezkoak baitira Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 130.1.B.d) artikuluaren arabera–. Hirigintza Gerentziaren aholkularitza juridikoak, gainera, 3 legelari eta Zuzenbideko lizentziadun bat ditu, baita zuzendaria ere.

Epaiketetako ordezkaritza laguntza teknikoko kontratuaren prokuradore esleipendunak egiten du, gehienbat.

## Aholkularitza juridikoak zeregin nagusi hauek izan ditu 2020an:

- Iruñeko Udalak eta haren organismo autonomoek esleitutako kontratuei buruzko nahitaezko legezkotasun-txostenak egitea; kontratuen ezaugarriak idaztea; parte hartzea, idazkari-lanak eginez, prozedura negoziatuetako kasuan kasuko kontratazio-mahaietan eta negoziazio-batzordeetan.

- Iruñeko Udalaren besterentzeak, administrazio-emakidak, erabilera-lizentziak eta ondasunen errentamenduak arautu zituzten baldintza-plegu eta kontratuak prestatzea eta txosten juridikoak egitea, eta, gainera, kontratazio-mahaietan parte hartzea idazkaritza-eginkizunetan.

- Dirulaguntzetarako deialdien oinarriak idazteko lanetan parte hartzea, dirulaguntzetarako deialdien gaineko legezkotasun-txostenak prestatzea eta balorazio-batzorde batzuetan parte hartzea dirulaguntzak emateko proposamenak egiteko.

- Lankidetza-hitzarmenen prestaketan parte hartzea, eta Iruñeko Udalak onetsi zituen hitzarmenen gaineko legezkotasun-txostenak egitea.

- Herritarrendako lege-aholkularitzaz arduratzea Emakumeendako Udal Arreta Zerbit.

- Hirigintza-lizentzien espedienteetan txosten juridikoak egitea, hirigintza-legezkotasuna babestea eta arlo horretako zehapen-espedienteak egitea.

- Iruñeko Udaleko Hiria Birgaitzeko Bulegoak kudeatu zituen birgaitzeko laguntzen espedienteetan aholkularitza juridikoa ematea.

- Herritarrei aholku ematea eraikinak zaharberritzearekin lotutako alderdi juridikoen gainean, jabeen erkidegoen akordioek eraikinak zaharberritzeari dagokionez izan behar duten edukiaren gainean, bai eta akordio horiek baliozkoak izateko izan behar dituzten betebehar juridikoen gainean ere. Bestalde, Hiria Birgaitzeko Bulegoan bertan egindako jabeen erkidegoen batzarretan ere parte hartzen du.

- Txosten juridikoak egitea, plangintza- zein birpartzelazio-dokumentuak eta urbanizazio-proiektuak onesteko, bai eta Iruñeko Udalak onetsitako hirigintza-plangintzako eta -kudeaketako hitzarmenetan ere.

- Txosten juridikoak egitea zirkulazioko, ingurumeneko, hiri-ekologiako eta osasuneko zehapen-espedienteetan.

- Txosten juridikoak egitea langileekin zerikusia duten gaietan, eta langileak hautatzeko prozeduretan parte hartzea.

- Txosten juridikoak egitea ondarezko erantzukizuneko espedienteetan eta udal-ondasunei egindako kalteak erreklamatzeko espedienteetan.

- Teknikariekin elkarlanean ordenantzak idaztea, eta horiei buruzko legezkotasun-txostenak egitea.

- Aholkularitza juridikoa ematea erroldatze, udal-erregistro, ezkontza zibil eta izatezko bikoteen gaineko espedienteekin lotuta.

- Udal Alorretako idazkaritza teknikoen eta Osoko Bilkuren Idazkaritzaren ordezkapen-lana egitea, haiek oporretan, baimen-egoeretan eta aldi baterako lanerako ezintasun-egoeretan daudenean.

- Aholkularitza juridikoa eta idazkaritza-eginkizunak egitea Haur Eskolen erakunde autonomoarentzat, Gayarre Antzokia udal-fundazioan eta Emakumearen Kontseiluan.

- Laguntza ematea, idazkari- eta mahaikide-eginkizunak betez, honako merkataritza-sozietate hauetako akziodunen batzarretan eta administrazio-kontseiluetan: Iruña Biziberritzen SA (PCH), ASIMEC SA, Comiruña SA, Mercairuña SA eta Asociación Navarra de Informática Municipal SA (ANIMSA).

- Zinegotzigoek, alorretako zuzendaritzek, idazkaritza teknikoek eta Iruñeko Udaleko langileek hitzez egindako hainbat kontsultari erantzun zitzaien.

- Iruñeko Udala defendatzea jurisdikzio-ordena guztietako epaitegi eta auzitegietan.

# ERREKURTSOAK ADMINISTRAZIO-FASEAN

Gorako jotzeko errekurtsoak. 218 errekurtso berri izapidetu dira, eta guztira 165 ebatzi.

Ebatzitako errekurtsoen emaitzei dagokienez: 14 ez dira onartu (% 8,48), 14 artxibatu egin dira (% 8,48), 1ek atzera egin du (% 1,53) eta 95 ezetsi egin dira (% 57,57). Baietsitako 61 horietatik 39 (% 23,63) osorik baietsi dira, eta 22 (% 23,02), partzialki.

Ebazteko: 52.

# LEGELARI-DEFENTSA

2020an, zerbitzu juridikoak administrazio-fasean honako errekurtso hauek defendatzeaz arduratu ziren:

Berraztertze-errekurtsoak. 1.086 errekurtso izapidetu dira, eta 1.078 ebatzi.

Ebatzitako errekurtsoen emaitzei dagokienez: 43 ez dira onartu (% 3,98), 1ek atzera egin du (% 0,09), 662 gaitzetsi dira (% 61,41), 355 baietsi dira (% 32,93), 11 partzialki baietsi dira (% 1,02) eta 1 artxibatu da(% 0,09).

Ebazteko: 8.

Gora jotzeko errekurtsoak. 823 errekurtso berri izapidetu dira, eta guztira 372 ebatzi.

Ebatzitako errekurtsoen emaitzei dagokienez: 32 ez dira onartu (% 8,60), 16 artxibatu dira (% 4,3), 2k atzera egin dute (% 0,06), 215 gaitzetsi dira (% 57,79), 100 baietsi dira (% 26,88), 33 partzialki baietsi dira (% 8,87) eta 28tan nahiak onartu dira (% 7,52).

Ebazteko: 524.

2020an, zerbitzu juridikoak Iruñeko Udala eta haren erakunde autonomoak defendatzeaz arduratu ziren administrazioarekiko auzien ordenako, ordena zibileko, merkataritza-ordenako, zigor-ordenako eta lan-ordenako epaitegi eta auzitegietan jarraitutako 269 prozeduratan (184 auto nagusi eta 85 intzidental zenbatu dira).

Prozedura motaren arabera, auto nagusi eta intzidentaletako defentsa egin zen administrazioarekiko 193 auzitan, ordena zibileko 41etan, zigor-ordenako 33tan eta lan arloko 71tan. Gainera, legelari-laguntza ere eman du udal-langileek zigor-prozeduretan ikertu gisa emandako deklarazioetan.

Defendatutako administrazioarekiko auzien prozeduretatik, prozedura zibiletatik eta zigor-prozeduretatik 192k zenbateko zehaztugabea zuten. Beste 77 prozedurek zenbateko zehaztua zuten; orotara, 12.399.972,75 euro.

2020an, administrazioarekiko auzien arloan, arlo zibilean eta zigor-arloan 133 prozedura amaitu dira (administrazioarekiko auzietako 86 prozedura, 20 prozedura zibil, 14 zigor-prozedura eta lan arloko 10 prozedura), eta horietatik 64 prozedura nagusiak izan dira. Amaitutako prozeduretatik, 87 (% 65,4) udal-interesen aldekoak izan dira, 45 (% 3,8) aurkakoak eta bat hein batean baietsita.

# 2.3.1.

# ZERBITZU OROKORRAK

## GIZA BALIABIDEAK

### UDAL-PLANTILLA

BILAKAERA

| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| IRUÑEKO UDALA | | | | | |
| Funtzionarioak | 890 | 877 | 887 | 863 | 818 |
| Kontratu administratiboa duten langileak | 369 | 411 | 361 | 378 | 373 |
| Langile kontratudunak | | | 180 | 182 | 180 |
| GUZTIRA | 1259 | 1288 | 1428 | 1423 | 1.371 |
| HAUR-ESKOLAK ERAKUNDE AUTONOMOA | | | | | |
| Funtzionarioak | 54 | 49 | 43 | 36 | 34 |
| Kontratu administratiboa duten langileak | | | 79 | 81 | 93 |
| Langile kontratudunak | | | 71 | 70 | 75 |
| GUZTIRA | 182 | ¿? | 193 | 187 | 202 |
| HIRIGINTZAKO GERENTZIA | | | | | |
| Funtzionarioak | 15 | 14 | 14 | 18 | 20 |
| Kontratu administratiboa duten langileak | 9 | 9 | 11 | 8 | 6 |
| GUZTIRA | 24 | 23 | 25 | 26 | 26 |

Urte honetan 1.364 kontratu sinatu dira.

34 langilek erretiroa hartu dute, 1ek partzialki, eta abian dira ezintasun iraunkorreko 6 prozes

2020ko hautaketa-prozesuei dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Arkitekto teknikoa. Aldi baterako kontratazio-zerrendak Nafar Lansarerekin.
- Musika Eskolako irakaslea, oboeko espezialitatean. Aldi baterako kontratazio-zerrendak.
- Musika Eskolako irakaslea, ikastaro monografikoetako espezialitatean. Aldi baterako kontratazio-zerrendak.
- 1. mailako Ofiziala Soldaduran. Aldi baterako kontratazio-zerrendak Nafar Lansarerekin.
- Industri Ingeniari Teknikoa. Aldi baterako kontratazio-zerrendak.
- Ziudadelako Zerbitzuburua. Kategoriaz igotzeko lehiaketa.
- Laneko Arriskuen Prebentzioko teknikaria. Aldi baterako kontratazio-zerrendak.
- Gizarteratzeko teknikaria. Aldi baterako kontratazio-zerrendak Nafar Lansarerekin.
- Kirol Zerbitzuko burua. Kategoriaz igotzeko lehiaketa.

Beste deialdi hauek 2020an edo lehenago abiatu eta 2021etik aurrera amaituko dira:

- Musika Eskolako irakaslea, Musika-hizkuntzako espezialitatean. Aldi baterako kontratazio-zerrendak.
- Udaltzaingoko Agente Lehena Kategoriaz igotzeko lehiaketa.
- Laneko Erizaina. Aldi baterako kontratazio-zerrendak.
- Lan medikuntzako mediku espezialista. Aldi baterako kontratazio-zerrendak.
- Gizarte-langilea. Oposizioa Udalean sartzeko.

## LAN-ESKAINTZA PUBLIKOA

Udalak eta haren erakunde autonomoek 2020. urterako lan-eskaintza publikoa onetsi dute, Estatuko aurrekontu-araudiarekin bat etorriz, horren barruan honako lanpostu hauek sartuta:

Iruñeko Udala. Lanpostuak berritzea.

- Goi mailako Kultur Teknikari tituludun 1.
- 2 Arkitekto Tekniko.
- Desinfekzio eta Mantentze-lanetako Ofizial Profesional 1.
- Erdi-mailako tituludun 1, bateraezintasunarekin.
- Hilerriko Administratzaile 1.
- Mugikortasuneko Ikuskatzaile Laguntzaile 1.
- Musika Eskolako Piano irakasle 1.
- 4 Gizarte-langile.
- 25 Udaltzaingoko agente.
- Lan Erizaintzako Teknikari 1.
- Osasun Publikoko Goi-mailako Teknikari 1.
- Gizarte-hezitzaile 1.

Iruñeko Udala. Lanpostuak egonkortzea.

- Kontu-hartzaile Ordezkari 1.
- 2 Arkitekto Tekniko.
- Kimika-ingeniari Tekniko 1.
- 2 Tributu-ikuskatzaile.
- Mugikortasuneko Ikuskatzaile Laguntzaile 1.
- Hiri Kontserbazioko Mantentze-lanetako 9 Laguntzaile.
- 52 Funtzionamendu-laguntzaile.
- Lorategietako Zerbitzuburu 1.
- Proiektuetako Zerbitzuburu 1.
- Aparkalekuetako Zerbitzuburu 1.
- Desinfekzio eta Mantentze-lanetako Arduradun 1.
- Administrazio Kudeaketarako Unitateko Arduradun 1.
- Ibilgailu Parkeko Arduradun 1.
- Ikuskatzaile Laguntzaile 1.
- 3 Gizarte-hezitzaile.
- Udaletxeko Mantentze-lanetako Arduradun 1

Haur Eskolak.

- 3 hezitzaile. 112., 404. eta 407. plazak, funtzionario-izaerakoak eta C mailakoak, izan diren erretiroetan % 100eko berritze-tasa aplikatzearen ondorioz.

Hirigintzako Gerentzia.

- Psikologo 1. 119. plaza, funtzionario-izaerakoa eta A mailakoa.
- Nutrizionista 1. 122. plaza, lanaldi partzialeko lan-araubidekoa eta B mailakoa.
- Lantegigile 1. 120. plaza, funtzionario-izaerakoa eta C mailakoa.
- 4 hezitzaile. Funtzionario-izaerako plazak, C mailakoak, gauzatu gabeko 2016ko LEPetik datozenak.

# PRESTAKUNTZA

Jarduera mota hauek dezente murriztu dituen pandemia gora-behera, Iruñeko Udalak Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren Plan Taldekatuan jarraitu du 2020. urte honetan, eta, beraz, Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileek plan horretako prestakuntza-ekintzetan parte hartu ahal izan dute.

Plan horren bidez, Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileek 25 prestakuntza-ekintzatan parte hartu dute, 68 espezialitaterekin.

Udaleko eta erakunde autonomoetako 226 langilek jaso dute prestakuntza, eta guztira 296 aldi ezberdinetan bertaratu dira prestakuntza-jarduereetara. Guztira: 3.980 ordu.

2020. urtean zehar, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin elkarlanean, guztira 10 ikastaro edo prestakuntza-jarduera antolatu eta eman dira, non 91 langilek (65 emakume eta 26 gizon) parte hartu duten, eta beste bat, Prebentzioko Zerbitzuak antolatua, non 3 langilek parte hartu duten.

Gaien edukia Arriskuen Ebaluazioetan deskribatutako arriskuen arabera zedarritu zen:

- "Kudeaketa emozionalerako tresnak: Mindfulness", bi ekintza, bata udaltzaingorako bereziki antolatua, eta bestea, gainerako udal-langileentzat.
- "Lantaldeak motibatzea: Mindfulness", Udaleko langileen artean erdi-mailako aginpideko karguak betetzen dituztenentzat, ekintza bat.
- “Laneko ongizatearen kudeaketa” izenburuko bi ekintza, bata berariaz auzo-unitateetako langileei zuzendua, eta bestea, gainerako udal-langileei.
- “Indarkeriarik gabeko Komunikazioa” izenburuko bi ekintza, bata berariaz auzo-unitateetako langileei zuzendua, eta bestea, gainerako udal-langileei.
- “Biktimen arreta psikologikoa” izenburuko ekintza 1, udaltzainentzat.
- “Plataforma altxagarrien erabilera” izenburuko bi ekintza, zuhaitzetako brigadek prestakuntza berritu dezaten.
- “Plataforma altxagarrien erabilera” izenburuko ekintza bat, Prebentzioko Zerbitzuak antolatua, ibilgailu-parkeko eta lorategietako langileentzat.

# LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

2005eko urtarrilaren 1az geroztik, Prebentzioko departamentua langile kontratatu berri guztiei honako hauen berri emateaz arduratzen da: beren eginkizunek dakartzaten berariazko arriskuak, hartu beharreko prebentzio-neurriak, Udalak prebentzioari buruz onetsitako prozedurak, udal-lokaletako larrialdi plana, informazioa lan-istripuen kasuan jarduteko moduaz eta Prebentzioko Zerbitzuaren gaineko informazio orokorra. 2020an, 328 pertsonari eman zitzaien informazio hori, Udalarekin kontratu bat lehen aldiz sinatutakoan.

**Istripuen ikerketa.**

2020an, Iruñeko Udalean baja medikoa eragin duten 82 lan-istripu gertatu dira, eta beste 53 lan-istripu, non laguntza medikoa behar izanda ere, ez duten baja medikorik eragin. Baja eragin duten istripuetatik % 56,1 gizonek eduki dute, eta % 43,9, emakumeek. Ehuneko horretan dagoen aldearen azalpena zera da: istripuen % 77 Udaltzaingoari dagokio eta zerbitzu horretan batez ere gizonak ari dira. Bajarik gabeko istripuetan, % 66 gizonak dira, eta % 34, emakumeak. Istripu horietan, baja eragiten dutenetan bezala, gehienak udaltzainek jasaten dituzte.

## OSASUN-AZTERKETAK

2020an, osasun-azterketa egiteko 545 hitzordu egin zitzaizkien udal-langileei, eta 445 langile joan ziren; hau da, deitutakoen % 81,7.

**Eraikuntzen azterlanak eta autobabeserako planak.**

Autobabeseko 5 plan gaurkotu dira, Alorren berregituraketaren ondorioz arduradun berriak izendatu diren edo bestelako aldaketak gertatu diren eraikinetan. Eraikin guztiek dituzte ebakuazio-neurriak idatzita.

# ANTOLAKETA ETA GIZA BALIABIDEAK

Halaber, Giza Baliabideetako Alorrak erantzuna ematen die hainbat udal-zerbitzuk edo -langilek egindako eskaera guztiei, zalantzak argitzeko edo sortutako gatazka-egoerak konpontzeko, lan-baldintza hobeak lortze aldera. Enplegu publikorako deialdien arloan herritarrek egindako eskakizunei ere erantzuten zaie, eta kasu honetan eskaera nabarmen handitu da.

Era berean, informazio- eta prozedura-euskarria ematen zaie Udaleko erakunde autonomoek egindako kontsultei.

Udal-zerbitzuak aztertzeko eta berrantolatzeko 2017an hasitako antolaketa-azterketen dinamikari dagokionez, Zoonosi eta Elikagaien Ikuskapen Zerbitzuaren antolaketa-azterlana amaitutzat jotzen du Giza Baliabideetako Alorrak. 2018ko abenduan hasi zen, eta, etenaldi baten ondoren, azaroan berriro ekin zion. Hura ezartzeko faseak jorratzen ari dira gaur egun. Halaber, laguntza eman dio Coworkids programa berriari, zerbitzuaren egutegia diseinatzeko eta langileak kontratatzeko.

2020an zehar, Iruñeko Udalaren Lan Eskaintza Publikoa (LEP) jorratu du, eta, halaber, Plantilla organikoa prestatu. Era berean, departamentuaren barne-prozesuak hobetzearen alde lan egin du, arinago erantzuteko.

Bestalde, barne-prozesuak gauzatu dituzte langileen mugimendua errazteko eta luzaroko bitartekotasun-egoerak konpontzeko. Hori horrela, burutzak betetzeko deialdiak burutu dira, hala Kultura Zerbitzuan nola Kirolekoan. Orobat, urtea oraindik amaitu gabe, deialdiak garatu dira Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzuko lanpostu guztietan, langileak ordezteko, erretiro asko gertatu baitira.

Funtsezko proiektu gisara, aurten Alorraren Digitalizazio planari ekin zaio, azken hiruhilekoan kontratuen sinadura telematikoa abiatuta, halako moduz non kontratuak mugikorrean edo antzeko gailuetan sinatu baitaitezke, Alorrak egiten duen une berean, bai eta kontratuen kopiak aldi berean eskura eduki ere.

Lan-harremanei dagokienez, 34 bilera ofizial egin dira langileen ordezkariekin, eta haietan hitzarmen asko lortu dira, hala nola:

1. Udaltzaingoan lansariak homologatzeko kontzeptuen aplikazioa aldatzea.
2. Udaltzaingoarendako baldintza ekonomikoak sanferminetan 2020an.
3. Udalaren Etxez Etxeko Arreta Lantaldeko familia-langileen baldintza berrien negoziazioa, komunikazio-tresnak ezartzeari eta lan-baldintzak hobetzeari dagokienez.

# ERREGISTROAK

Udal erregistroek jasotzen dituzte herritarrek eskura ematen dituzten idazki eta agiriak zein posta bidez heltzen direnak, eta haien sarrera balioesten dute (interesdunari eskabideen kopia baliozkotua ematen zaio, edo, behar denean, horren baliokide den jaso izanaren agiria). Horretaz gain, agiri pribatuen kopiak autentifikatu, eta agiri publikoak konpultsatzen dituzte, baldin eta kopia horiek eraginkor izan behar badute Iruñeko Udalean edo haren erakunde autonomoetan tramitatzen diren prozeduretan edo beste administrazio publiko batzuetara bidaltzekoetan.

Iruñeko Udalak aurrez aurreko sei erregistro eta telematiko bat kudeatzen ditu. Aurrez aurrekoak dira Kondestablearen Jauregiko Erregistro Orokorra (Kale nagusia, 2) eta honako helbide hauetan dauden osagarriak: Iratxeko monasterioaren k., 2; Armadaren etorbidea, 2; Zapateria, 40; Descalzos, 72; eta Eslava, 1. Halaber, herritarrek www.pamplona.es webgunean erregistro digitala dute erabilgarri urteko egun guztietan

| ERREGISTROAK | 2020 | 2019 | 2018 | 2017 |
|---|---|---|---|---|
| Aurrez aurr | 41.411 | 48.003 | 38.839 | 40.935 |
| Postala | 5.380 | 7.208 | 7.994 | 8.849 |
| Elektronikoa | 32.726 | 14.390 | 9.096 | 6.413 |
| GUZTIRA | 79.517 | 69.601 | 55.929 | 56.197 |

# 2.3.2.
# ZERBITZU OROKORRAK

## OGASUNA

### 2020KO AURREKONTUA

Iruñeko Udalak 2019ko abenduaren 30ean onetsi zuen 2020ko ekitaldirako aurrekontu luzatua. Hona hemen Udalaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontuak:

| ERAKUNDEA | GASTUAK / DIRU-SARRERAK (EUROS) |
|---|---|
| Iruñeko Udalaren aurrekontua | 187.986.681 |
| Hirigintzako Gerentziaren erakunde autonomoaren aurrekontua | 5.734.800 |
| Udaleko haur-eskolen erakunde autonomoaren aurrekontua | 8.740.912 |

GASTUAK

| KAPITULUA ETA IZENA | ZENBATEKOA (EUROS) | | |
|---|---|---|---|
| | UDALA | HIRIGINTZAKO GERENTZIA | HAUR-ESKOLAK |
| A) ERAGIKETA ARRUNTAK | | | |
| 1- Langileen gastuak | 87.185.750,59 | 1.338.000 | 7.497.258 |
| 2- Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak | 70.950.002,41 | 418.600 | 1.238.654 |
| 3- Finantza-gastuak | 750.000 | 25.000 | |
| 4- Transferentzia arruntak | 21.529.728 | 9.000 | |
| B) 5.- KONTINGENTZIA-FUNTSA | 0 | | |
| C) KAPITAL-ERAGIKETAK | | | |
| 6- Inbertsio errealak | 145.000 | 2.244.200 | 5.000 |
| 7- Kapital-transferentziak | 35.000 | 0 | |
| 8- Aktibo finantzarioak | 277.200 | | |
| 9- Pasibo finantzarioak | 7.114.000 | 1.700.000 | |
| GASTUEN AURREKONTUA, GUZTIRA | **187.986.681** | **5.734.800** | **8.740.912** |

DIRU-SARRERAK

| KAPITULUA ETA IZENA | ZENBATEKOA (EUROS) | | |
|---|---|---|---|
| | UDALA | HIRIGINTZAKO GERENTZIA | HAUR-ESKOLAK |
| A) ERAGIKETA ARRUNTAK | | | |
| 1- Zuzeneko zergak | 53.836.000 | | |
| 2- Zeharkako zergak | 6.073.573 | | |
| 3- Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak | 27.005.000 | 153.600 | 1.634.000 |
| 4- Transferentzia arruntak | 97.765.408 | 3.336.000 | 7.101.912 |
| 5- Ondare-sarrerak | 2.929.500 | 1.000 | |
| B) KAPITAL-ERAGIKETAK | | | |
| 6- Inbertsio errealak besterentzea | 0 | | |
| 7- Kapital-transferentziak | | 2.244.200 | 5.000 |
| 8- Aktibo finantzarioak | 377.200 | | |
| 9- Pasibo finantzarioak | 0 | | |
| DIRU-SARREREN AURREKONTUA, GUZTIRA | 187.986.681 | 5.734.800 | 8.740.912 |

LUZAPENAREN INBERTSIOAK

| PARTIDA | KONTZEPTUA | PARTIDA |
|---|---|---|
| INFORMATIKA ETA PROZESU-EKIPAMENDU BERRIAK | | 10.000 |
| ONDAREA ETA EROSKETAK. ETXEBIZITZA BIRJAR. INB. | | 15.000 |
| TRANSFERENTZIA HIRIGINTZA GERENTZIARI | | 5.000 |
| HILERRIA-BESTE ERAIKIN BATZUK BIRJAR. INB. | | 5.000 |
| ZOONOSI UNITATEKO OSASUN ERAIKINAK | | 5.000 |
| BIDE PUBLIKOA. AZPIEGITURA BIRJAR. INB. | | 10.000 |
| ERAIKIN OROKORRAK. ERAIK. BIRJARTZEKO INB. | | 5.000 |
| MUGIKORTASUNA. AZPIEG. BIRJAR. INB. | | 10.000 |
| BERDINTASUNA. FUNTS BIBLIOGRAFIKOAK | | 5.000 |
| KULTUR AZPIEGITUREN INB. MAK. ZERB. BIRJAR. | | 10.000 |
| HAUR ESKOLAK. KAPITAL-TRANSFERENTZIA | | 5.000 |
| ZIRKULAZIOA ETA SEINALEAK. SEMAFORO INSTALAZIOAK | | 20.000 |
| TRANSFERENTZIAK GARABIDEAN DIREN HERRIALDEETARA | | 25.000 |
| ESKOLA-LANTEGIA. MAKINERIA ETA TRESNAK | | 15.000 |
| GIZARTE-ENPLEGU BABESTUA. MAKINERIA ETA TRESNAK | | 15.000 |
| PRESTAKUNTZA ETA SUSTAPENA. MAKINERIA ETA TRESNAK | | 5.000 |
| IKASTETXE PUBLIKOAK. IKASTETXEETAKO ERAIKINAK MOLD. INB. | | 10.000 |
| HERRITARREN PARTAIDETZA. FUNTS BIBLIOGRAFIKOAK. | | 5.000 |

Urtean barna, zenbait aurrekontu-aldaketa onetsi ziren, Udalaren aurtengo aurrekontuko partidak igotzea eragin zutenak. Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurak 22,26 milioi euroren aldaketak onartu ditu; hori horrela, 2019ko behin betiko aurrekontua 210,25 milioi eurokoa izan da.

## BEHIN BETIKO AURREKONTUAREN BILAKAERA

| 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|
| 205,6 | 220,7 | 213,5 | 210,2 | **226,2** |

# 2019KO KONTU OROKORRA ETA AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

2020an, 2019ko aurrekontu-likidazioa eta ekitaldi horretako kontu orokorra onetsi dira. Iruñeko Udalaren tokiko sektore publikoak (Udala, Hirigintza Gerentzia, Haur Eskolak, Iruña Biziberritzen, ANIMSA eta Gayarre Antzokia fundazioa) 13,16 milioi euroko aurrekontu-superabit edo finantzaketa-gaitasunarekin itxi zuen 2019. urtea, kontabilitate nazionalaren balioen arabera. 2019. urtearen amaieran diruzaintzako gastu orokorretarako geldikin kontsolidatua 21,9 milioi eurokoa zen, 6,6 milioi euro inguru gehiago 2018an baino (15,3 milioi).

Udalak, 2019an, 26 eguneko epean ordaindu zien hornitzaileei batez beste, bost egunetan murriztuz 2018ko epea (31 egun).

| HIRUHILEKOA | HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEA |
|---|---|
| Lehenengoa | 26,93 |
| Bigarrena (*) | 25,79 |
| Hirugarrena | 27,20 |
| Laugarrena | 25,18 |

### GASTUAK, BIZTANLEKO

| KONTZEPTUA | AG | AURREIKUSPENA BEHIN BETIKOA | OBLIGAZIO AITORTUAK | ZENBATEKOA BIZTANLEKO |
|---|---|---|---|---|
| Zor publikoa | 0 | 9.539.000,00 | 9.365.875,29 | 46,45 |
| Oinarrizko zerbitzu publikoak | 1 | 84.084.507,89 | 73.525.297,95 | 364,61 |
| Gizarte-babeseko eta -sustapeneko jarduerak | 2 | 49.415.912,37 | 48.234.134,40 | 239,19 |
| Ondasun prod. lehenetsiak | 3 | 46.679.283,10 | 44.110.116,22 | 218,74 |
| Jarduera ekonomikoak | 4 | 4.495.561,00 | 4.281.673,60 | 21,23 |
| Jarduera orokorrak | 9 | 26.820.363,00 | 24.811.792,41 | 123,04 |
| **GASTUAK, GUZTIRA** | | **221.034.627,36** | **204.328.889,87** | **1013,27** |

### DIRU-SARRERAK, BIZTANLEKO

| KONTZEPTUA | AG | AURREIKUSPENA BEHIN BETIKOA | ESKUBIDE AITORTUAK | ZENBATEKOA BIZTANLEKO |
|---|---|---|---|---|
| Zuzeneko zergak | 1 | 53.836.000,00 | 57.822.254,02 | 286,74 |
| Zeharkako zergak | 2 | 6.073.573,00 | 9.392.786,25 | 46,58 |
| Tasak eta bestelako diru-sarrerak | 3 | 28.877.600,00 | 33.488.036,33 | 166,07 |
| Transferentzia arruntak | 4 | 99.926.908,00 | 104.198.593,00 | 516,72 |
| Ondare-sarrerak | 5 | 2.930.500,00 | 2.971.534,80 | 14,74 |
| Inbertsio errealak besterentzea | 6 | 1.001.772,00 | 1.876.724,57 | 9,31 |
| Kapital-transferentziak | 7 | 5.687.566,78 | 5.978.529,79 | 29,65 |
| Aktibo finantzarioak | 8 | 13.887.048,26 | 152.413,33 | 0,76 |
| Pasibo finantzarioak | 9 | 8.813.659,32 | 0,00 | - |
| **DIRU-SARRERAK, GUZTIRA** | | **221.034.627,36** | **215.880.872,09** | **1.070,56** |

# ORDENANTZA FISKALAK ETA PREZIO PUBLIKOAK

Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak, 2020ko urriaren 1ean, hasiera batez onetsi zituen Ordenantza Fiskalen eta Prezio Publikoak erregulatzen dituzten Arauen artikuluen eta tarifa-eranskinen aldaketak, zeinak behar bezala argitaratu eta legezko epeak alegaziorik gabe iragan eta gero, 2021eko urtarrilaren 1ean sartu baitziren indarrean.

Honako hauek dira Ordenantza Fiskaletan eta Prezio Publikoak erregulatzen dituzten Arauetan aldatu diren artikuluak eta tarifa-eranskinak, 2021eko urtarrilaren 1ean indarra hartuko dutenak:

| | |
|---|---|
| 1. ordenantza | Hiri-unitateen karga-tasa aldatu da. |
| 2. ordenantza I | V. puntu berri bat erantsi da. |
| 8. ordenantza | I. epigrafearen 2) atala aldatu da, tarifa-eranskinean kontzeptu berri bat erantsita. |
| 21. ordenantza | 2020/06/17ko Osoko Bilkurak hasiera batean 2020rako onetsitako indarreko xedapen iragankorra aldatu da, ezabapenaren ondorioak 2021/12/31ra arte luzatzeko. |
| 23. ordenantza | 2. artikulua, zerga-egitatea, aldatu da, eta paragrafo berri bat erantsi da. |
| 1. araua. | 2. artikulua berridatzi da eta 5. artikuluan 3. atala gehitu da. |
| 2. araua. | 2. artikulua berridatzi da eta 3. artikuluan 3. atala gehitu da. |
| 7. araua. | 3. eta 4. artikuluak, eta 5. artikuluaren 3. atala berridatzi dira. |

Ordenantza Fiskalen eta Prezio Publikoak erregulatzen dituzten Arau guztien testu osoa eta eguneratua hemen kontsultatu daiteke:www.pamplona.es

# INBENTARIOAREN BALIOA, GUZTIRA

## GUZTIEN BALIOA

| | |
|---|---|
| 2015. urtea | 809.318.719,81€ |
| 2016. urtea | 814.241.335,51€ |
| 2017. urtea | 820.921.246,90€ |
| 2018. urtea | 808.202.331,85€ |
| Korporazio-aldaketa: (2019/06/14) | 812.427.328,98€ |
| 2019. urtea | 829.719.852,45€ |
| 2020. urtea | 835.551.657,90 € |

## UDAL-ERAIKIN ETA -LOKAL GUZTIEN BALIOA

| | 2015/12/31 | 2016/12/31 | 2017/12/31 | 2018/12/31 | 2019/06/14 | 2019/12/31 | 2020/12/31 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Bulego-eraikina | 13.441.411,47 | 13.475.863,56 | 13.517.667,26 | 13.621.922,76 | 13.621.922,76 | 13.627.773,36 | **13.629.110,13** |
| Merkataritza-eraikina | 6.772.371,57 | 6.772.371,57 | 6.772.371,57 | 6.772.371,57 | 6.772.371,57 | 6.772.371,57 | **6.772.371,57** |
| Kultura- eta/edo gizarte-instalazioa | 53.087.764,89 | 53.151.693,54 | 53.781.940,17 | 56.423.940,89 | 56.423.940,89 | 57.366.006,60 | **57.687.136,54** |
| Irakaskuntza-eraikinak | 90.663.074,92 | 91.342.158,64 | 91.635.341,20 | 92.524.181,60 | 92.666.886,68 | 97.978.949,73 | **98.464.780,73** |
| Kirol-instalazioak | 42.511.497,02 | 42.631.056,95 | 42.648.963,93 | 42.970545,44 | 43.065.345,27 | 43.443.707,77 | **43.947.812,06** |
| Osasun-eraikinak | 11.124.822,30 | 11.369.458,65 | 11.480.195,07 | 11.542.723,00 | 11.542.723,00 | 11.655.393,40 | **11.721.539,00** |
| Bertze zerbitzu batzuk | 19.775.723,17 | 19.889.291,83 | 20.627.240,92 | 20.687.862,24 | 20.699.115,24 | 21.269.714,85 | **21.302.411,83** |
| Zerbitzuen galeria | 14.602.340,36 | 14.602.340,36 | 14.602.340,36 | 14.602.340,36 | 14.602.340,36 | 14.602.340,36 | **14.602.340,36** |
| Etxebizitza | 31.610.600,93 | 32.052.096,73 | 32.592.007,09 | 33.736.782,29 | 33.742.281,90 | 34.459.708,91 | **33.884.110,16** |
| Lokala | 19.077.911,56 | 19.873.946,15 | 19.758.978,19 | 21.326.426,65 | 21.326.426,65 | 21.778.909,42 | **21.866.303,48** |
| Trastelekuak | 383.507,35 | 383.507,35 | 383.507,35 | 383.507,35 | 383.507,35 | 383.507,35 | **383.507,35** |
| Garajeak | 2.207.868,77 | 2.207.868,77 | 2.207.868,77 | 2.207.868,77 | 2.207.868,77 | 2.207.868,77 | **2.207.868,77** |
| Kioskoak | 21.629,37 | 21.629,37 | 21.629,37 | 21.629,37 | 21.629,37 | 21.629,37 | **20.727,85** |
| Bertze eraikin batzuk | 6.251.711,48 | 6.356.499,51 | 6.367.994,51 | 6.375.836.54 | 6.375.836.54 | 6.375.836.54 | **6.474.360,09** |
| **ERAIKUNTZAK, GUZTIRA** | **311.532.235,16** | **314.129.782,98** | **316.398.045,76** | **323.197.938,83** | **323.452.196,35** | **331.943.718,00** | **332.964.379,92** |

# 2.4.1.

# HERRITARREN SEGURTASUNA

## EREMU PUBLIKOAREN KUDEAKETA

### JARDUERAK BIDE PUBLIKOAN

| BAIMENDUTAKO JARDUERAK | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Kirol-jarduerak | 61 | 68 | 68 | 66 | 71 | 25 |
| Eskeko mahaiak eta mahai informatiboak | 67 | 59 | 68 | 81 | 91 | 24 |
| Kultura-jarduerak | 15 | 12 | 27 | 17 | 27 | 13 |
| Erakusketak eta publizitate-kanpainak | 43 | 39 | 47 | 51 | 8 | 0 |
| Informazio- eta publizitate-autobusak | 33 | 17 | 11 | 7 | 11 | 2 |
| Merkataritza-jarduerak | 38 | 31 | 25 | 17 | 69 | 42 |
| Festa-ekitaldiak | 254 | 271 | 201 | 186 | 179 | 36 |
| Desfileak | 90 | 68 | 83 | 88 | 112 | 32 |
| Filmaketak | 19 | 24 | 24 | 19 | 32 | 17 |
| Auzoetako festak | 12 | 11 | 12 | 12 | 27 | 0 |
| Askotariko baimenak | 30 | 28 | 53 | 86 | 152 | 122 |
| Terrazak | 174 | 168 | 110 | 104 | 139 | 818 |
| GUZTIRA | 907 | 840 | 818 | 817 | 1.028 | 1.131 |

#### TERRAZAK ETA ELEMENTUAK BIDE PUBLIKOAN

2020ko amaieran, 746 lizentzia emanda zeuden bide publikoan terrazak jartzeko, eta 80 lizentzia beste era batzuetako okupazioetarako (loreontzi-euskarriak, erakustokiak, etab.).

#### MANIFESTAZIOAK ETA ELKARRETARATZEAK

Bilera Eskubidea arautzen duen eta apirilaren 21eko 9/1999 Lege Organikoak aldatu zuen uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoa betez, txostena eman da Gobernu Ordezkaritzak Iruñean baimendutako elkarretaratze eta manifestazio guztiei buruz, eta, gero, zirkulazioa kontrolatu du haietan, normaltasunez egin ahal izateko. Guztira, 693 ekitaldi egin ziren; 548 elkarretaratze eta 145 manifestazio.

#### OBJEKTU GALDUAK

Herritarrek entregatzen dituzten objektu guztiak erregistratu egiten dira datu-base bakar batean. Gehienak, polizia-zerbitzuek, posta-bulegoek, eskualdeko hiri-garraioaren enpresa esleipendunak eta merkataritzako beste entitate batzuek –hipermerkatuek, kasu– entregatzen dituzte. Objektuak udal-egoitzetan gelditzen dira gordailuan, eta bertako langileak jabeak aurkitzen saiatzen dira. 2020an, guztira, 5.364 objektu erregistratu ziren; 2019an, berriz, 9.865. Titularrei 2.956 itzuli zitzaizkien (5.301, 2019an).

## BERTZE ZENBAIT JARDUKETA

LANDABENGO AZOKA

Guztira 133 salmenta-postu esleitu zitzaizkien beste horrenbeste titularri. Haietatik 59 produktu jangarrien eremukoak dira, eta 74 salmenta-postuk jangarriak ez diren produktuak saltzen dituzte. Ostalaritza-jarduerak ez daude baimenduak. Urteko igande guztietan dago zabalik, uztail eta abuztukoetan izan ezik, 09:00etatik 14:30era (ikusi COVID-19ari buruzko informazioa).

# HERRITARREN SEGURTASUNA

## POLIZIA JUDIZIALAREN JARDUKETAK

### IRUÑEAN EGINDAKO DELITUAK

(Iruñeko Udaltzaingoak, Foru Poliziak eta Polizia Kidego Nazionalak emaniko datu bateratuak).

| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| DELITUAK, GUZTIRA | 11.826 | 11.669 | 12.372 | 13.330 | 9.569 |
| Delinkuentzia-tasa (mila biztanleko) | 62,24 | 61,41 | 65,11 | 69,65 | 50,19 |

### ZAINTZAPEAN IZANDAKO ATXILOTUAK

| DELITU MOTA | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Pertsonen aurkako delituak | 1.114 | 1.115 | 1.209 | 1.138 | 978 |
| Tratu txarrak eta sexu-askatasunaren aurkako delituak | 516 | 571 | 595 | 558 | 493 |
| Indarkeria edo larderia bidezko lapurreta-delituak | 289 | 285 | 187 | 203 | 154 |
| Indarrez eginiko lapurreta-delituak | 1.081 | 920 | 1.028 | 936 | 660 |
| Ondarearen aurkako delituak | 7.585 | 7.876 | 8.472 | 9.381 | 6968 |
| Gainerako delituak (estupefazienteen trafikoa barne) | 1.240 | 902 | 881 | 1.114 | 975 |
| DELITUAK, GUZTIRA | 11.826 | 11.669 | 12.372 | 13.330 | 9.569 |

| DELITU MOTA | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Tratu txarrak familian | | 148 | 160 | 168 | 136 |
| Edari alkoholdunen eraginpean gidatzea | | 136 | 23 | | 1 |
| Gizona | | | | | 613 |
| Emakumea | | | | | 90 |

| NAZIONALITATEA | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Espainia | 342 | 287 | 236 | 239 | 220 |
| Hego Amerika | 188 | 203 | 177 | 144 | 129 |
| Europako Erkidegoa | 90 | 116 | 65 | 69 | 29 |
| Erdialdeko Amerika | 65 | 35 | 51 | 60 | 55 |
| Afrika | 58 | 65 | 86 | 75 | 127 |
| Bertze batzuk | | 18 | 27 | 23 | 12 |

## SUBSTANTZIA ESTUPEFAZIENTEEN ATZITZEAK

| DELITU MOTA | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Anfetamina | 10 | 2 | 3 | 7 | 54 | 26 |
| Kokaina | 52 | 60 | 40 | 71 | 140 | 109 |
| Kokaina eta anfetamina | 2 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 |
| Pilulak | 1 | 1 | 2 | 0 | 21 | 28 |
| Estasia (MDMA) | 5 | 1 | 10 | 9 | 13 | 15 |
| Haxixa | 47 | 55 | 57 | 112 | 237 | 154 |
| Heroina | 6 | 5 | 1 | 21 | 8 | 9 |
| Ketamina | 2 | 1 | 1 | 0 | 10 | 7 |
| LSDa | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 1 |
| Marihuana | 233 | 309 | 234 | 260 | 350 | 503 |
| Baliogabeak | 1 | 0 | 1 | 0 | 5 | 1 |
| Bertze batzuk | 16 | 13 | 3 | 3 | 12 | 57 |
| Speeda | 28 | 35 | 43 | 55 | 37 | 53 |
| GUZTIRA | | 477 | 395 | 538 | 889 | 963 |

## OBJEKTU-KONFISKATZEAK

| NAZIONALITATEA | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Arma zuriak | 61 | 62 | 88 | 39 | 115 |
| Tresnak | 45 | 67 | 84 | 15 | 26 |
| Drogei lotutako tresnak | 9 | 8 | 5 | 5 | 48 |
| Su-armak | | 3 | 2 | 3 | 1 |
| Bestze objektu batzuk | | 203 | 130 | 70 | 101 |
| GUZTIRA | 285 | 343 | 309 | 132 | 291 |

# UDAL-ORDENANTZAK URRATZEA

## SALAKETEN BILAKAERA

| 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| 1206 | 1.390 | 1477 | 1515 | 1820 | 9.601 |

## UDAL-ORDENANTZEN ARAU-HAUSTE NAGUSIAK, HERRITARREN SEGURTASUNARI BURUZKO LEGEA, ETAB.

| DELITU MOTA | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|
| Txiza egitea eremu publikoan | 450 | 514 | 461 | 274 |
| Estupefazienteak edukitzea | 205 | 148 | 479 | 21 |
| Kaleko salmenta | 95 (40, elika-gaiak) | 67 | 61 | 6 |
| Autoritatearen aginduak ez betetzea | 78 | 97 | 97 | 7 |
| Zaborra, paperak, beirakiak... botatzea | 52 | 52 | 13 | 27 |
| Auzokideen atsedena eragozten duten zaratak egitea | 35 | 46 | 38 | 235 |
| Zerbitzu publikoen jarduna trabatzea | 6 | | 2 | 20 |
| Pintaketak egitea bide publikoan | 31 | 26 | 30 | 22 |
| Bide publikoan desordenak eragitea | 128 | 112 | 112 | 114 |
| Ordena nahastea | 18 | 17 | 4 | 6 |
| Polizia-agenteen kontrako errespetu falta | 153 | 156 | 248 | 270 |
| Agenteen aginduak ez betetzea | 78 | 97 | 97 | 115 |
| Agenteen ikuskatzeko funtzioari uko egitea | | 14 | 5 | 2 |
| Ondasunak hondatzea espazio publikoetan | | 21 | 9 | 17 |
| Identifikatzeari uko egitea | | 30 | 33 | 46 |

# ZIRKULAZIO-SALAKETAK

## TRAFIKOKO SALAKETAK

| TIPOLOGIA | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Aparkatzeak | 38.078 | 39.380 | 39.899 | 41.975 | **34.533** |
| Abiadura | 3.228 | 8.292 | 4.407 | 6.874 | **10.765** |
| Seinaleak | 1.604 | 1472 | 3.955 | 11.089 | |
| Alkohola | 772 | 839 | 884 | 942 | **423** |
| Mugikorra | 456 | 745 | 715 | 557 | **439** |
| Ausarkeriaz gidatzea | 25 | 30 | 38 | 35 | **23** |
| Arduragabekeriaz gidatzea | 114 | 119 | 106 | 130 | **100** |
| Bestelakoak | 639 | 936 | 1066 | 1.405 | **2.208** |
| GUZTIRA | **44.916** | **51.813** | **51.070** | **63.007** | **79.426** |

## DGTRA IGORRITAKO SALAKETAK, HAREN ESKUMENEKOAK IZATEAGATIK

| TIPOLOGIA | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Asegururik ez izatea | 615 | 754 | 909 | 861 | **730** |
| Zirkulazio-baimenik ez izatea | 15 | 23 | 25 | 18 | **19** |
| Gidabaimenik ez izatea | 16 | 31 | 71 | 12 | **20** |
| IAT | 599 | 910 | 1244 | 973 | **743** |
| Pneumatikoek marrazkirik ez izatea | 58 | 74 | 39 | 32 | **33** |
| Homologazio-baldintza teknikoak ez betetzea | 49 | 49 | 41 | 26 | **26** |
| Gidabaimena iraungita gidatzea | 76 | 114 | 132 | 92 | **47** |
| Beste batzuk | 119 | 142 | 221 | 207 | **146** |
| GUZTIRA | **1.547** | **2.097** | **2.682** | **2.221** | **1.910** |

# OSTALARITZAKO ARAU-HAUSTEAK

| ESTABLEZIMENDUAK | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | |
|---|---|---|---|---|---|
| Lizentziarik gabeko jarduerak | 3 | - | 1 | 4 | |
| Erreklamazio-orririk ez edukitzea | 1 | 10 | - | | |
| Musika 11:00ak baino lehen jartzea/jotzea (etxabeak) | | 1 | 1 | 1 | |
| Edukiera gainditzea | 20 | 17 | 10 | 19 | 10 |
| Baimen-baldintzak ez betetzea (etxabeak) | | 8 | 1 | 2 | |
| Etxabeen ordutegia ez betetzea | | 55 | 17 | | |
| Ixteko ordutegia ez betetzea (tabernak) | 37 | 54 | 51 | 52 | 20 |
| Jarduera ateak zabalik daudela egitea | | 23 | 7 | 1 | |
| Bozgorailuak kanpoaldean baimenik gabe jartzea | 4 | - | 1 | 4 | |
| Adingabeei alkohola saltzea debekatzen duen kartelik ez edukitzea | | 17 | 2 | 4 | |
| Zuzeneko emanaldiak baimenik gabe eskaintzea | 5 | 3 | 2 | 7 | |
| Adingabeei edariak kontsumitzen uztea | | 1 | 13 | 17 | 3 |
| Edariak lokaletik kanpora ateratzea | | 57 | 14 | | |
| Soinu-muga gainditzea | | | 1 | | |
| Jarduera bat lizentziarik gabe egitea | | | 4 | | |
| Autoritateari sarrera oztopatzea | | | | | 7 |
| Estupefazienteak kontsumitzen uztea | | | | | 2 |
| Terrazak | | | | | |
| Terraza baimenik gabe ezartzea | 7 | | 7 | 7 | 11 |
| Terraza ezartzeko baldintzak ez betetzea | 7 | | 9 | 11 | 8 |
| Baimendutako elementuak baino gehiago jartzea | 2 | 2 | 2 | 1 | 12 |
| Terraza-jarduera ordutegitik kanpo egitea | 19 | 14 | 1 | 5 | 9 |
| Baimendu gabeko elementuak paratzea | 1 | 11 | 5 | 4 | 8 |
| Terraza ez garbitzea | 17 | 1 | - | | 2 |
| Edariak terrazagunetik kanpora ateratzen uztea | 2 | | - | | |

# BIDE SEGURTASUNA

## BIDE-SEGURTASUNA

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 2.257 | 2.554 | 2.722 | 2753 | 2847 | 2.224 |
| Istripuak | 142 | 145 | 164 | 154 | 150 | 90 |

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Hildakoak | 2 | 3 | 5 | 5 | 1 | 0 |
| Zauritu larriak | 31 | 45 | 43 | 40 | 46 | 90 |

## BERTZE DATU BATZUK

| ETILOMETRIAK | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|
| Proba kop. | 23.090 | 27.271 | 5.340 |
| Positibo administratiboak | 490 | 504 | 79 |
| Positibo judizialak | 80 | 101 | 22 |
| Positiboak (%) | % 2,47 | % 2,22 | % 1,89 |

| ETILOMETRIAK | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Abiadura | 3 | 1 | 2 | 1 | 0 |
| Etilometria judizialak | 179 | 205 | 232 | 227 | 205 |
| Gai estupefazienteen eraginpean gidatzea | 1 | 1 | 2 | 2 | 4 |
| Ausarkeriaz gidatzea | 5 | 4 | 4 | 1 | 3 |
| Alkoholemia-proba egiteari uko egitea | 8 | 11 | 11 | 4 | 12 |
| Baimena: ez edukitzea, epaileak kendu izana, iraungia | 67 | 76 | 77 | 92 | 62 |
| Zuhurtziagabekeriak eragindako lesioak | 15 | 15 | 14 | 17 | 5 |
| Zuhurtziagabekeriak eragindako homizidioa | 4 | 5 | 5 | 1 | 0 |
| Guztira | 282 | 318 | 347 | 345 | 291 |

| DROGA-PROBAK | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|
| Proba kop. | 165 | 147 | 80 |
| Positibo administratiboak | 51 | 55 | 22 |
| Positibo judizialak | 0 | 0 | 4 |
| Positiboak (%) | % 30,91 | % 37,41 | % 27,50 |

| ARAU-HAUSTEAK | 2018 | | | | 2019 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | TELEFONOA | GERRI-KOA-HAU-RRAK LOTZE-KO SISTEMA (HLS) | OINEZKOEN PASABIDEAK | BIZIKLETAK | TELEFONOA | GERRI-KOA-HAU-RRAK LOTZE-KO SISTEMA (HLS) | OINEZKOEN PASABIDEAK | BIZIKLETAK |
| Kontrol kop. | 133 | 133 | 66 | 187 | 133 | 133 | 66 | 181 |
| Ordu kopurua | 160 | 160 | 74 | 187 | 155 | 155 | 72 | 181 |
| Salaketak | 297 | 72 | 136 | 104 | 185 | 30 | 160 | 207 |
| Kontrolaturiko ibilgailuak | 40465 | 40465 | 21122 | 1800 | 31174 | 31174 | 19747 | 2458 |
| salatuak (%) | % 0,73 | % 0,18 | % 0,64 | % 5,78 | % 0,59 | % 0,10 | % 0,81 | % 8,42 |

| ARAU-HAUSTEAK | 2020 | | | |
|---|---|---|---|---|
| | TELEFONOA | GERRI-KOA-HAU-RRAK LOTZE-KO SISTEMA (HLS) | OINEZKOEN PASABIDEAK | BIZIKLETAK |
| Kontrol kop. | 168 | 120 | 148 | 263 |
| Ordu kopurua | 120 | 120 | 100 | 163 |
| Salaketak | 121 | 19 | 140 | 624 |
| Kontrolaturiko ibilgailuak | 2.1103 | 2.1103 | 9.560 | 5.206 |
| salatuak (%) | % 0,60 | % 0,10 | % 1,50 | % 12 |

| ESKOLA-GARRAIOA | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|
| Kontrolaturiko ibilgailuen kop. | 58 | 52 | 45 |
| Salaketa kopurua | 13 | 19 | 7 |
| salatuak (%) | % 22,41 | % 36,54 | %15 |

| BIDE-DIZIPLINAREN ADIERAZLEA | 2019 | | | | 2020 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ARAU-HAUS-TEAK | DOKUMENT. | ETILOMETRIA DROGAK | GUZTIRA | ARAU-HAUS-TEAK | DOKUMENT. | ETILOMETRIA DROGAK | GUZTIRA |
| Kontrolaturiko ibilgailuen kop. | 53.379 | 5.514 | 27.418 | 86.311 | 56.972 | 5.730 | 5.420 | 68.167 |
| Salaketa kopurua | 582 | 335 | 660 | 1.577 | 904 | 258 | 123 | 1.292 |
| salatuak (%) | % 1,09 | % 6,08 | % 2,41 | % 1,83 | % 1,60 | % 4,50 | % 2,30 | % 1,90 |

# ZIRKULAZIOA ETA MUGIKORTASUNA

## SEMAFORO-INSTALAZIOA ETA CCTV KAMERAK

2020an, 500 semaforo konpondu dira istripuen eta instalazioetako matxuren ondorioz (semaforoak, CCTV kamerak, zutoin pneumatikoak, zinemometroak eta neurgailuak).

Jarduketa nagusiak, besteak beste:

- Era guztietako 700 led-ak aldatzea.
- 17 ohargailu akustiko aldatzea eta itsuendako 17 kontrolagailu banatzea.
- 44 espira-detektagailu aldatzea.
- Semaforoak instalatzea Aita Moret kalearen eta Parlamentuaren arteko oinezkoen pasabidean.
- Semaforoak instalatzea Arcadio María Larraona kalearen eta Navarro Villoslada institutuaren arteko oinezkoen pasabidean.
- Oinezkoen pasabide berri osoa Nafarroa etorbidearen eta Félix Huarte plazaren artean.
- Oinezkoen pasabide berri osoa Sarrigurengo etorbidearen eta Arnalt Larrasoañakoaren kalearen artean.
- 1.000 metro elikatze-kable baino gehiago berritu dira.
- 181 bidegurutzetatik 41 Hemes sistemak kontrolatzetik Óptimus sistemara igaro dira.

## SEINALE HORIZONTAL ETA BERTIKALAK GALTZADAN.

Seinaleztapenean egindako lan nagusiak honako hauek dira: hiriko bide nagusiak birmargotzea zein autobus-erreiak egitea, hiri-ingurune guztian 230 oinezkoen pasabideen eta gelditze-lerroen saneamendua egiteaz gain.

Halaber, duela 10 urte baino gehiago paratutako 600 seinale berritu eta 939 garbitu dira; seinaleztapen berria (610) instalatu da eskasa zen edo halakorik ez zegoen puntuetan, eta 207 seinaleztapen-zutoinen bertikaltasuna berrezarri da. Bidenabar, seinaleztapenaren egoera ikuskatu eta INCA aplikazioaren inbentarioa eguneratu da.

2020an, 250 oinezkoen pasabide egokitu dira Udal Ordenantza berrira. Gainera, 9 kuxin berlindar eta abiadura moteltzeko zerrenda paratu dira puntu zehatzetan, eta mutiloiak desmuntatu eta berriz muntatu dira, bidegorrien 632 mugarri paratuta.

# APARKATZE ARAUTUKO TXARTELAK ETA TAO TOKIAK

TAOk araututako aparkatze-tokien kopurua: 24.412 leku. Horietatik, 9.757 urdinak dira; 270, gorriak; 931, berdeak; eta 13.454, laranjak.

2020an, 28.475 bizilagun-txartel eta 721 jarduera-txartel egin ziren.

| SEKTOREA | BIZILAGUN-TXARTELAK | JARDUERA-TXARTELAK |
|---|---|---|
| 1 ( Alde Zaharra) | 2.618 | 7 |
| 2 (Zabalgunea) | 5.154 | 54 |
| 3 (Arrosadia-Azpilagaña) | 4.036 | 41 |
| 4 (Iturrama) | 6.666 | 266 |
| 5 (Mendebaldea-Erripagaña-Etxabakoitz Iparraldea) | 5.219 | 176 |
| 6 Donibane | 4.842 | 179 |
| 8 Arrotxapea | 4.046 | 131 |
| GUZTIRA | 32.581 | 854 |

# 2.5.1.

# HEZKUNTZA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA GAZTERIA

## HEZKUNTZA

### UDAL-IKASTETXEAK

| | 2020/21ko ikasturteko |
|---|---|
| Udalaren haur-eskolak | 846 |
| Joaquín Maya musika-eskola | 948 |
| Catalina de Oscáriz Udaleko Arte eta Lanbide Eskola | 298 |

HAUR-ESKOLETAKO MATRIKULA (2020/2021 IKASTURTEA)

| | |
|---|---|
| Printzearen Harresi haur-eskola | 90 haur |
| Donibane haur-eskola | 102 haur |
| Hello Egunsenti haur-eskola | 36 haur |
| Izartegi haur-eskola | 67 haur |
| Mendebaldea haur-eskola | 80 haur |
| Haurtzaro haur-eskola | 82 haur |
| Mendillorri haur-eskola | 94 haur |
| Goiz Eder haur-eskola (egonaldi osoa) | 79 haur |
| Hello Azpilagaña haur-eskola (egonaldi osoa) | 82 haur |
| Hello Azpilagaña haur-eskola (egonaldi murriztua) | 24 haur |
| José María Huarte haur-eskola (egonaldi murriztua) | 28 haur |
| Hello Buztintxuri haur-eskola | 82 haur |

0-3 urte bitarteko 11 udal-eskoletan, 929 haur daude guztira matrikulatuta.

# UDALAREN LAN-ILDOAK

## ZIENTZIA- ETA INFORMATIKA-GAITASUNA HOBETZEKO PROGRAMAK

**MALETA PERIODIKOA ZURE IKASTETXEAN BISITAN.** 2020an hasi zen, zientzia, zehazki kimika, modu atsegin eta bisualean hurbildu eta metodo zientifikoa esperimentatzeko Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleekin. Ordubeteko saio batean, doktoretza egiten ari diren bi ikaslek 12 esperimentutatik 3 edo 4 aukeratu eta kimikako hainbat kontzeptu lantzen dituzte. Ikasleek talde txikietan egiten dituzte esperimentuak, metodo zientifikoa jarraituz.

**Parte-hartzea:** 2020-2021eko ikasturteko lehen hiruhilekoan (iraila-abendua) Lehen Hezkuntzako 4 ikastetxetako 120 ikaslek parte hartu duteilekoan (iraila-abendua) Lehen Hezkuntzako 4 ikastetxetako 120 ikaslek parte hartu dute

**IRUÑA EZAGUTU.** Ikasleek gure hiria ezagutzea bultzatzen du, Iruñearen historia eta hiri-bilakaera aztertuz. Ikastetxe publikoetako eta itunduetako Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleei zuzenduta dago.

**Parte-hartzea:** 12 ikastetxetako 649 ikaslek parte hartu dute, 26 taldetan banaturik.

Bisita gidatu irekiak: programaren osagarri, beste talde batzuei irekita dauden bisita gidatuak egiten dira. 2020an, 93 lagunek parte hartu dute 4 taldetan banatuta. Taldeek Alde Zaharreko hiru ibilbide historikoren artean aukeratzen dute: harresietan barnako ibilaldiak; Donejakue bidea Iruñean; entzierroaren ibilbidea, ibilbide historiko eta urbanistiko bat

## ARTE-JARDUERAK SUSTATZEKO ETA IRAKURMENA HOBETZEKO PROGRAMAK

**ANTZERKI-LANTEGIAK.** Haurrek dituzten adierazpen- eta antzezpen-baliabideak aberasteko programa. Hartara, teknikak ere irakasten zaizkie, bertzeekiko komunikazioa eta harremana errazteko, eta, era berean, bertze curriculum-arlo batzuekin zerikusia duten ikaskuntza-prozesuak finkatzeko. Programa hau Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasleentzat da, dramatizazioa eta jolas dramatikoa landu ditzaten; halaber, Lehen Hezkuntzako 5. mailakoentzat ere bada, txotxongiloen bidezko dramatizazioa landu dezaten.

**Parte-hartzea:** 2018/19ko ikasturteko bigarren eta hirugarren hiruhilekoan (2019ko urtarriletik ekainera) **103** taldek parte hartu zuten; 2019/20ko lehen hiruhilekoan (2019ko irailetik abendura, biak barne), berriz, **28** ikastetxetako **99** taldek.

Gaur egun, NAFARROAKO ANTZERKI ESKOLAK ematen du programa.

**IRAKUR DEZAGUN.** Irakurtzea bultzatzeko animazio-programa, hiriko ikastetxe publiko eta itunpekoek topaketak egitea idazleekin eta ahozko narrazioei buruzko programak txertatzea, baita aholkuak ematea ere ikastetxeetako irakasleei.

Parte-hartzea: 2020an, 204 jarduera egin ziren. Guztira, 6.183 parte-hartzaile izan ziren, Haur eta Lehen Hezkuntzako 37 ikastetxetakoak, Bigarren Hezkuntzako 19 ikastetxetakoak, Hezkuntza Bereziko 2 ikastetxetakoak eta Helduen Hezkuntzako 2 ikastetxetakoak. Programan hiru jarduera-mota garatzen dira: irakasleendako mintegiak, oso egokiak liburuei buruzko aipamen eguneratuak emateko (72 orientazio-bilera egin ziren); ahozko narrazio-saioak, hau da, munduko hainbat herrialdetako herri-ipuinak kontatzen dira (118 narrazio), eta topaketak haur-literaturako idazleekin, eta horren baitan, egile horien kontakizunak irakurtzen dira ikastetxera bisitan joan aurretik (14 topaketa).

«EN MUDANZA-IBILTARI». Programa honek arte garaikidea Iruñeko ikastetxeetara eramaten du, hau da, ikasleen bizi- eta ikas-lekura, beraientzat pentsatutako arte- eta hezkuntza-proposamen baten bidez. Era horretan, ikasleei arte garaikiderako zuzeneko hurbilketa, sentsoriala zein intelektuala, eskaintzen zaie; haien adierazpen-, dialektika- eta sormen-gaitasunak estimulatzen dira; eta diziplina anitzeko ikuspegitik lantzen ahal diren edukiak proposatzen zaizkie irakasleei (arte plastikoak, hizkuntza, zientziak...).

Ekimen honen bidez diziplina anitzeko erakusketa txiki eta kolektiboak egiten dira, Iruñeko Udalaren Arte Garaikideko bildumaren jatorrizko lanak erabiliz; erakusketa horiek ikastetxez ikastetxe doaz ikasturtean zehar; zehazki, bi aste egiten dute ikastetxe bakoitzean. 2019-2020ko ikasturtean, “Altxa, ez da ezer gertatzen!” erakusketa ibiltaria ikusi dute Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko 9 ikastetxetako ikasleek.Programak 5.580 euroko gastua du, ikastetxe horietako ikasle eta irakasleekin egindako lantegiak direla eta.

## LEHIAKETAK

XXX Literatur Lehiaketa, Lehen Hezkuntzako eta DBHko lehen eta bigarren mailako ikasleentzat. ‘Ipuina’ modalitatea, Lehen Hezkuntzako 1. mailatik DBHko bigarren mailara bitarteko ikasleentzat, lau kategoriatan banaturik, ikasmailen arabera; eta, ‘Komikia’ modalitatea, Lehen Hezkuntzako 5. mailatik DBHko bigarren mailara bitarteko ikasleendako, bi kategoriatan banaturik adinen arabera. 2020an, guztira 433 lan aurkeztu dira.

IKASKUNTZA ETA ZERBITZUKO PROIEKTU DIDAKTIKOEN SARIETARAKO DEIALDIA. Iruñeko ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan ikaskuntza eta zerbitzuko hezkuntza-proiektuak egin eta ezartzeko, eta hiri osoan ikastetxeen konpromiso solidario eta zibikoa ikusarazteko, Iruñeko unibertsitatez kanpoko irakaskuntza publiko eta itunpeko ikastetxeentzako ikaskuntza-zerbitzuko proiektuetarako lehiaketaren hirugarren deialdia egin zuen Alorrak.

Hezkuntza-etapa guztietan curriculum-eskakizun berak ez daudenez, eta proiektuak curriculuma ikastea eta elkartasunezko zerbitzua lotu behar dituela kontuan harturik, parte hartzeko kategoria hauek ezarri dira euskaraz edo gaztelaniaz egin eta ezarritako proiektuetarako, ikastetxearen hizkuntza-ereduaren arabera:

1. KATEGORIA: Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako proiektuak
2. KATEGORIA: DBH eta Batxilergoko ikastetxeetako proiektuak
3. KATEGORIA: Lanbide Heziketako ikastetxeetako proiektuak

Lehiaketako kategoria bakoitzerako, bi sari ezarri dira (1.500 eta 1.000 euro), proiektua hirian inplementatzea ahalbidetzeko.

2020ko edizioan 6 proiektu aurkeztu dira.

## DIRULAGUNTZETARAKO DEIALDIAK

Eskola-liburutegiak eta ikasmaterial suntsikorraren gastuak. Hiriko Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetarako laguntzen urteko deialdia, liburutegien funtsa handitzeko eta ikastetxeek egoera ekonomiko txarrean dauden ikasleei familiek eman ezin dieten materiala eman ahal izateko. Ikastetxe publikoetan guztira 9.530 ikasle egon ziren matrikulatuta 2019-2020ko ikasturtean, eta Iribarren Helduen Oinarrizko Hezkuntzarako Ikastetxeko 1.204 lagun; banaturiko dirulaguntzen zenbatekoa 110.330 eurokoa izan zen guztira: 38.175 euro, eskola-liburutegietarako, eta 72.155 euro, ikasmaterialerako.

Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduetako eskolaz kanpoko jarduera eta jarduera osagarrietarako dirulaguntzak, eskola-eskaintzaren kalitatea hobetzen laguntze aldera. 2020an, eskolaz kanpoko jarduerengatik, 151.393 euro eman ziren dirulaguntzetan, eta Iruñeko 44 ikastetxeren artean banatu ziren, zeinek guztira, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 19.556 ikasle dituzten.

Gurasoen Elkarteetarako dirulaguntzak, gurasoek Haur eta Lehen Hezkuntzan antolatutako programa eta jarduerak gara daitezen errazteko. 2019-20ko ikasturteko deialdira 31 entitate aurkeztu ziren (27 elkarte eta 4 federazio), eta hasierako 80.000 euroetatik 64.629,33 euro eman zitzaizkien guztira.

## CATALINA DE OSCÁRIZ ARTE ETA LANBIDEETAKO UDAL ESKOLA

Udaleko Arte Eskolak José Vila Marqués ikastetxe ohian dauka egoitza eta marrazketa zein pinturako ikasketa klasikoak garatzen ditu. Marrazketako (2) eta Pinturako (2) ikastaro monografikoak ematen ditu, bakoitzean 350 eskola-ordu eskainita, eta Marrazketa zein Pinturako lantegiak, hiruhilekokoak, ikastaro monografikoetan landutako alderdi hauetako bakoitzean sakontzeko: erretratua, giza irudia, tintak, landa eta hiri paisaiak, pintura azkarra, akuarela eta abar.

2019/2020ko ikasturtean, guztira 66 lagun matrikulatu dira ikastaroetan. Honako lantegi hauek eskaini dira: Anatomia artistikoa eta Giza irudia, Estilo artistikoak eta Teknika piktorikoak, Akuarelaz esperimentatu, Erretratu pintatua, Marrazketa eta pintura azkarrak, Hiri paisaia eta Landa paisaia eta Norberaren proposamen artistikoen lantegia. Guztira 255 lagunek parte hartu dute. Marrazketako irakasle batek, Pinturako irakasle batek eta Lantegietako irakasle batek osatzen dute Eskolako irakasle multzoa.

## JOAQUÍN MAYA MUSIKA ESKOLA BEREZIA

Eskolak ikasle berrien matrikulazio maila altua izan du 2020/2021eko ikasturtean, hastapen-mailan: 228 haur, guztiz urrunetik egindako kanpaina batean (ikusi COVID). Guztira, 948 ikasle matrikulatu ziren.

| | 2017/18 | 2018/19 | 2019/20 | 2020/21 |
|---|---|---|---|---|
| Ikasleak, guztira | 1.305 | 1.280 | 1.170 | 948 |
| Ikasle ofizialak (Ikaste-txe-plana jarraitzen dutenak) | 1.057 | 1.044 | 984 | 895 |
| Ikastaro Monografikoetako ikasleak | 61 | 66 | 86 | 53 |

Eskolak 22 instrumentu eskaini ditu. Instrumentua ikasten duten ikasleetatik, 159k pianoa hautatu dute, eta instrumentu horretatik urrun, klarinetea, akordeoia, gitarra eta biolina daude, instrumentuko 60 ikasle inguru dutelarik. Instrumentuaz gain, honako irakasgai hauek ematen dira: Musika-hizkuntza, Korua, Harmonia, ikastaro monografikoak eta instrumentu-taldeak, bigarren zikloan (77 parte-hartzaile).

2020. urteko erdialdean, Eskolak 24 ikasle aurkeztu zituen Pablo Sarasate Kontserbatorio Profesionalean sartzeko probetara; haietatik 16k ikaspostua lortuta gainditu zuten proba, eta 2k, ikasposturik gabe

## HAUR ESKOLAK

Iruñeko Udaleko Haur Eskolak 11 ikastetxek osatzen dituzte, hiriko auzoen artean banaturik daude eta 900 ikaspostutik gora eskaintzen dituzte, gaztelaniaz eta euskaraz, eta beste batzuk ingelesezko jarduerekin. Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoak kudeatzen ditu modu integralean eta deszentralizaturik.

964 ikaspostu eskaintzen ditu 0 eta 3 urte arteko haurrentzat; horietako 848 egonaldi osokoak dira, eta 116, egonaldi erdikoak.

Haurtzaro, Mendebaldea eta Mendillorri eskolek osatzen dute udal-eskolen eskaintza gaztelaniaz. Euskarazko eta gaztelaniazko eskaintza Donibane, Printzearen Harresi eta Goiz Eder eskolek osatzen dute; izan ere, bi hizkuntza-ereduak elkarrekin bizi izan dira bertan 2020-2021eko ikasturtean. Izartegin euskarazko hizkuntza-eredua eskaini da. Hello Buztintxuri, Hello Azpilagaña, Hello Egunsenti eta Jose María Huarte eskolek, azken horrek bakarrik egonaldi erdian, eskaintzen dute gaztelaniazko eredua ingelesezko jarduerekin.

| | |
|---|---|
| Printzearen Harresi Haur Eskola | 9 unitate / 90 ikasle |
| Donibane Haur Eskola | 10 unitate / 102 ikasle |
| Hello Egunsenti Haur Eskola | 3 unitate / 36 ikasle |
| Izartegi Haur Eskola | 6 unitate / 67 ikasle |
| Mendebaldea Haur Eskola | 8 unitate / 80 ikasle |
| Haurtzaro Haur Eskola | 8 unitate / 82 ikasle |
| Mendillorri Haur Eskola | 9 unitate / 94 ikasle |
| Goiz Eder Haur Eskola | 7 unitate / 79 ikasle |
| Hello Azpilagaña Haur Eskola (egonaldi osoa) | 8 unitate / 82 ikasle |
| Hello Azpilagaña Haur Eskola (egonaldi murriztua) | 2 unitate / 24 ikasle |
| José María Huarte Haur Eskola (egonaldi murriztua) | 2 unitate / 28 ikasle |
| Hello Buztintxuri Haur Eskola | 8 unitate / 82 ikasle |
| GUZTIRA | 80 unitate / 846 ikasle |

Erakunde Autonomoan (Gizarte Lan eta Nutrizioko alorretan), lehenbiziko aldiz sortu dira unibertsitateekin elkarlanean praktikak egiteko programak, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin kasu. Azpimarratzekoa da Gizarte Unitateko mintegi bat sortu dela bi gizarte-langilez hornituta, eta hura lankidetza estuan aritu dela beste udal-zerbitzu batzuekin eta Nafarroako Foru Komunitatekoekin, gizarte-arazoei arreta emateko xedez; izan ere, gizarte- eta portaera-zailtasunak prebenitzea gizarte lanaren kezka nagusietako bat da hezkuntza-sistemaren barruan, eta berebiziko garrantzia dauka 0 eta 3 urte bitartekoen zikloan, esku-hartze prebentiboari eta laguntzakoari dagokienez, honako errealitate hauei aurre egiterakoan: etorkinen eta gizatalde kaltetuen gizarteratzea, tratu txarren eta sexu-abusuen atzematea eta elkarbizitza-giroa hobetzea.

2020an, zuzkidurak berritzeko ahaleginak honako hauek hartu ditu xede: Goiz Eder eskolaren egokitze-lanak, non lehenbiziko fasea gauzatu baita, eta Lezkairu Haur Eskola eraikitzeko hasierako lanak; horrela, bada, osatuko da Iruñeko hezkuntza-eskaintza, eta eskoletan 1.000 ikaspostutik gora eskainiko dira. Lezkairu eskola, aurreikuspenen arabera, 2022-2023ko ikasturtean hasiko da jardunean. Halaber, amaitu egin da Mendebaldea Haur Eskola osorik egokitzeko proiektuaren idazketa.

# HERRITARREN PARTAIDETZA

## HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERREGELAMENDUA

Udalaren Osoko Bilkurak 2019ko azaroaren 14an onetsitako Erregelamendua 2019ko abenduaren 24ko NAOn argitaratu zen, eta 2020ko urtarrilean indarrean sartu. Zenbait alderdi garatu ditu, hala nola hainbat organoren funtzionamendu-araudiaren egokitzapena, Emakumearen Kontseiluarena eta Gazteriaren Mahaiarena, kasu. Partaidetzarako Erregelamenduaren gida bat editatu da gaztelaniaz eta euskaraz, eta herritar aktiboen erregistroa abiatu da.

## AUZO-EZTABAIDAGUNEAK

2020an, bost auzo-eztabaidagune egin ziren: Santa María la Real- Lezkairu, Txantrea, Buztintxuri, Alde Zahar eta Iturramakoak. Lehenengo laurak urtarriletik martxora bitarte egin ziren. (Ikusi COVID-19a)

Administrazioaren eta auzoetako gizarte-erakunde eta herritarren arteko solasaldirako gune gisa planteatzen dira auzo-eztabaidaguneak. 2020an, helburua zen auzo-eztabaidaguneak lurraldeko partaidetza-organo gisa eratzea, eta, aurreikusitakoarekin bat, horiek tokia izatea Hiriko Gizarte Kontseiluan, partaidetza-organo gorenean.

Auzo-eztabaidagune guztiak streaming bidez ematen dira, eta emanaldi osoak nahiz laburpenak ikusgai daude Partaidetzako Alorraren «Participa Pamplona» Youtubeko kanalean.

## KULTURA-ANIZTASUNA

Onlineko jarduerak egin ziren.

- Kultur aniztasunaren topa-ekintza, maiatzaren 21ean argitara emana.
- Harrera instituzionala FAIN elkarteari urriaren 12an.
- Aniztasunaren podcast-a..

## PARTAIDETZARAKO TREBAKUNTZA-ESKOLA

Partaidetzarako prestakuntza informazio, topaketa eta gogoetarako esparruak sortzeko beharraren ondorioz sortu zen, herritarrak parte hartzeko ahalduntzea helburu. Herritarrei eta elkarteei zuzenduta dago. Prestakuntza-ikastaroen hiru hileko programazioak bost ardatzen inguruan antolatzen dira: Gizarte-trebetasunak, partaidetza-tresnak, gizarteratzea, elkarteen kudeaketa eta teknologia-trebetasunak.

Hiruhilekoko hiru programazio egin dira, eta izena emandakoen ia % 79 emakumeak izan dira: urtarrila - martxoa (11 ikastaro / 340 eskaera); apirila - ekaina (12 ikastaro / 216 eskaera), eta urria - abendua (12 ikastaro / 348 eskaera).

Bigarren hiruhilekoan (apirila-ekaina) “Hezitzaileentzako coaching-a” euskarazko ikastaroa eman gabe geratu zen.

# DIRULAGUNTZAK

Herritarren partaidetzaren esparruko herritarren entitate eta kolektiboei zuzendutako deialdia

2020an, 98 elkartek aurkeztutako 105 proiektuk 336.579,6 euro jaso zituzten deialdi horren bidez. Deialdian, dirulaguntzak bost epigrafetan bereizten dira, eta zenbatekoak ere aldatzen dira horietako bakoitzean:

• A epigrafea: 38.000 euro. 13 proiektu lagundu dira diruz. Auzo-elkarteek, kultur elkarteek, jai-batzordeek, kultur koordinakundeek eta abarrek aurkeztutako proiektuak auzoetako festak, herri-jaiak zein izaera komunitarioko gizarte- eta kultura-ekitaldiak antolatzeko.

• B epigrafea: 227.000 euro. 54 proiektu lagundu dira diruz. Herritarrei oro har zabalik dauden eta honako hauek sustatzen dituzten proiektuak: gizarte-partaidetza, herritartasun aktiboa eta boluntario-lana; gizarte-ehunaren koordinazioa eta sare-lana; lurraldeko auzotar, talde eta elkarteen arteko informazioa eta komunikazioa. Horretarako, ekintza berritzaileak abian jarri dituzte, teknologia-garapena aplikatuz eta gizarte-aldaketa ehun sozialetik aldatzeko praktika onak erabiliz.

• C epigrafea: 21.779,72 euro. 14 proiektu lagundu dira diruz. Kultura herrikoia sustatzeko, sortzeko eta hedatzeko proiektu eta jarduerak, hiriko kultur aniztasunaren ordezkari diren entitateek aurkeztuak, hori dena topaketa kulturala eta elkarbizitza lortzeko, aisialdiaren alorrean (gizarte eta kultur, gizarte eta hezkuntza eta gizarte eta komunitatean), lurraldeko gizarte-ehunaren parte-hartzetik abiatuta eta herritar guztiei irekia. Partaidetza, harrera, sentsibilizazio, sustapen, sormen eta hedapen proiektu eta jarduerak, kultura- eta jatorri-aniztasuna sustatzekoak, elkarrizketa, elkarbizitza eta ezberdintasunaren errespeturako estrategia gisa, jatorri ezberdinetako pertsonen eta kolektiboen parte hartzea eta ahalduntzea bultzatuz udalerriaren bizitzan.

• D epigrafea: 61.400 euro. 23 proiektu lagundu dira diruz. Aisialdiaren alorrean (gizarte, kultura, hezkuntza eta komunitatearen esparruetan) adinekoen bizi-kalitatea eta ongizatea sustatzearen alde lan egiten duten irabazi asmorik gabeko entitate edo elkarteek aurkeztutako proiektuak eta jarduerak.

• E epigrafea: 1.000 euro. Proiektu 1 aurkeztu da. Irabazi-asmorik gabeko elkarte edo entitateek aurkeztutako prestakuntza-proiektuak, hezkuntza ez formaleko esparrukoak, eta norbera, taldeak, erakundeak, gizartea eta komunitatea ahalduntzera bideratuak.

# ZENTROA

## ARRETARI ETA ZERBITZUEI BURUZKO DATUAK

**«Zentro. Elkarlaneko gunea» partaidetzako zentroak, Kondestablearen jauregiko bigarren solairuan kokatuta, elkarteei eta herritarrei oro har informazioa, baliabideak eta prestakuntza eman nahi dizkie, hirian banakako eta taldeko partaidetza garatzearren. Espazioak honako hau eskaintzen du:**

- **Partaidetzako informazio- eta baliabide-zerbitzuak:** Zerbitzuaren xedea da Udalak eskaintzen dituen baliabide, deialdi, prozesu eta abarrei buruzko informazioa eskaintzea halakorik eskatzen duen herritar zein elkarte orori. Partaidetzarako Informazio eta Baliabide Zerbitzuak (PIBZ) elkarteei haien jardunean lagunduko dien banakako laguntza eskaintzen die, haien eguneroko errealitatearekin zerikusia duten gai guztietan. Partaidetzarako Informazio eta Baliabide Zerbitzuaren (PIBZ) ordutegia honako hau izan da: astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 21:00etara. Uztailean eta abuztuan, berriz, hau izan zen ordutegia: astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era. 2020an, honako hauek egin ziren:
  - 4.338 arreta elkarteei (2019an 8.493 izan ziren)
  - 69 baliabide-mailegu (3 proiektagailu eta 8 ordenagailu eramangarri)
  - Baliabideak erabiltzeko alta eman duten elkarteak: 220 elkarte erabiltzaile
  - 4. eta 5. aretoen lagapena: 213 lagapen
  - Erreprografia- eta gillotina-zerbitzua elkarteentzat. Guztira, 20.207 fotokopia egin ziren, eta 1.049 erabilera.
  - Partaidetzarako prestakuntza-ikastaroen koordinazioa. Arreta kopurua: 984 dei
  - Parte hartzeko prozesuetarako prestakuntza teknikoa. 7 partaidetza-prozesu, 5 auzo-eztabaidagune, Kultur Aniztasunaren Foro bat eta bi informazio-saio.

- **Liburutegia eta dokumentazio-zentroa:**
  Nafarroako Liburutegi Publikoen Sareko liburutegia da
  Liburutegiaren funtsa 2.842 agiri da (iaz baino 500 gehiago) 797 mailegu.

- **Aholkularitza Juridiko:**
  Aholkularitza Juridikoak 756 kontsulta artatu zituen aurrez aurre, telefonoz eta posta elektronikoaz, eta 9 ikastaro eman ditu honako gai hauen inguruan: datuen babesa elkarteetarako, elkarteen kudeaketa, kontabilitatea, elkarteetarako udal-tresnak, nola abiatu proiektu bat, eta finantzaketa bilatzea.

# KOMUNIKAZIOA

**Alorrak erabaki.pamplona.es parte hartzeko online plataforma ere kudeatzen du, gaztelaniaz eta euskaraz.**

**Informazio hori Alorraren sare sozialen bitartez jakinarazten da.**

**Horretarako, sare sozialetako honako profil hauek sortu dira:**

- **Twitter**: @Participa_pna; @Edusi_pna
- **Facebook**: @Participa_pna
- **Youtube**: Participa Pamplona
- **Flickr**: Participa Pamplona

**Webgunea: erabaki.pamplona.es**

- **Erabaki.pamplona.es webguneetako bisitak**: 24.057 bisita
- **Twitterreko jarraitzaileak gaztelaniaz**: 1.635 jarraitzaile
- **Twitterreko jarraitzaileak euskaraz**: 135 jarraitzaile
- **Facebookeko jarraitzaileak gaztelaniaz**: 523 jarraitzaile
- **Facebookeko jarraitzaileak euskaraz**: 31 jarraitzaile
- **Youtubeko harpidedunak**: 193 harpidedun
- **Youtubeko erreprodukzioak**: 6.325 erreprodukzio 2019an / /284 bideo, 14 2020an
- **Flickerreko bisitak**: 27.004 bisita / 31 album

Webgunea 2017ko ekainean ireki zen erabiltzaileendako, eta atalak gehitzen doaz zen pixkanaka-pixkanaka. Webgunean gehien bisitatutako atalak Partaidetzarako Trebakuntza Eskolarekin loturikoak dira.

**IRUÑEKO UDALEKO ELKARTEEN WEBGUNEA**

Asociaciones.pamplona.es plataformak aukera ematen dio Iruñeko Elkarteen Erregistroan izena emanda daukan edozein elkarteri bere webgunea edukitzeko, doan. Plataforma Udalaren zerbitzarietan dago kokatuta, baina elkarteak berak kudeatzen du. Horrela, espazio zentral bat dago, non hiriko elkarte eta kolektiboei buruzko informazio zehatza aurkitu dezakegun.

2020an, 95 bat elkartek zuten hor ostataturik beren webgunea (iaz baino 25 gehiagok).

**Parte hartzeko plataforma digitala: ERABAKI PAMPLONA**

**https://erabaki.pamplona.es/**

Erabaki.pamplona Iruñeko Udalaren plataforma digitala da, parte hartzeko plataforma bat, hiri demokratikoagoa eraikitzeari begira sortua. 2017ko maiatzean hasi zen funtzionatzen. Hiri ireki, garden eta kolaboratibo bat sortzeko erreferentziazko gunea da, non hiriko bizilagunak baitira protagonista. Erabaki.pamplona parte hartzeko plataforma bat da. Kode irekikoa da, eta, hortaz, edozeinek ikus dezake plataforma nola sortu den, eta plataforma berrerabil edo hobetu dezake.

Erabaki.pamplona Iruñeko Udalaren plataforma digitala da, parte hartzeko plataforma bat, hiri demokratikoagoa eraikitzeari begira sortua. 2017ko maiatzean hasi zen funtzionatzen. Erabaki.pamplona parte hartzeko plataforma bat da. Kode irekikoa da, eta, hortaz, edozeinek ikus dezake plataforma nola sortu den, eta plataforma berrerabil edo hobetu dezake. Honako hauek dira plataforma arautzen duten printzipioak: gardentasuna, trazabilitatea eta osotasuna; kalitate demokratikoaren bermea; multigeruza: presentziala eta digitala, eta pribatutasuna.

Erabaki.pamplona plataforma herritar guztientzat dago zabalik. Hackerren, herritarren, elkarteen eta era guztietako erakundeen komunitate ireki eta kolaboratiboa sortzeko tresna bat da.

2020ko abenduaren 31n:

Parte hartzeko 11 prozesu ireki dira plataforman.

- Parte hartzeko beste 2 prozesu ireki dira plataforman
- 3 prozesu, partaidetza-organoen barruan
- 5 prozesu, lurraldeko partaidetza-organoen barruan (Auzo-eztabaidaguneak)
- 2.096 erabiltzaile zeuden alta emanda
- 682 proposamen zeuden aurkeztuta
- Proposamenei 1.634 babes agertu zitzaien

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA DINAMIZATZEKO ZERBITZUA

**Herritarren Partaidetzarako Dinamizazio Komunitarioko Zerbitzuaren helburua da herritarren parte-hartzea sustatzea, Udalaren partaidetza-zerbitzu, -organo, -prozesu, -mekanismo eta -kanalen bidez, betiere Iruñeko Udaleko Partaidetzako Alorraren jarraibideen arabera.**

**HPDZk laguntza teknikoa eman du diagnostikoak, organoak eta informazio-foroak gauzatzeko eta abian jartzeko, bertzeak bertze. Gainera, hainbat motatako udal-zerbitzuek ere eskatu zioten laguntza, hala nola Auzoko Unitateek, Liburutegi Publikoen Sareak, Civivox Sareak, Polizia Komunitarioak eta gizarte ekimenetarako zentro komunitarioek.**

**2020an orotara 4.544 esku-hartze eta/edo informazio egin ziren, Udaleko alorrekin lankidetzan.**

| | |
|---|---|
| Organoak | 562 |
| Prozesuak eta mekanismoak | 44 |
| Zerbitzuak eta baliabideak | 2.818 |
| Planak eta proiektuak | 1.053 |
| Udalaz gaindikoa | 67 |

| Udal Alorra | GUZTIRA |
|---|---|
| Gobernu Estrategiko, Merkataritza eta Turismoko Alorra | 23 |
| Herritarren Segurtasuneko Alorra | 2 |
| Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorra | 575 |
| Kultura eta Berdintasuneko Alorra | 21 |
| Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko Alorra | 87 |
| Hirigintza, Etxebizitza eta Osasuneko Alorra | 2 |
| Proiektu Estrategikoetako, Mugikortasuneko eta Jasangarritasuneko Alorra | 15 |
| Guztira | 725 |

Honako hauek dira komunitate ekintzako babesik garrantzitsuenetakoak: Haurraren Mundu Eguna, adinekoei egindako inkesta, Adinekoak sarean, Sanferminetako Mahaia, kulturako lan taldeak COVID-19a dela eta, Liburu partekatuen programa eta abar. 18 prozesu edo topaketa mota ezberdinetan esku hartzen du (aurrez aurrekoak zein online), guztira 606 esku-hartze: Aniztasunaren Eguna, Kultur Aniztasunaren Foroa, Auzo-eztabaidaguneak, eta topaketa Eskualde Etxeekin. Ekonomia- eta gizarte-ehunari laguntzeko zereginean,  30 entitateri eman zaio laguntza, guztira 170 esku-hartze eginez (telefono-deiak, aurrez aurreko bilerak, udaleko beste alor batzuekin harremanetan jartzea eta abar).

# LOKALEN LAGAPENAK

| Aretoa | Lagapenak 2020an |
|---|---|
| Calderería 11ko aretoa | 29 |
| Descalzos 56ko aretoa | 52 |
| Zapateria 40ko aretoa | 80 |
| “IPES” aretoa | 2 |
| Geltoki Zaharreko aretoa | 24 |
| | 280 |

## UDAL EGUTEGIA

Lankidetzan jardun zen Kultura Alorrarekin, 2021eko udal-egutegia egin eta banatzeko. 16.500 ale argitaratu dira: 12.375 gaztelaniaz eta 4.125 euskaraz.

## UNEAN UNEKO BABESAK BERTZE ALOR BATZUEI

Bai herritarrek parte hartzeko teknikariek, bai Zentroko taldeek, 2019an laguntza ematen diete udal-arlo askori, hainbat alderditan. Zenbait adibide:

- Hirigintzako prozesu puntualak: Ibai Plangintzako Eredua
- Joko- eta apustu-etxeak: Apustu-etxeak eta joko-lokalak arautzeko eta ludopatia prebenitzeko neurrien gaineko ordenantza idazteko ekintzak.
- Kulturako lan taldea COVID-19a dela eta
- Haurrendako Plana eta Coworkids
- Ekintza komunitarioa zentro komunitarioekin
- Iruña 2030

Hartara, herritarren parte-hartzea zeharkakoa da hainbat eremutan, hiri-esparrutik hasi, eta erkidego- eta sektore-esparrura bitarte.

## HERRITARREN ERAKUNDEEN UDAL-ERROLDA

Errolda gaur egun Herritarren Partaidetzarako Erregelamenduan araututa dago, 101-105. artikuluetan. Bertan, izena eman duten elkarteak aitortzen dira eta aukera ematen die udalerriari eta Udalari entitateen daturik garrantzitsuenak ezagutzeko, hala nola zenbakia, ordezkaritza, interes-maila, eta abar.

Errolda horretan erregistratuta egoteko baldintzak honako hauek dira, besteak beste: irabazi-asmorik gabeko entitateak izatea, legearekin bat eratuta egotea, helbide soziala Iruñean edukitzea edo jarduerak bertan egitea, bere funtsezko xedea izatea, estatutuekin eta jarduketekin bat, Udalerriko herritarren interes orokorrak eta sektorialak ordezkatu, defendatu, sustatu eta hobetzea, eta haien bizi-kalitatea hobera egitea eta herritarren onurako programak eta jarduerak egitea.

2020an beste 32 elkartek eman dute izena. 2020. urtearen amaieran 696 elkarte zeuden erroldan izena emanda.

# HERRITARRENDAKO ARRETA ZERBITZUA

## HERRITARRENDAKO ARRETA BULEGOA

| ARRETA JASO DUTEN HERRITARRAK (ikusi COVID) | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Errolda | 53.270 | 46.205 | 43.425 | 43.859 | 25.114 |
| Erregistroa | 4.218 | 3.848 | 3.608 | 2.457 | 2.637 |
| Bertze batzuk | 512 | - | - | - | 27.751 |

Erroldarekin zerikusia duten izapide nagusiak, Herritarrendako Arreta Bulegoak kudeatuta. Arreta bakarrean izapide horietako batzuk egin daitezke.

| ITXAROTE-DENBORA | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|
| Batez besteko itxarote-denbora minututan | 5' 24'' | 7' 38'' | 4' 34'' |
| 10'-an baino gutxiagoan artatutako herritarrak | % 81,9 | % 70,7 | % 86,1 |

| ERROLDAKO IZAPIDEAK | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|
| Erroldako altak | 13.014 | 13.369 | 11.069 |
| Helbide aldaketak | 11.273 | 11.359 | 9.522 |
| Atzerritarren berritzea/berrespena | 1.940 | 2.257 | 2.735 |
| Ibilgailuen helbide-aldaketa eskaerak | 2.337 | 2.651 | 1.903 |
| Emandako Agiriak/Ziurtagiriak | 67.397 | 72.245 | 48.893 |

# EZKONTZA ZIBILAK

- Adingabeak. 2020ko genero-indarkeriaren kontrako Estatuko Itunaren markoan, jarduketa batzuk egin dira genero-indarkeriazko testuinguruetan adingabeen egoerari heltzeko Iruñean. Alde batetik, ikerkuntza bultzatu da beren amek jasandako indarkeriarengatik arriskuan dauden adingabeei buruz eta proposamen batzuk abiatu dira profesionalen eta erakundeen aldetik arazoari hobeki heltzeko, eta, bestalde,"Adingabeak genero-indarkeriazko testuinguruetan" jardunaldiak antolatu dira irailean, Baluarten. Ekitaldi horretan, 'Beldurrean hazi' marrazkien erakusketa ibiltaria bisitatu zen: bere amen kontra erabilitako indarkeriaren eraginpean dauden haurrek egindako 60 jatorrizko marrazkiren erakusketa bat.

Testuinguru horretan, talde pilotu bat sortu da Udaleko Gizarte Ekintzako, Herritarren Segurtasuneko eta Berdintasuneko alorretako profesionalekin, genero-indarkeriako testuinguruetan dauden adingabeen errealitateak eta beharrak atzemateko, arazoa detektatzeko eta esku hartzeko koordinazioa hobetze aldera.

# LGTBI

Udalak LGTBI kolektiboendako dirulaguntzetarako deialdiak egin ditu, herritarrei eta/edo LGTBI populazioari zuzendutako proiektuak egite aldera, haien parte-hartzea eta ahalduntzea sustatzeko eta gizarte-eskubideak lortzearen alde aritzeko. Hiru entitatek jaso dute laguntza, guztira 20.000 euro.

Harrotuk, Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko informazioa eta arta emateko Iruñeko Udalaren zerbitzu publikoak, jardunean jarraitu zuen hala informazioa eta aholkularitza juridikoa eta sexologikoa emateko LGTBI gaietan nola urteko programazioa gauzatzeko -LGTBI populazioaren ahalduntze pertsonala eta kolektiboa lortze aldera- eta herritarrei zuzendutako sentsibilizazio-jarduerak egiteko.

# 2.7.1.

# GIZARTE ZERBITZUAK, KOMUNITATE EKINTZA ETA KIROLA

## GIZARTE ZERBITZUAK

### LEHEN MAILAKO ARRETA / AUZO-UNITATEAK

ERABILTZAILEAK

2020an, Iruñeko auzo-unitateek 46.075 artatze egin dituzte.

| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Artatze kopurua | 42.494 | 43.703 | 43.811 | 43.113 | **46.075** |

ERANTZUNDAKO HITZORDUAK, AUZO-UNITATEEN ARABERA ETA AUZO BAKOITZAK IRUÑEKO GUZTIZKOAN ADIERAZTEN DUENAREN ARABERA

| | 2017 | % | 2018 | % | 2019 | % | 2020 | % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | |
| Buztintxuri | 1.524 | 3,66 | 2.687 | 6.31 | 2.971 | 6.83 | **2.623** | **5,69** |
| Alde Zaharra | 3.202 | 7,70 | 3.564 | 8.13 | 3.474 | 8.05 | **3.932** | **8,53** |
| Txantrea | 4.761 | 11,43 | 5.743 | 13.11 | 5.446 | 12.63 | **5.310** | **11,52** |
| Etxabakoitz | 1.886 | 4,53 | 2.702 | 6.17 | 2.861 | 6.63 | **2.226** | **4,83** |
| Zabalgunea | 3.721 | 8,94 | 3.641 | 8.31 | 3.384 | 7.84 | **3.395** | **7,37** |
| Ermitagaña | 1.732 | 4,16 | 1.910 | 4.36 | 2.173 | 5.04 | **2.099** | **4,56** |
| Iturrama | 2.686 | 6,46 | 1.983 | 4.53 | 2.081 | 4.82 | **2.644** | **5,74** |
| Lezkairu | | | | | | | **1.379** | **2,99** |
| Mendillorri | 2.048 | 4,92 | 2.110 | 4.82 | 2.131 | 4.94 | **1.947** | **4,23** |
| Milagrosa | 6.438 | 15,47 | 5.675 | 12.95 | 5.188 | 12.03 | **4.947** | **10,74** |
| Arrotxapea | 7.151 | 17,19 | 6.845 | 15.62 | 6.322 | 14.66 | **7.623** | **16,54** |
| **Sanduzelai** | **3.610** | **8,68** | **3.696** | **8.44** | **3.823** | **8.86** | 4.131 | 8,97 |
| Donibane | 2.849 | 6,85 | 3.255 | 7.43 | 3.259 | 7.55 | 3.819 | 8,29 |
| GUZTIRA | 41.608 | 100 | 43.811 | 100 | 43.113 | 100 | 46.075 | 100 |

AUZO-

## UNITATEAK. PROGRAMAK

Auzo-unitateei esker, herritarrek oinarrizko laguntzako lau programa eskuratzen dituzte, baita Nafarroako Gobernuaren titulartasuneko prestazioak ere:

1. HARRERA ETA GIZARTE-ORIENTAZIOKO PROGRAMA.
   Herritar guztiei zuzenduta, haien eskariak jasotzea du xede. Herritarren arazoei lehen erantzuna eskaintzen die, gizarte-babeserako sistemetako prestazioak eskuratzeko bide emanez eta, behar izanez gero, oinarrizko laguntzako edo laguntza espezializatuko gainerako programetarako sarbidea emanez.

2. NORBERAREN AUTONOMIA SUSTATZEKO ETA MENDEKOTASUN-EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARTA EMATEKO PROGRAMA.
   Udalak hainbat baliabide eskaintzen ditu, helburu hauek gogoan hartuta: norberaren autonomia sustatzea, mendekotasunezko egoerei aurrea hartzea, eta laguntza ematea bere kabuz moldatzeko arazoak dituzten pertsonei eta mendekotasunean daudenei edo egoteko arriskua dutenei, betiere beren ohiko ingurunean. Behar izanez gero, gainera, etxetik kanpoko baliabide ordezkoak eskuratzeko aukera ematen du, banakako, taldekako eta izaera komunitarioko artaren bidez. Programa honetako langileek Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia (PAGNA) eta Etxez Etxeko Laguntzako Udal Zerbitzuaren (EELZ) prestazioak kudeatzen dituzte.

| AUZO-UNITATEAK | MENDEKOTASUNA | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Mendekotasunaren balorazioa | | | | API (arreta plan indibidualizatua) | | | | Zainketak eta familia-ingurunea | | | | POA (pertsonarengan oinarritutako arreta) |
| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2020 |
| Buztintxuri | 16 | 17 | 12 | 5 | 20 | 16 | 21 | **18** | 3 | 6 | 5 | **9** | 2 |
| Txantrea | 87 | 120 | 118 | 152 | 79 | 110 | 97 | **259** | 31 | 44 | 26 | **58** | 31 |
| Alde Zaharra | 212 | 251 | 262 | 57 | 220 | 248 | 311 | **74** | 70 | 77 | 58 | **16** | 7 |
| Etxabakoitz | 34 | 50 | 46 | 32 | 32 | 55 | 45 | **38** | 12 | 22 | 10 | **10** | 0 |
| Zabalgunea | 306 | 337 | 319 | 158 | 290 | 307 | 411 | **220** | 96 | 86 | 71 | **36** | 37 |
| Ermitagaña | 234 | 208 | 208 | 115 | 173 | 201 | 180 | **198** | 55 | 74 | 34 | **34** | 36 |
| Iturrama | 270 | 278 | 288 | 126 | 205 | 273 | 372 | **263** | 68 | 79 | 82 | **47** | 26 |
| Mendillorri | | | | 17 | | | | **30** | | | | **4** | 1 |
| Arrosadia | 62 | 61 | 79 | 39 | 58 | 69 | 84 | **55** | 20 | 16 | 21 | **19** | 5 |
| Arrotxapea | 260 | 305 | 239 | 102 | 209 | 250 | 237 | **146** | 60 | 74 | 53 | **37** | 11 |
| Sanduzelai | 292 | 293 | 285 | 182 | 241 | 274 | 309 | **263** | 52 | 64 | 66 | **56** | 17 |
| Donibane | 111 | 115 | 124 | 77 | 84 | 107 | 107 | **108** | 34 | 33 | 31 | **27** | 10 |
| **Iruña** | **237** | **256** | **319** | 231 | **224** | **280** | **329** | 327 | **67** | **91** | **69** | **58** | **44** |

Etxez etxeko laguntza-zerbitzuak (EELZ) zuzeneko arta etxean bertan eskaintzen die zerbitzuaren hartzaileei, gehienez bi orduz egunero. 2020an, zerbitzu horretako prestazioren bat erabiltzen duten pertsonen 1.127 espedienterekin lan egin da. Guztira zuzeneko arreta pertsonaleko 121.927,24 ordu eskaini zaizkie 845 erabiltzaileri. Gainera, 118.557 bazkari eta 41.378 afari ere eman zaizkie 650 pertsonari, beren beharretara egokitutako menuekin. Azkenik, 739 garbitegi-zerbitzu egin dira 22 etxetan.
Adinekoentzako udal-apartamentuei dagokienez, 2020an auzo-unitateek udal-apartamentuen 30 espediente eskatu eta baloratu dituzte (19 emakume eta 11 gizon). Hala, 2020an, banakako 140 apartamentu eta 4 apartamentu bikoitz daude okupatuta. Bertan 153 pertsona daude: 129 bakarrik bizi dira eta 24, berriz, bikotekidearekin. 153 egoiliarretatik 97 emakumeak dira, eta 56, gizonak. Adinari dagokionez, egoiliarren batez bertzeko adina 76 urtekoa da. Udal-apartamentuetan, batez besteko egonaldia 6,80 urtekoa da.
Aurten, Udalak birgaitutako 17 apartamentu ditu, eta horietan hobekuntzak egin dira moldagarritasunari eta instalazioak eguneratzeari dagokionez.

3. HAURREI ETA FAMILIEI LAGUNTZEKO PROGRAMA.

Haurren eskubideak bermatzea du xedetzat programa honek, eta haien garapen pertsonala ahalbidetzen duen ingurunea bermatzea; horretarako, prebentzio, sustapen, babes, laguntza pertsonal, familiar eta sozialeko neurriak erabiltzen ditu, eta, babesgabetasun-egoerak daudenean, baita familiako esku-hartzea ere, baina adingabeen instituzionalizazioa saihesten da betiere.

| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Artatutako familiak | 792 | 992 | 975 | 1.253 | **1.379** |
| Artatutako adingabeak | 1.558 | 1.493 | 1.787 | 1.924 | **2.306** |

**Programan 510 adingabe (291 mutil eta 219 neska) artatu ziren lehendabizikoz 2020an. Aurten, 561 adingaberekin amaitu da esku-hartzea (323 mutil eta 238 neska). Familien arreta areagotu egin da: 126 lagun gehiago artatu dira 2019. urtearekin alderatuta.**

- Familietan Esku Hartzeko Zerbitzua (FEHZ).

Haurren Programan berariazko baliabide hau dago; lehiaketa publiko bidez kudeatzen da, eta, babesgabetasun-faktoreak daudenean, adingabearen etxean bertan esku hartzean datza. 2020an, 88 familiari / 165 adingaberi eman zitzaien zerbitzua.

| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Familia kopurua | 148 | 89 | 84 | 95 | **88** |

## 4. GIZARTERATZE-PROGRAMA

Helburua da bazterturik gelditzeko arriskuan edo bazterturik dauden pertsonen gizarteratze-bidea sustatzea; hartara, banakako gizarteratze-ibilbideak diseinatzen dira, eta pertsona horiek gizarte- eta hezkuntza-laguntza jasotzen dute. Kasu horretan, gizarte-laneko eta gizarteratze-teknikariek esku hartzen dute, eta, zenbait kasutan, psikologoek ere bai.

| GIZARTERATZE-PROGRAMA | FAMILIA-UNITATEAK | | | | ERABILTZAILEAK | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
| Buztintxuri | 51 | 72 | 119 | 244 | 71 | 100 | 161 | 248 |
| Alde Zaharra | 70 | 79 | 105 | 152 | 83 | 93 | 124 | 153 |
| Etxabakoitz | 77 | 89 | 118 | 164 | 96 | 115 | 146 | 166 |
| Zabalgunea | 73 | 75 | 102 | 149 | 83 | 84 | 127 | 154 |
| Ermitagaña | 62 | 65 | 79 | 114 | 74 | 77 | 103 | 118 |
| Iturrama | 23 | 23 | 50 | 118 | 25 | 26 | 59 | 119 |
| Lezkairu | | | | 147 | | | | 152 |
| Mendillorri | 44 | 49 | 64 | 90 | 56 | 66 | 76 | 93 |
| Milagrosa | 129 | 193 | 403 | 640 | 173 | 274 | 569 | 664 |
| Arrotxapea | 114 | 114 | 225 | 370 | 132 | 135 | 275 | 379 |
| Sanduzelai | 96 | 101 | 118 | 210 | 136 | 137 | 172 | 211 |
| Donibane | 34 | 38 | 70 | 133 | 38 | 44 | 71 | 134 |
| Txantrea | 149 | 179 | 251 | 430 | 179 | 210 | 300 | 440 |
| GUZTIRA | 922 | 1.077 | 1.704 | 2.961 | 1.146 | 1.361 | 2.183 | 3.031 |

| GIZARTERATZE-PROGRAMA | GIZARTE- ZEIN HEZKUNTZA-LAGUNTZA DUTEN FAMILIA-UNITATEAK | | | | ESKU-HARTZE PSIKOLOGIKOA DUTEN PERTSONAK | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
| Buztintxuri | 68 | 68 | 82 | 131 | 9 | 6 | 7 | 7 |
| Alde Zaharra | 37 | 48 | 61 | 84 | 17 | 7 | 5 | 5 |
| Etxabakoitz | 58 | 71 | 91 | 100 | 4 | 3 | 6 | 6 |
| Zabalgunea | 29 | 42 | 55 | 77 | 3 | 3 | 2 | 1 |
| Ermitagaña | 44 | 43 | 60 | 96 | 7 | 6 | 3 | 4 |
| Iturrama | 28 | 23 | 43 | 76 | 4 | 1 | 1 | 5 |
| Mendillorri | 35 | 38 | 48 | 69 | 3 | 4 | 2 | 5 |
| Arrosadia | 50 | 69 | 94 | 150 | 7 | 12 | 7 | 9 |
| Arrotxapea | 90 | 93 | 145 | 188 | 6 | 6 | 3 | 2 |
| Sanduzelai | 61 | 69 | 82 | 143 | 5 | 7 | 4 | 3 |
| Donibane | 34 | 35 | 46 | 72 | 4 | 9 | 5 | 3 |
| Txantrea | 77 | 73 | 67 | 90 | 10 | 8 | 8 | 4 |

NAFARROAKO GOBERNUAREN TITULARTASUNEKO PRESTAZIOAK ESKURATZEA: kotizaziopekoa ez den

**Kotizaziopekoa ez den erretiro-pentsioa.** 2019an, 65 urtetik gorako 954 pertsonak jaso zituzten pentsio horiek Iruñean, horietatik 131 aurten ari dira izapidetzen.

- **Kotizaziopekoa ez den erretiro-pentsioa. 2020an, 65 urtetik gorako 654 pertsonak jaso dituzte pentsio horiek Iruñean.**
- **Kotizaziopekoa ez den baliaezintasun-pentsioa. 2020an, 478 lagunek daukate aitortuta prestazio hori hirian.**
- **Errenta bermatua. 2020an, Errenta Bermatuaren 8.733 eskaera gauzatu dira hirian.**
- **Ezohiko dirulaguntzak. 2020an, 419 ezohiko laguntza eman dira.**
- **Desgaituendako dirulaguntzak. 2020an, 44 hartzaile zeuden Iruñean.**
- **Mendekotasuna duten pertsonak familia-esparruan zaintzeko dirulaguntza. 2020an dirulaguntza horien 3.264 onuradun zeuden, eta urtean zehar, 431 izapidetu ziren.**
- **Mendekotasuna duten pertsonendako zaintzaile profesionala kontratatzeko prestazio ekonomikoak. 2020an 215 eskabide izapidetu ziren, eta 707 onuradunek jaso zituzten.**

# ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK

## GIZARTERATZE ETA LANERATZEKO IBILBIDEETAKO ENPLEGU-PROGRAMAK

1. GIZARTE-ENPLEGU BABESTUA

Programak 184 pertsonako taldea du 2019an, kontratatutako peoien eta programan laguntzeko teknikarien artean: obra-lekuetako arduradunak eta ofizialak eta talde teknikoa. Talde horrek bederatzi lantaldetan lan egiten du: obrak, soldadura, pintura, garbiketa eta atezaintza, ibaiak eta mintegia mantentzeko lanak, joskintza eta jantzigintza, tapizgintza, udal-jantokia eta koadernaketa eta serigrafia. Programak udal-arloetarako eta bertze administrazio publiko batzuetarako lan egiten du, eta, zehazkiago, irabazi-asmorik gabeko erakunde/elkarteetarako.

Programa udal-dinamikan finkaturik dago, bai gizarte-bazterketa egoeran dauden hiriko pertsonak kontratatzeari dagokionez, bai eskatutako zeregin eta lanei dagokienez. 2020. urtean zehar, programa honen bidez, Udaleko gizarte-zerbitzuetatik datozen 152 pertsonak lan-kontratua lortu dute.

### Egindako zenbait lan

2020an, etxebizitzak birgaitzeko obrak eta lanak udal-titulartasuneko hainbat solairutan egin ziren, etxebizitza sozial gisa erabiltzeko.
2020an, pinturako lantaldeak, bertzeak bertze, eremu horretako hainbat lokaletan (UB Donibane, Haurtzarorako eta Nerabezarorako Arreta Taldeak, gizarte ekimenetarako zentro komunitarioak) eta adinekoentzako zenbait udal-apartamentu tutelatutan lan egin du.
Koadernaketa eta serigrafiko lantaldea Udal Artxiboan aritu da(aktak eta prentsa), laneko arropa eta bertze elementu batzuk inprimatu eta serigrafiatzen, eta, horretaz gainera, txartelak, liburuxkak, triptikoak eta kartelak maketatzen, inprimatzen eta tolesten, baita urteko agendak ere.
2020an, tapizgintzako lanetan, aulkiak eta besaulkiak tapizatu, besaulkietarako zorroak egin, kuxinak egin eta ibilgailuen eserlekuak tapizatu dira.
2020an, On Egin udal-jantokiko taldeak 19.774 gosari, 20.695 bazkari eta 19.840 afari banatu ditu.

2. LANGABEAK INTERES OROKORREKO ETA SOZIALEKO OBRETARAKO KONTRATATZEKO DEIALDIA.
Laneratze-ibilbideetako enplegu-programetako ekintzen barruan, Udalak langabetuak kontratatzeko deialdian parte hartu du, interes orokorreko eta sozialeko obrak egiteko, Nafar Lansare – Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bultzatuta. Langabezian dauden pertsonak lehentasunezko kolektibo gisa definitutako taldeetatik kontratatzen dira 4/6 hilabetez. 2020an, bi proiektu aurkeztu dira deialdira:

- **Buruko patologia larria dutenak kontratatzeko programa.** Programa hori Elkarkide erakundearekin lankidetzan egin da, eta 4 hilabetez 8 pertsona kontratatu dira, % 33tik gorako minusbaliotasun-aitorpena dutenak osasun mentaleko patologiagatik, nekazaritza-jarduerak egiteko eta hiri-altzarien mantentze-lanak egiteko eta pintatzeko. Proiektu horren barruan emakume bat ere kontratatu da parte-hartzaileei hezkuntza-laguntza emateko..
- **Langabeak kontratatzeko programa, Donibane AU eraberritzeko eta handitzeko.** Horren bidez 4 pertsona kontratatu dira (igeltserotzako 2 ofizial eta 2 peoi).

## EMAKUMEENDAKO UDALEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA

**2020an, Emakumearen Arretarako Udal Zerbitzuak (EUAZ) 549 espediente zituen aktibo; horietatik 260k aurten lehen aldiz jo dute zerbitzura, eta 289k aurreko urteetako espedientea zeukaten. Horiei dagokienez, banakako 1.985 artatze egin dira, eta horietatik 23 larrialdikoak izan dira.**

### ZERBITZURA ZER ARRAZOIGATIK JOTZEN DUTEN

- **Eman Aukera Zeure Buruari programa (EAZB).** 2020an, Emakumearen Arretarako Udal Zerbitzuak (EUAZ) 549 espediente zituen aktibo; horietatik 260k aurten lehen aldiz jo dute zerbitzura, eta 289k aurreko urteetako espedientea zeukaten. Horiei dagokienez, banakako 1.985 artatze egin dira, eta horietatik 23 larrialdikoak izan dira.

| Tipologia | Emakumeak |
|---|---|
| Genero-indarkeria | 160 |
| Aholkularitza biktimen familiari eta inguruneari | 6 |
| Amek pairatutako indarkeriak ukitutako seme-alabak | 20 |
| Maitasun-harremanetako desorekak | 8 |
| Hauste-prozesuetako zailtasunak | 41 |
| Zailtasunak guraso-ahala eta zaintza gauzatzeko orduan | 26 |
| Prostituzioa uztea | 11 |
| Gizarte-zailtasuneko egoera | 19 |
| Salerosketaren biktima izateko susmoa | 10 |
| Guztira | 24 |
| Daturik Gabe | 2 |
| **Diagnostikoak, guztira** | **300** |
| **Espedienteak, guztira** | **260** |

HAUR ETA NERABEENDAKO LAGUNTZA-TALDEAK

Talde profesional honen helburua da ikertzea, balioestea eta esku hartzea babesgabetasun-arriskua duten adingabeak dituzten familietan, betiere babesgabetasun horrek ez badu eskatzen familiatik bereiztea. 2020an 159 esku-hartze egin ziren familiekin eta 310 adingabeekin (168 mutil eta 142 neska).

Familietan Esku Hartzeko Zerbitzua (FEHZ). Lehiaketa publiko bidez kudeatzen den berariazko baliabidea da, eta babesgabetasun-faktoreak daudenean, adingabearen etxean bertan esku hartzen du. 2020an 88 esku-hartze egin ziren familiekin eta 165 adingabeekin (100 mutil eta 65 neska).

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

2020an, 737 pertsonak parte hartu dute Iruñeko Udaleko lanerako prestakuntza-programan. Ekintzen ardatz nagusia hau da: Iruñean zailtasun erantsiren bat duten pertsonen lanerako irispidea sustatzea, pertsona horiek gizarteratu eta lanera daitezen lortzeko, lan-merkatuan baloratzen diren gaitasun profesionalak, pertsonalak eta sozialak garatuz, eta lanbide-kualifikazioa erdiets dezaten.

| Programa | Parte-hartzaile kop. |
|---|---|
| Biltegirako eta harria lantzeko jarduera osagarrietako lantegi-eskola | 15 |
| Birgaitze energetikorako lantegi-eskola: igeltserotza-lanak | 15 |
| Altzariak muntatzeko eta zura eraldatzeko lantegi-eskola | 15 |
| Zerbitzu anitzeko mantentze-laneko lantegi-eskola | 15 |
| Baratzezaintza eta lorezaintzako lantegi-eskola | 20 |
| Soldadurako lantegi-eskola | 20 |
| GLT-GLBZ | 429 |
| Interes orokorreko eta gizarte-intereseko lanak | 13 |
| Langabeendako ikastaroak (finantzaketa propioa eta SNE-NLk diruz lagunduak) | 82 |
| Espetxeko prestakuntza-ekintzak | 113 |
| GUZTIRA | 737 |

| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Lantegi-eskolak eta PEPIak | 75 | 65 | 145 | 100 | **100** |
| Guk finantzatutako prestakuntza-programak | 57 | 87 | 18 | 62 | **22** |
| Gizarteratze eta Laneratze Taldea (GLT) – Gizarte eta Lan Arloko Bitartekaritza Zerbitzua (GLBZ) | 968 | 683 | 535 | 405 | **429** |
| SNE-NLk finantzaturiko prestakuntza-ikastaroak eta espetxeetako lantegiak | 90 | 144 | 86 | 222 | **173** |
| Interes Orokorreko eta Gizarte Intereseko lanak | 17 | 19 | 19 | 20 | **13** |
| **Onuradunak, guztira** | **1.207** | **998** | **803** | **809** | **737** |

### LANTEGI-ESKOLAK, ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAKO PROGRAMA INTEGRATUAK ETA GUK FINANTZATUTAKO ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMAK

Lantegi-eskolak programa mistoak dira, prestakuntzakoak eta enplegukoak. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak finantzatzen ditu, eta Iruñeko Udalak eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak sustatzen dituzte, finantzaketan laguntzeaz gain. Ikasleek, prestakuntza-kontratu baten bidez, prestakuntza teoriko-praktikoa jasotzen dute, eta zeharkako arlo batzuetan trebatzen dira, hala nola funtsezko gaitasunetan, gizarte-prestakuntzan eta prestakuntza pertsonalean, enplegua modu aktiboan bilatzean eta abarretan.

| IZENA | ESPEZIALITATEAK | PROFILA | LEKU KOPURUA |
|---|---|---|---|
| Landaben Prestakuntza Zentroa | Biltegirako eta harria lantzeko jarduera osagarrietako lantegi-eskola | 16 eta 30 urte bitarteko gazteak | 15 |
| | Birgaitze energetikorako lantegi-eskola: igeltserotza-lanak | 16 eta 30 urte bitarteko gazteak | 15 |
| | Altzariak muntatzeko eta zura eraldatzeko lantegi-eskola | 16 eta 30 urte bitarteko gazteak | 15 |
| | Zerbitzu anitzeko mantentze-laneko lantegi-eskola | 16 eta 30 urte bitarteko gazteak | 15 |
| | Igeltsu-plaka ijeztuko eta pinturako oinarrizko ikastaroa | Gizarte Zerbitzuetatik bideratutako pertsonak | 15 |
| Arantzadi Prestakuntza Zentroa | LANTEGI-ESKOLA, Baratzezaintza eta lorezaintza, 2019ko urritik 2021eko ekainera | 16 eta 30 urte bitarteko gazteak | 20 |
| | LANTEGI-ESKOLA, Soldadura, 2019ko azarotik 2021eko urrira | 16 eta 30 urte bitarteko gazteak | 20 |
| | Lorezaintzako ikastaro autofinantzatua – 2018ko abendutik 2019ko apirilera | Gizarte Zerbitzuetatik bideratutako pertsonak | 18 |
| Errotazar Prestakuntza Zentroa | Mendekotasuneko prestakuntza-programa | Gizarte Zerbitzuetatik bideratutako pertsonak | 15 |

## 2. GIZARTERATZE- ETA LANERATZE-TALDEA (GLT)

2020. urtean Gizarteratze eta Laneratze Taldeak 487 espediente aktiborekin lan egin zuen, eta horietatik 107 alta berriei dagozkie. Horietatik 301 (% 61,81) emakumeak dira, eta 186 (% 38,19) gizonak (urte guztietako konparazioan, emakumeen kopurua gizonena baino handiagoa izaten jarraitzen du). Eta 335, artatutakoen % 68,79, migratzaileak dira, eta 152, berriz, nazionalak, % 31,21.

Urtean zehar prestakuntza ematen da taldeak artatutako pertsonen gaitasun pertsonalak eta enplegagarritasuna hobetzeko. Emakumeentzako bakarrik honako hauek daude: "Mentoringa eta coachinga emakumeak laneratzeko", AMEDNA/ Nafarroako Emakume Enpresarien elkartearekin lankidetzan (11 parte-hartzaile); "Dementziak jotako pertsonak etxean artatzea", AFAN/Nafarroako Alzheimer Gaixoen Senideen elkartearekin lankidetzan (14 parte-hartzaile; "Fruta-/ogi-dendako saltzailea", Eroskirekin batera (9 parte-hartzaile) eta "Harategiko/arrandegiko saltzailea / kutxazaina eta apal-hornitzailea", Eroskirekin (12 parte-hartzaile).

Gizonentzako edo gizon zein emakumeentzako prestakuntza ikastaroak: "Fatxada aireztatua jartzea", Eraikuntzaren Lan Fundazioak Shaken SL Servicios enpresarekin batera emana (12 gizon); Enpleguaren Bilaketa Aktiboa (EBA) eta teknologia berriak (IKT) mugikorraren bidez (8 parte-hartzaile. 5 emakume eta 3 gizon); "Oinarrizko gaitasun digitalei" buruzko hiru ikastaro (22 pertsona. 13 emakume eta 9 gizon) eta "Gaitasun digital aurreratuak" (6 pertsona. 3 emakume eta 3 gizon).

Talde horren barruan Gizarte eta Lan Arloko Bitartekaritza Zerbitzua ere (GLBZ) badago; hautatze-prozesuak egiten ditu, urtean zehar eta zenbait postutarako, GLTren erabiltzaileak kontratatzeko. Guztira, 143 lan-eskaintza jaso ditu zuzenean 174 plazatarako. Eskaintza horien ondorioz 102 laneratze izan dira, eta eskainitako lanpostuen % 51 estali dira, batez beste.

## 3. LANGABEENDAKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROAK

Enplegurako Prestakuntza Zerbitzuak lanerako prestakuntza-jarduerak egiten ditu, langabeak lehenetsita, pertsona horien laneratzea lortu nahian. 2020an, 60 pertsonak parte hartu dute lau ikastarotan, 810 prestakuntza-ordurekin, profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko.

| IKASTAROA | Ordu kopurua | Hasiera- eta/edo amaiera-data | PZ Maila | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|---|---|
| Mendetasuna duten pertsonen arreta soziosanitarioa erakunde sozialetan | 130 | 2020/01/08 - 2020/02/21 | 2 | 15 | 0 |
| Oinarrizko sukaldaritza-lanak | 270 | 2020/02/12 - 2020/06/12 | 1 | 9 | 6 |
| Sukaldaritza-produktuak | 170 | 2020/07/22 - 2020/09/07 | 2 | 11 | 4 |
| Oinarrizko sukaldaritza-lanak | 270 | 2020/09/14 - 2020/11/27 | 1 | 10 | 5 |
| | | | | **45** | **15** |
| **ORDUAK, GUZTIRA** | **810** | | **PARTE-HARTZAILEAK, GUZTIRA** | **60** | |

4. LANTEGIAK ESPETXEAN

2020an 10 prestakuntza-lantegi egin ziren, 344 prestakuntza-ordu guztira, eta 113 parte-hartzaile (horietakoren bat lantegi batera baino gehiagotara joan ahal izan da aldi berean). 1. moduluko (emakumeak) eta 3. eta 4. moduluetako (gizonak) presoentzat ematen dira.

| ESPEZIALITATEA | Egunak | Ordu kopurua | Hasiera-data Bukaera-data | Parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| I. Moda eta jantzigintzako lantegia. 1. seihilekoa | 10 | 20 | 02/5 – 03/12 | 11 |
| II. Moda eta jantzigintzako lantegia. 2. seihilekoa | 34 | 68 | 07/29 – 12/17 | 18 |
| I. Arte plastikoetako lantegia. M1. 1. seihilekoa | 7 | 14 | 02/18 – 03/10 | 11 |
| II. Arte plastikoetako lantegia. M1. 2. seihilekoa | 30 | 60 | 09/1 – 12/22 | 12 |
| I. Arte plastikoetako lantegia. M3. 1. seihilekoa | 7 | 14 | 02/18 – 03/10 | 13 |
| II. Arte plastikoetako lantegia. M3. 2. seihilekoa | 30 | 60 | 09/1 – 12/22 | 15 |
| I. Musika lantegia. M1, M3, M4. 1. seihilekoa | 8 | 12 | 02/17 – 03/11 | 6 |
| I. Musika lantegia. M1, M3, M4. 2. seihilekoa | 28 | 42 | 02/9 – 12/23 | 7 |
| I. Musikako hastapen-lantegia. M1, M3, M4. 1. seihilekoa | 8 | 12 | 02/17 – 03/11 | 7 |
| II. Musikako hastapen-lantegia. M1, M3, M4. 2. seihilekoa | 28 | 42 | 02/9 – 12/23 | 13 |
| GUZTIRA | | 344 | | 113 |

Lantegia moduluen eraikinetan egiten denean, parte-hartzaileak modulu horretakoak baino ezin dira izan (Moda eta jantzigintzarekin eta Arte plastikoekin gertatzen da hori), eta Musika eta Musikako hastapen-lantegiak espetxeko Zentro Soziokulturalean egiten dira, eta hiru moduluetako pertsonek eman dezakete izena.

BAZTERKETA LARRIA PAIRATZEN DUTEN PERTSONAK ARTATZEKO PROGRAMAK

1. ETXERIK GABEKOAK ARTATZEKO ZENTROA

2020an 1.320 pertsona ezberdini eman zitzaien arreta zentroan. Horietatik 210 emakumeak ziren (% 15,9), eta 1.110, gizonak (% 84,1).

| Pobrezia eta Gizarte Kohesioa Programa | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Ibiltariak | 1.359 | 1.478 | 1.508 | 1.689 | **802** |
| Erroldatutakoak | 65 | 72 | 51 | 48 | **60** |
| Arreta, kalean | 137 | 176 | 182 | 200 | **138** |
| Hotz-bolada | 275 | 250 | 293 | 422 | **320** |
| GUZTIRA | **1.834** | **1.976** | **2.034** | **2.159** | **1.320** |
| | | | | | |
| **Autobus-txartelak** | **977** | **872** | **720** | **848** | **678** |

2. «ON EGIN» UDAL-JANTOKIA

Iruñeko Udalaren udal-jantokiak (Carmen kalea, 25) 62.578 zerbitzu eskaini zituen 2020an. Egunero, batez beste, 171,45. Zerbitzu horietatik 21.152 bazkariak dira, 20.763 afariak eta 20.663 gosariak. Ekainean banatu zen zerbitzu gutxien, eta urrian gehien.

UDALEKO BESTE DEIALDI BATZUK

- Gizarte Ekintza. Iruñeko Udalak gizarte-ekintzako jarduerak garatzen dituzten 52 proiektu lagundu ditu: 31 proiektu (desgaitasuna eta mendekotasuna) eta 21 (gizarteratzea). Deialdiak, guztira, 290.000 euroko aurrekontua du. HITZARMENAK ETA KONTRATUAK

- Nafarroako Elikagai Bankua fundazioa. Haren jarduna finantzatu zen, zehazki laguntza emanez elikagaiak doan bildu, gorde eta banatzeko egoera sozio-ekonomiko larrian edo gizarte-bazterketa zein pobreziako egoeran dauden Iruñeko herritarren artean. 40.000 euroz hornitua dago.

- CERMIN – Nafarroako Elbarrituen Ordezkarien Batzordea. 15.000 euroko dirulaguntza jaso zuten desgaitasunaren gaineko informazio, aholkularitza, prestakuntza, sentsibilizazio eta koordinazioko programak eta desgaituen eta haien familien elkarte-mugimenduaren jarduerak eta zerbitzuak jakinarazteko proiektuak.

- Secretariado Gitano fundazioa. 30.000 euroko dirulaguntza jaso zuen ijito familiekin egin beharreko esku-hartze proiektu batek, familia-nukleo batzuek duten gizarte- eta familia-arazo larria modu globalean geldiarazteko, eta bizikidetza eta gizarteratzeko zailtasunak eta haien adingabeen defizit sozialeko egoerak arintzen saiatzeko

BANAKAKO ETA LEHIAKETA BIDEZKO UDAL-DIRULAGUNTZAK

| Prestazioak | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Gizarte-larrialdiko egoeran dauden familiak | 652.179 | 586.221 | 684.953 | 699.888,40 | **1.195.903** |
| Eskola-jantokiak | 567.977 | 778.138 | 529.242,88 | 649.434,83 | **473.767** |
| Familia ugarien eskola-jantokiak | | | | | |
| Alokairuak Etxebizitzaren aldeko programa | 366.554 | 379.348 | 344.214 | 314.935,49 | **405.954** |
| Tratamenduak errehabilitazio-etxeetan | 58.608 | 55.149 | 50.795,36 | | |
| Adingabeen arreta (0-12) | 4.017 | 9.264 | 7.829,31 | 20.831,27 | **10.695** |
| Gizarte-ekintzako erakundeetarako dirulaguntzak, haur eta gazteendako aisia eta denbora librea barne, 2015era bitarte | 290.000 | 290.000 | 290.000 | 290.000 | 290.000 |
| Haur eta nerabeen prebentzioa eta sustapena, aisialdi eta denbora libreko jardueren bitartez | 45.000 | 45.000 | 45.000 | 45.000 | |
| Taxi-bonua | 141.621 | 144.872 | 123.190,34 | 184.368,76 | 107.514 |
| GUZTIRA | 2.125.956 | 2.287.992 | 2.075.224,98 | 2.204.458,75 | 2.077.881 |

# KOMUNITATE EKINTZA

## PREBENTZIO-EKINTZA KOMUNITARIOKO ZERBITZUAK (PEKZ)

Iruñeko Udalak, hiriko hamar auzotan dauden Prebentzio Ekintza Komunitarioko Zerbitzuen (PEKZ) bidez, xede du adingabeek beren garapen pertsonala ahalbidetuko duen ingurunea izatea sustatzea, beren komunitatearen eremuko jarduketen bidez. Babesgabetasun-egoerak prebenitzea da asmoa, komunitate-proiektuak, -sareak eta -jarduerak sustatzea bultzatuz, auzoko eragileekin koordinatuta: gizarte-ehuna, hezkuntza- eta osasun-arloak, beste zerbitzu publiko batzuk eta, jakina, Udaleko Gizarte Zerbitzuen Auzoko Unitateak.

Alorrak egiten duen lana da kontratuen eta administrazio-lanen jarraipena egitea eta behar informatikoak kudeatzea.

2020an koordinazio-bilerak egin ziren banaka PEKZ bakoitzarekin eta zerbitzu guztiekin. Martxoan, Udalak Prebentzio Ekintza Komunitarioko Zerbitzuen 8 kudeaketa-kontratuen aldaketa egin zuen 2020ko ekainaren 9ra arte, eta horrela kontratua eta adskribatutako langileak Udalaren oinarrizko zerbitzuak indartzera pasatu ziren (ikusi COVID). Ekainean bigarren aldaketa bat egin zen, oraingoan udarako jardueren proiektuaren edukiari eta hura gauzatzeko tokiari buruzkoa. Bigarren horri helegitea jarri zioten, eta ez zen aplikatu. Azaroaren 5ean Osoko Bilkurak erabaki zuen PEKZen kontratuak ez luzatzea, eta COworkids programa berria aurkeztu zuen.

## BIZIKIDETZA

• Zurrumurruen Aurkako Estrategia. 2017tik Udalak Zurrumurruen Aurkako Estrategia garatzen du, Zaska, Nafarroako Zurrumurruen aurkako sareren bidez, eta 2020an Zurrumurruen aurkako V. Gazte topaketaren antolaketan parte hartu zuen, Tenerifen sustatu eta online egin zena.

• Gainera, Laguntzarik Gabeko Adingabe Atzerritarrak gizarteratzeko lan egin zen, ACOMPAÑANDO-T gizarteratze- eta laneratze-proiektuaren bidez –Laguntzarik Gabeko Adingabe Atzerritarrak helduarora igarotzeko programa, Koine-Aequalitas Fundazioak garatua.

• Milagrosako haurtzaroko sarean parte hartu zen talde eragile komunitarioko parte gisa, eta “Milagrosa-Arrosadía auzoko kulturarteko esku-hartze komunitarioko proiektuan: Sare komunitarioa: hazi eta elkarrekin bizi”. Azken hori Nafarroako Gobernuko dirulaguntzara aurkeztu eta Munduko Medikuak-ekin dagoen hitzarmenaren bidez garatu zen. Auzoko baliabideen gida bat egin zen familientzat, eta zurrumurruen aurkako prestakuntzan eta sarea bera dinamizatzen lan egin zen (ikusi COVID).

• Udako kanpaldia. Hegoalde, Cardenal Ilundáin eta Iturrama ikastetxeetan 6 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako kanpaldia antolatu zen, “Ezinbestekoen uda” lelopean. 373 parte-hartzaile izan ziren, 8 txandatan, uztailaren 6tik abuztuaren 28ra bitarte.

# ESKATUTAKO DIRULAGUNTZAK

• Droga-menpekotasunen kontrako Foru Planaren dirulaguntza. Prebentzio Ekintza Komunitarioko Programarako eskatzen da (8 PEKZ). Emandako eta justifikatutako zenbatekoa: 97.368 euro (12.171 euro, PEKZ bakoitzeko)

• Drogei buruzko Plan Nazionalaren dirulaguntza. Droga-menpekotasuna prebenitzeko programa bat da, legez kontrako droga-trafikoan eta horrekin loturiko beste delituetan atzemandako ondasunen funtsaren kargura: Prebentzio Ekintza Komunitarioko Programarako eskatzen da. 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra arteko aldirako emandako laguntza: 678.897 euro; 2020ko azaroaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra arteko aldirako emandako laguntza: 451.116 euro.

• Migrazio-politiketako dirulaguntza. Kulturen arteko bizikidetza sustatu eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko proiektuetara bideratua, Milagrosa-Arrosadía auzoko kulturarteko esku-hartze komunitarioko proiekturako eskatu zen –Sare komunitarioa: hazi eta elkarrekin bizi–. Emandako eta justifikatutako zenbatekoa: 14.999 euro.

• 2019ko La Caixaren dirulaguntza kulturartekotasunerako. 'Zure auzoa, zure etxea. Kulturarteko esku-hartze komunitarioa Milagrosan' proiektua. Emandako eta justifikatutako zenbatekoa: 32.190 euro.

• Adinekoen esparruan autonomia sustatzeko eta menpekotasuna prebenitzeko jardueretarako dirulaguntza, Nafarroako Gobernuak emana, 'Martxan' programako langileentzat. 5.589 euro eman ziren.

# DEITUTAKO DIRULAGUNTZAK

Entitateentzako dirulaguntzak, komunitate arloko prebentzio- eta sustapen-proiektuetarako, haurren eta gazteen aisialdiaren eta denbora librearen esparruan.Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 36.000 euro da. 3 entitate aurkeztu ziren, baina horietako batek atzera egin zuen.

| ESPEZIALITATEA | Egunak | Ordu kopurua | Hasiera-data Bukaera-data | Parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|
| Hazialdea elkartea | Gizarte- eta hezkuntza-proiektua Ermitagaña eta Mendebaldea auzoetan | 18.500 | 12.218 | 10.385 |
| San Juan Xar elkartea | San Juan Xar Txiki hezkuntza-proiektua | 11.273 | 9.019 | 7.801 |

# ZENTRO KOMUNITARIOAK (GEZK)

Udalak auzotarrentzat zabalik dauden lokalak ipintzen ditu auzoen eskura. Elkarte-bizitza eta herritarren parte-hartze aktiboa bultzatzera bideraturik daude. Garatzen diren jarduerak irekiak dira, irabazi-asmorik gabeak, eta belaunaldien eta kulturen artekoak, eta genero-ikuspegia eta ikuspegi inklusiboa sustatzen dute. Auzotarrentzat dira, eta eremuko kolektiboen arteko harremanak, aisia eta kirola sustatzea dute xede.

Urriaz geroztik zabalik, Udalak sartzeko sistema berria ezarri zuen, erreserbak eta egutegiak eta mantentze-lanetako gorabeherak kudeatu zituen, eta haien funtzionamendua Udaleko beste alor batzuekin koordinatu zuen, hala nola Hiri Kontserbazioarekin, Gizarte Enpleguarekin, Herritarren Partaidetzarekin eta Gizarte Ekintzarekin.

Azaroan entitate erabiltzaile egonkor gisa erabilera-lizentzia eskaerak aurkezteko epea ireki zen. 70 proposamen jaso eta 62 entitate onartu ziren.

Zentro Komunitarioetako espazioak erabiltzeko eskaeren kudeaketa ikasturteka egiten da, hortaz, ondoko taulan 2020ko ekainetik 2021eko ekainera egindako eskaerei dagozkien datuak erakusten dira. Entitate/kolektiboek Zentro Komunitarioak erabiltzeko egindako eskaerak zenbatu dira, hala unean unekoak nola erabilera egonkorrekoak. COworkids udal-programari dagozkion erabilerak ere zenbatu dira, 2021eko urtarrilaz geroztik.

**Espazioen erabilera**

| | Eskaera kopurua | Parte-hartzaile kop |
|---|---|---|
| Egonkorrak | 208 | 3.346 |
| Unean unekoak | 56 | 1.435 |
| Baimenduak | 254 | |
| Baimendu gabeak | 10 | |

Jardueren % 33 prestakuntza- eta kultura-arlokoak dira, % 20 auzo-topaketak, % 4 dantza-jarduerak, % 25 aisialdiko eta denbora libreko jarduerak, eta % 18 kirol-jarduerak.

# EKINTZA ZEHATZAK

• Jolas-pistak Buztintxurin. Horiek diseinatzeko prozesuan parte hartzea.

• Tic Tac programa. 2020ko azken hiruhilekoan Udalaren ‘TIC TAC’ programa abiatu zen, La Caixa fundazioarekin eta Caixabankekin batera bultzatuta. Horren bidez zaurgarritasun egoeran dauden adingabeak dituzten berrogeita hamar familiak chromebook-ak zituzten maileguan, ikasi eta etxeko lanak egin zitzaten (ikus COVID).

• Jatorri errumaniarreko Milagrosako ijito familiak. Nafarroako Gobernuarekin sinatutako lankidetza-hitzarmen baten bidez ezarri zen, eta hainbat arlotan (etxebizitza, prestakuntza, enplegua, osasuna, etab.) defizitak direla-eta bazterkeria-egoera handian dauden familiei intentsitate handiko laguntza ematera bideratzen da. Abian jartzeko aurrekontua 90.000 eurokoa da: 85.000,00 euro proiekturako eta 5.000 euro NUPeko Soziologia eta Gizarte Lan Saileko irakasle eta ikertzaile eta Red Romá sareko kide den Javier Arza Porrasentzako, proiektua monitorizatu, sistematizatu eta ebaluatu dezan.

• Elikagai Bankua (ikusi COVID). Elikagai Bankuaren banaketa-lana eta auzo-unitateen eskaerak babestu ziren, eta lau banaketa-puntu ezarri ziren Arrotxapea, Ermitagaña, Milagrosa eta Sanduzelaiko zentro komunitarioetan, auzoetako zaintza-sareekin koordinatuta, banaketa-egunetan boluntarioak izan ahal izateko. Maiatzean eta ekainean, 2.548 eta 1.857 pertsona baino gehiago artatu ziren, hurrenez hurren, eta kopuru bakoitzean bi urtetik beherako 80 pertsona baino gehiago zeuden. Uztailean, abuztuan eta irailean eta apirilean mila pertsona inguruk jasotzen zuten arreta.

## ADINEKOAK

• Adinekoen Udal Kontseilua. 2020ko otsailaren 7an, legegintzaldiko Adinekoen lehen Udal Kontseilua deitu zen. Kontseilu horretan, Irubide Erretiratuen Klubeko Asun Apesteguía aukeratu zen presidenteorde, eta adinekoekin ekintza komunitarioan esku hartzeko ildo nagusien eta aztertzen ari diren programen berri eman zen. Irailean bigarren bilera bat egin zen (ikusi COVID).

• Sareko lana Iruñeko auzoetan. Donibaneko Adinekoen Itunean lan aktiboa egiten jarraitu zen, eta Iturraman eta Santa María la Realen antzeko sareak eratzeko lanari ekin zitzaion.

• Beti norbaitekin: Bakardadeari buruzko programa. La Caixa Fundazioarekin hitzarmen bidez sinatu zen 2020ko ekainean, Donibaneko Adinekoen Itunaren esparruan. Programa Paumak kudeatzen du, Alaiz kolektiboarekin batera.

• ‘Martxan’ programa: jarduera fisikoak eta memoria-jarduerak. Iruñeko lau auzotan abiatu zen: Milagrosa, Iturrama, Arrotxapea eta Alde Zaharra, eta 118 lagunek parte hartu zuten 2020an. Jarduera fisikoa eta estimulazio kognitiboko jarduerak eskaintzen ditu, bi kasuetan astean bitan, eta egun batean ibilaldi-solasaldi bat egiten da.

• Ideiak biltzen inkesta. 65 urtetik gorakoei egin zitzaizkien galderak, azaroan, adin-tarte horretarako jarduerak programatze aldera. 147 inkesta bildu ziren (% 70, emakumeenak). Erantzuten duten lagunen batezbesteko adina 70 urte da.

• Iruñeko auzoen diagnostikoa. 12 auzotako diagnostikoak eguneratu dira (Donibanekoa egina zegoen dagoeneko), eta argitaratzeko prestatu dira.

• Harremana adinekoen elkarteekin. Adinekoen entitateen esanetara egoten jarraitzen du, haien intereseko gaien berri emateko eta zalantzak argitu eta beharrak asetzeko.

# KIROLA

KUDEAKETA

Aurrekontuetan, kirol-unitateak bi azpiprograma ditu, guztira 5.239.367 eurokoak: 1.505.000 euro programa eta dirulaguntzetarako, eta 3.734.367 euro Udalaren kirol-instalazioetarako. Lan guztiak egiteko teknikari koordinatzaile bat, kirol-instalazioen zerbitzuko buru bat, administrari laguntzaile bat eta udal-kiroldegiei atxikitako 25 funtzionamendu-laguntzaile ditu.

Arantzadi zein Sanduzelaiko (Aquavox) udal-kiroldegien eta Mendillorriko Trinketearen funtzionamenduaren kudeaketa sektoreko hainbat enpresarekin egindako zerbitzu-kontratuen bidez egiten da. Zehazki, Arantzadi eta Mendillorriko instalazioak Ferrovial Servicios enpresak kudeatzen ditu, eta Sanduzelaikoak, Sedena SL-k. Arantzadi eta Sanduzelaiko (Aquavox) udal-kiroldegien taberna-jatetxeak zerbitzu-emakiden bidez kudeatzen ditu Alegre Vásquez Mayaly Pagola andreak eta Riquelme Araneda Fernando SL-k.

Labrit pilotalekuaren funtzionamendua Nafarroako Pilota Federazioaren esku dago, zerbitzuak emateko kontratu erreserbatu baten bidez. Azkenik, Piraguismoko Udal Zentroa eta bertako taberna administrazio-emakida baten bidez kudeatzen dira, Iruñeko Piraguismo Klubari esleitua.

Udalaren kirol-programa batzuk —mantentze-gimnastika eta aerobica eta 50 urtetik gorakoendako yoga— eta Eskolako areto-futbolaren liga ere Gesport Gestión Deportiva SL enpresaren bidez kudeatzen dira.

## PROGRAMAK

Udalak kirolaren esparruan dituen jarduera-ildoetako bi dira, batetik, kirola sustatzea, eta, bertzetik, biztanleria-sektore guztietan jarduera fisikoa bultzatzen duten proiektuak abian jartzea.

- HELDUENDAKO MANTENTZE-GIMNASTIKA ETA AEROBIKA. 2019/2020ko denboraldian 1.052 pertsonak parte hartu zuten, eta hiriko hainbat kiroldegi eta ikastetxetan egin zen.
- YOGA 50 URTETIK GORAKOENTZAT. 2019/2020ko denboraldian 1.012 pertsonak eman zuten izena eskola horietan.
- ARETO-FUTBOLEKO HAURREN LIGA. 2019/2020ko denboraldian 123 taldek eman zuten izena, eta guztira 1.400 parte-hartzaile izan ziren.

## LAGUNTZAK ETA DIRULAGUNTZAK

Udalak kirolerako udal-dirulaguntzen sei deialdi egin zituen 2020an, horietako bat berria (ikus COVID), eta guztira 1.056.800 euro banatu zituen.

Elite-kirola (377.800 euro). Iruñeko taldeek eta kirolariek nazioko elite-lehiaketa ofizial ez-profesionaletan, maila absolutuan, parte har dezaten laguntzeko laguntzak. Iruñeko hainbat kirol-klub eta -elkartetako 37 kirol-taldek jaso zuten diru-laguntza.

Kirol afizionatua (112.000 euro). Federazio-lehiaketa jakin batzuen esparruan Iruñeko kirol-entitateek

ematen dituzten prestakuntza eta sustapeneko jarduerei laguntza emateko laguntzak, kirol ofizialak praktikatzea bultzatzen badute, 6 urtetik aurrera. Dirulaguntza eman zitzaien 28 kirol-klub eta -elkarteri.

Kirol Eskolak (158.200 euro). Oinarrizko Kirol Eskolak antolatzen laguntzeko laguntzak, 6 eta 14 urte bitarteko kirolarientzat. Dirulaguntza eman zitzaien 10 kirol-federaziori eta hiru kirol-kluben talde bati.

Kirol-ekitaldiak (25.000 euro). Iruñean egiten diren kirol-ekitaldiak antolatzen laguntzeko laguntzak. 7 kirol-ekitaldi lagundu ziren diruz.

Kirol-jarduera iraunkorrak (303.800 euro). 2019-2020ko ikasturtean, Iruñean antolatuta, kirol-jarduera iraunkor jakin batzuk egiteko laguntzak, batez ere aisialdikoak. Kirol-jarduera iraunkorreko zortzi programa lagundu ziren diruz.

# KIROL-INSTALAZIOAK

## UDAL-KIROLDEGIAK

Udalak bederatzi udal-kiroldegi ditu, eta denboraldian zehar % 81eko okupazioa izan dute batez bertze. Udal-kiroldegiek astean irekita ematen dituzten 761 orduetatik 670 erreserbatuta egoten dira klub, ikastetxe edo kirol-programentzat, erabil ditzaten. Udal-instalazioak honako hauek dira: Arantzadiko kirol anitzeko pista estalia, Arrosadia, Azpilagaña, Ermitagaña, Ezkaba, José María Iribarren, Arrotxapea, Mendillorri eta Sanduzelai.

Klub, ikastetxe edo kirol-programen erreserbei dagokienez, okupazio handiena duten kiroldegiak Ermitagañakoa (erreserbatuak dituen 83 orduen % 95), Azpilagañakoa (erreserbatuak dituen orduen % 90) eta Mendillorrikoa (79 ordu ditu okupatuak, erabilgarri dituen 88 orduen % 90) dira, hain zuzen. Sanduzelaiko kiroldegian eskura dauden orduen % 85 zeuden okupatuak; Ezkabakoan, % 65; Arrotxapekoan, % 75; Arrosadikoan, % 85 eta José María Iribarrenen, % 65. Arantzadiko kiroldegi estaliko okupazioa ez da % 45era iristen; zehazki, % 41 da. Zortzi kiroldegiak astelehenetik ostiralera egoten dira irekita, 08:30etik 22:30era, eta larunbatetan, 08:30etik 21:30era. Hala ere, Arantzadiko kiroldegia da ordutegi desberdina duen pista bakarra, egokiagoa kirolguneko instalazioetarako. Astelehenetik larunbatera egoten da zabalik, 09:00etatik 21:00etara. Igandean Arrosadia, Ezkaba, Arrotxapea, Sanduzelai eta Mendillorri baino ez dira egoten irekita, 08:30etik 14:00etara.

Erreserben esleipendunak honako hauek dira: ikastetxeak, Gorputz Hezkuntzako irakasgaiaren curriculuma lantzeko eta eskolaz kanpoko kirol-jarduerak egiteko; Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua, Nafarroako Kirol Jokoak egiteko; kirol-taldeak, beren entrenamendu eta partida ofizialetarako; eta elkarteak, kirol-jarduerak egiteko. Normala denez, erabileraren ehuneko handiena duten kiroldegiek hartzen dituzte, goizez, ikastetxeetako gorputz-hezkuntzako eskolak.

## ARANTZADIKO ETA SANDUZELAIKO KIROLGUNEAK

Arantzadiko kirolguneak eta Sanduzelaiko kirol-hiriak 40.575 sarrera eman zituzten 2020an. Urteko abonamenduei dagokienez, herritarrek 1.339 eskuratu zituzten. Udarako abonamenduak 1.122 izan ziren. Neguko 14 abonamendu ere saldu ziren; horien iraupena urtarrilaren 1etik ekainaren 15era eta irailaren 16tik abenduaren 31ra bitartekoa da. Azkenik, hiru hileko 286 abonamendu eta hilabeteko 932 abonamendu eman ziren.

| | Arantzadi | Sanduzelai |
|---|---|---|
| SARRERAK | 24.220 (-% 49) | 16.355 (-% 54,5) |
| Abonamenduak | Aranzadi | Sanduzelai |
| Urtekoak | 617 | 722 |
| Negukoak | 10 | 4 |
| Udakoak | 779 | 343 |
| 180 egunekoak | 228 | 209 |
| 90 egunekoak | 123 | 163 |
| 30 egunekoak | 500 | 432 |

## LABRIT PILOTALEKUA

Nafarroako Euskal Pilota Federazioak udal-jabetzako Labrit pilotalekua kontratu baten bidez kudeatu eta ustiatu zuen; kontratu horren barruan ondasunak, makinak eta instalazioak garbitu, mantendu, kontserbatu eta zaintzeko lanak ere badaude jasota. Kontratuaren zenbatekoa 158.418 eurokoa da.

## BERTZE GUNE BATZUK

- CAPARROSOKO ERROTA. Nafarroako Piraguismo Federazioak, Iruñea Piraguismo Klubarekin batera, Caparrosoko Errota izeneko udal-lokala kudeatu eta ustiatu zuen piraguismorako gune eta jatetxe-taberna gisa. Udalak 52.816 euro ordaindu zituen zerbitzu horrengatik. Aisialdiko eta entrenamenduko eta kirol-errendimenduko jarduerak egin ziren. 90 eta 100 pertsona inguruk erabili ohi dute instalazioa, eta 1.269k jarduera edo alokairuren baten bidez erabiltzen dute (ikus COVID).

- BELAR ARTIFIZIALEKO UDAL FUTBOL-ZELAIAK. Halaber, Sanduzelai, Lezkairu eta Arrotxapea auzoetako belar sintetikoko futbol-zelaiak ere kudeatu ziren. Oinarrizko kiroleko futbol-taldeen entrenamenduak eta partidak egiteko erabili ziren batez ere; ordutegi hauetan okupatu ziren: astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 21:30era bitartean; larunbatetan, 09:30etik 14:30era eta 14:00etatik 21:30era bitartean, eta igande eta jaiegunetan, 09:30etik 14:00etara.

Denboraldi honetan zehar, 2.500 jokalari inguru dituzten 150 taldek erregulartasunez erabili dituzte hiru futbol zelaiak, astelehenetik ostiralera (partidak eta lehiaketak kontuan hartu gabe).

# INBERTSIOAK KIROL-EKITALDIAK

Iruñeko Udalak 586.710 euro inbertitu zituen 2020an kirol instalazioetan: hobekuntza edo mantentze lanetatik hasi eta altzari hornidura edo seinaleztapeneraino. Adibide gisa, Arantzadiko kirolguneko padel pistetako belarra ordeztea, estalkiaren iragazgaiztasuna edo Sanduzelaiko Aquavoxeko aldagelak konpontzea; Ermitagañako kiroldegiko kirol pistan berokuntza-sistema instalatzea; Arrotxapeko eta Sanduzelaiko futbol zelaietako belarraren argiztapena erabat berritzea eta Trinitariosko Skate eta Pum track pistetan informazio-seinaleak jartzea.

| | |
|---|---|
| Kirolguneak | 225.761 |
| Mendillorriko Trinketea | 3.636 |
| Kiroldegiak | 81.053 |
| Futbol-zelaiak | 258.678 |
| Bestelakoak | 17.581 |
| Guztira | **586.710** |

# KIROL-EKITALDIETARAKO BABES-KONTRATUAK

Salbuespen gisa, zenbait motatako laguntzak eman zaizkie hirian egindako hainbat ekitaldiri, babes-kontratuen bidez.

| KIROL-EKITALDIETARAKO LAGUNTZAK 2020AN | |
|---|---|
| Alde Zaharreko VI. Erremonte Txapelketa | 2.500 euro |
| Espainiako Txirrindularitza Itzuliaren 2. etaparen irteera | 40.000 euro |

# GARAPENAREN ALDEKO NAZIOARTEKO LANKIDETZAKO UDAL-PROGRAMA

Urtero, Udalak diru-partida bat bideratzen du programa horretara, eta 2020an, 1.554.772 eurokoa izan zen, hau da, aurrekontu guztiaren % 0,78. Horrek esan nahi du lortu egin dela Nazio Batuen Erakundeak garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzara bideratzea gomendatzen duen gutxieneko ehunekoa. Horrenbestez, hiriko biztanle bakoitzeko 7,42 euroko ekarpena egin da urtean.

### DIRULAGUNTZAK ETA LANKIDETZA-HITZARMENAK

Programa horren barruan, dirulaguntzetarako bost deialdi izan ziren 2020an, Iruñean kokatuta dauden eta jarduerak bertan egiten dituzten Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeei (GGKE) laguntza emateko. Bi deialdi Iruñean garapenerako sentsibilizazio- eta hezkuntza-proiektuak egiteko dira; beste bi, beste herrialde batzuetan garapenaren aldeko nazioarteko lankidetza-proiektuak egiteko, eta bosgarrena, berriz, giza larrialdietarako jarduketetara bideraturik dago. Lankidetza-hitzarmen bat ere garatu da Nafarroako GGKEen Koordinakundearekin, arlo horretako Informazio eta Koordinazio Bulegoa sortzeko, eta gure erkidegoko beste toki-entitate batzuekin batera parte hartzen dugu Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioak (NUKF) kudeatzen duen Lankidetzarako Tokiko Funtsean.

| LAN-ILDOA | Kop. | Betetze-maila 2020 |
|---|---|---|
| **Garapenaren aldeko sentsibilizazioa / hezkuntza** | | |
| - Unean uneko sentsibilizazio-jarduketetarako dirulaguntzak | 5 | 6.000 |
| - Garapenaren aldeko Sentsibilizazio- eta Hezkuntza-proiektuetarako dirulaguntzak | 10 | 66.209 |
| - Garapen eta lankidetzarako hezkuntza-proiektuetarako dirulaguntzak | 2 | 60.000 |
| - Lankidetza-hitzarmena NGGKEen Koordinakundearekin | 1 | 36.000 |
| - Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzarako Udal Programaren (GNLUP) berezko jarduketak: -"Latitudes" irakurketa-kluba | 1 | 810 |
| **Guztizko partziala** | 19 | 169.019 |
| **Giza garapena** | | |
| - Dirulaguntzak: Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetza-proiektuak | 34 | 848.068 |
| - Munduko Medikuak, 2019ko deialdia | 1 | 30.275 |
| - Dirulaguntzak toki-garapeneko proiektuetarako hegoaldeko toki-erakundeekin | 3 | 180.00 |
| - Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren Lankidetzako Toki Funtsean parte hartzea | 8 | 44.000 |
| **Guztizko partziala** | 46 | 1.102.343 |
| *Larrialdi humanitarioak* | | |
| - Dirulaguntzak giza larrialdietako ekimenetan laguntzeko | 9 | 134.978 |
| **Guztizko partziala** | 9 | 134.978 |
| - GNLUPen 2019ko memoria eta 2020ko Urteko Plan Operatiboa | 2 | |
| - Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzaren Plan Zuzentzaileen urteko segimendua (2019) | 1 | |
| - Zerbitzuen karta: Eguneratzea eta segimendua | 1 | |
| **Guztizko partziala** | 4 | |
| **Guztira** | 78 | 1.406.340,00 |

## FINANTZAZIOA, GEOGRAFIA-ESPARRUAREN ARABERA

| Geografia-esparrua | € | % | Geografia-esparrua | € | % |
|---|---|---|---|---|---|
| **Hego Amerika** | **366.871,83** | **% 26,1** | **Afrika** | **504.821,91** | **%35,9** |
| Bolivia | 170.388,51 | | Burkina Faso | 6.138,41 | |
| Brasil | 21.409,68 | | Burundi | 25.900,00 | |
| Kolombia | 65.205,70 | | Txad | 25.900,00 | |
| Ekuador | 25.367,94 | | Guinea Bissau | 6.138,41 | |
| Peru | 84.500,00 | | Mali | 27.650,00 | |
| **Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibe** | **281.149,26** | **%20,0** | Mozambike | 25.900,00 | |
| | | | Niger | 52.221,86 | |
| El Salvador | 18.950,00 | | Nigeria | 33.470,40 | |
| Guatemala | 25.899,26 | | Errefuxiatu saharararrak | 56.538,41 | |
| Mexiko | 25.900,00 | | Kongoko ED | 59.473,01 | |
| Nikaragua | 110.400,00 | | Ruanda | 57.938,41 | |
| | | | Senegal | 83.550,00 | |
| **Ekialde Hurbila** | **54.500,00** | **%3,9** | Togo | 27.650,00 | |
| Lurralde okupatuak | 39.500,00 | | Uganda | 16.353,00 | |
| Hego Sudan | 15.000,00 | | | | |
| **Asia** | **29.978,00** | **%2,1** | | | |
| India | 14.978,00 | | | | |
| Nepal | 15.000,00 | | | | |
| **Europa** | **169.019,00** | **%12** | | | |
| Iruña | 169.019,00 | | | | |
| **Guztira: 1.406.340 euro** | | | | | |



# GARAPENAREN ALDEKO NAZIOARTEKO LANKIDETZAREN PLAN ZUZENTZAILEA 2018-2021

2018an onetsitako Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzaren lehendabiziko Plan Zuzentzailearen barruan, eutsi egin zaio herritartasun globalerako Latitudes – Lecturas para la Ciudadanía Global Irakurketa Kluba ekimenari, zeinak CONGDNren laguntza baitu, eta Nafarroako irakurketa-kluben sarean sartuta baitago. 2020an 5 jarduera egin ziren eta, guztira, 40 parte-hartzaile aritu ziren. Bi liburu sorta ere erosi ziren, eta 2021eko programazioaren zerrendari erantsiko zaizkio.

# 2.8.1.

# HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA OSASUNEKO ALORRA

Hirigintza, Etxebizitza eta Osasuneko Alorraren helburua da hiria sortzea lurraldean: horretarako, hiri-antolamendua planifikatu eta kudeatzen du, etxebizitza duin bat eduki ahal izatea errazten du, naturaguneak hobetzen ditu, historia-ondarea zaintzen du eta ahalegina egiten du hiri- eta gizarte-ingurua osasungarria izan dadin, osasun-, higiene- eta ikuskaritza-baliabideen bitartez.

Halaber, laguntza eskaintzen du herritar orok etxebizitza duin eta egokia eduki dezan.

## LIZENTZIAK

### OBRA-LIZENTZIAK

OBRA-LIZENTZIAK
Ikusten da pixka bat jaitsi dela (% 1) arlo honetan izapidetutako obra-espediente guztien kopurua. Hala ere, gora egin du izapidetutako obra-lizentzien kopuruak (% 8,24), eta behera egin du erantzukizunpeko adierazpen bidez izapidetutako lizentzia laburtuen kopuruak (–% 9,24), aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Izapidetutako etxebizitzen kopuruari dagokionez, 2020an 771 etxebizitza eraikitzeko lizentziak eman dira; horietatik 432 Arrosadia-Lezkairun daude; 93, Erripagañan; 92, Bigarren Zabalgunean; 79, Hego Txantrean; 51, Ipar Etxabakoitzen, eta 24, Buztintxurin. 189 etxebizitza babes ofizialekoak dira, eta 582, libreak.

Guztira, 2020an 2.322 lizentzia eman ziren, 2019an baino % 9 gutxiago.

| MOTAK | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Obrak | 387 | 406 | 437 | 473 | 518(+%10) |
| Laburtuak | 765 | 781 | 709 | 649 | 560(+%14) |
| Komunikatuak | 805 | 762 | 914 | 918 | 779(-%15) |
| Obrak EEZB | 197 | 237 | 244 | 256 | 258(=) |
| Laburtuak EEZB | 30 | 73 | 56 | 58 | 39(-%32) |
| Komunikatuak EEZB | 76 | 210 | 210 | 186 | 168(-%10) |
| GUZTIRA | 2.084 | 2.260 | 2.469 | 2.570 | 2.540 |

IREKITZEKO LIZENTZIAK
2020an 964 espediente izapidetu dira irekiera-lizentzietarako, 2019an baino % 16 gehiago. Haietatik gehienak erantzukizunpeko adierazpen gisa izapidetu dira, eraikinen lehenbiziko erabilerak eta erabilera-aldaketak izan ezik. Emandako lizentzia guztietatik, lehen erabileretarako lizentzien kopurua (86) nabarmentzen da. Hori gertatu da merkataritza-lokalen erabilera etxebizitzetara aldatzeko lizentzien izapidetzea nabarmen igo delako.

# ETXEBIZITZAREN ALORREAN EGINDAKO ESKU-HARTZEAK

ETXEBIZITZA-BULEGOA
Etxebizitza Bulegoa 2016ko apirilean hasi zen martxan, Aterpe Larrialdietarako Ordenantza aplikatzeko asmoz. Ordenantza hori, besteak beste, hipoteka-exekuzioen ondorioz etxebizitzak aldi baterako eskuratzeko arazoak konpontzen saiatzen da. Bulegoak eskuragarri dauden etxebizitzak esleitzen ditu, gizarte-larrialdiko egoeran dauden pertsonek edo familia-unitateek alokatzeko izan daitezkeenak. Halaber, beharrezko neurriak hartu dira bizigarritasun-gabeziak dituzten udal-etxebizitzak eraberritzeko, etxebizitzen inbentarioan sar daitezen.

Gaur egun, guztira 150 etxebizitza bildu dira bulegoan, horietatik 40, 2020an. Erabiltzaileen profila 3 edo 4 kideko familia-unitatea da, adingabeak dituzte beren ardurapean, eta diru-sarrera prekarioak.

HIPOTEKA-BITARTEKARITZAKO BULEGOA
Hipoteka Bitartekaritzako Bulegoak laguntza eman nahi die etxegabetzeko arriskuan dauden pertsonei, informazio pertsonalizatua emanez ordaintzeko dituzten zailtasunei aurre egiteko moduari buruz eta banku-erakundeen aurrean bitartekaritza-lanak eginez, betearazpena saihesteko edo, nolanahi ere, ondorioak gutxitzeko.

2020an, zerbitzuak 35 espediente izapidetu ditu; horietatik 22 amaituta daude eta 13, oraindik irekita abenduaren 31n. Urtean zehar amaitutako espedienteetatik, 5ek bitartekaritzarekin eta akordioarekin egin zuten, 14k aholkularitza juridikoarekin eta 3k bitartekaritzarekin, baina akordiorik gabe. Auzoz auzo azterturik, Arrotxapea (8), Txantrea (6), Donibane (4) eta Buztintxurin (3) daude kasu gehienak. Kasu gutxien (1), berriz, Milagrosan, II. Zabalgunean, Ermitagañan eta Mendillorrin

HIRIA BIRGAITZEKO BULEGOA (EEZB)
Iruñeko Udaleko Etxebizitzak Birgaitzeko Bulegoak bere gain hartzen du hiriko erdigune historikorako Udal Plan Orokorraren hirigintza-garapenaren kudeaketa, eta 1986tik Nafarroako Gobernuak foru-lurraldean ezartzen dituen Eraikinak eta Etxebizitzak Birgaitzeko Bulegoetako bat da. Plan Berezietako kontsultekin, aholkularitzarekin eta aldaketekin zerikusia duen edozein lan egiteaz arduratzen da Hiria Birgaitzeko Bulegoa.

Lehentasunezko birgaitze-eremuetako hirigintza-araudiari dagokionez, 2020. urtean 4 hirigintza-kontsulta izapidetu dira Alde Zaharrean indarrean dagoen araudia aplikatzeari buruz. Halaber, izapidetu eta sarbidea eman zaie Hiria Birgaitzeko Bulegoko 122 espedienteri, hainbat ikerketa, txosten, analisi eta kontsulta egiteko. Gainera, obretarako 455 hirigintza-lizentzia eta obra-amaierako 231 espediente izapidetu dira (obra-amaierako berrikuspenak eta lehen erabilera).

Eraikinak kontserbatzeari, obrak gauzatzeko aginduei eta Eraikinak Ebaluatzeko Txostenak (EEI) aurkezteari dagokienez, Udalaren Hiria Birgaitzeko Bulegoak bere gain hartzen ditu txosten horien aurkezpena jasotzeko, erregistratzeko eta kontrolatzeko lanak. 2020an, obrak betearazteko agindu bat izapidetu zuen, hiriko Alde Zaharrean eraikuntza pribatua kontserbatzeko betebeharra bermatzeko, eta eraikinak ebaluatzeko 211 txosten jaso eta erregistratu zituen.

Irisgarritasun Plan Bereziei dagokienez, Hiria Birgaitzeko Bulegoak bere gain hartzen du plan horien tramitazioa partikularrek eskatuta, zeinen bidez etorkizunean desjabetzeak ahalbidetuko baitira eraikinetan oztopo arkitektonikoak kendu ahal izateko. 2020an, eraikinetako hiru Irisgarritasun-plan bereziren hasierako onespena egin zen, bai eta hiru desjabetze-espedientek eragindako titularren eta ondasunen zerrenda hasiera batez onestea ere.

Nafarroako Gobernuak eraikinak birgaitzeko ematen dituen laguntzen kudeaketa. 2020an, berdin jarraitu du izapidetzeko aurkezturiko espedienteen kopuru orokorrak, 2019ko zenbakiekin alderatuta. Eta berdin jarraitu du, era berean, jabekideen erkidegoek eta banakako etxebizitzen jabeek sustatutako espediente-kopuruaren arteko erlazioak ere.

**Nafarroako Gobernuak Iruñeari 2020an hitzemandako laguntzak**

- 2.900 etxebizitzak jaso dituzte Nafarroako Gobernuaren laguntzak.
- % 16 gutxitu da, 2019arekin alderatuta.
- Sustatzaileen inbertsio pribatua: 36.852.490 euro
- % 16 igo da, 2019arekin alderatuta.
- 12.606.667 euro dirulaguntzatan, Nafarroako Gobernuak emanik
- % 23 igo da, 2019arekin alderatuta.

Aipatzekoa da, halaber, Alde Zaharreko birgaitze-jarduketei laguntzeko neurri gisa, Hiria Birgaitzeko Bulegoak txostena egiten duela inguruko etxebizitzetan bizigarritasun-baldintzak betetzearen gainean. Etxebizitzen jabeek egindako aurrez aurreko kontsultei erantzuteaz gainera, Nafarroako Gobernuak eskatuta, 118 txosten egin ditu, bizigarritasun-zedulen eskaerei loturik.

Bizitegi-multzoetan energia-eraginkortasuneko birgaitze-jarduketak sustatzeko laguntzetan, 2020. urtean, Hiria Birgaitzeko Bulegoko zerbitzu teknikoek partaidetza-prozesuan esku hartu zuten, eta aldeko txostena eman zuten 2.202 etxebizitzari eragiten dieten bizitegi-multzoetako esku-hartze orokorreko 15 proiektutarako. Esku-hartze orokorreko plan horietatik 5, Nafarroako Gobernuak onetsi ditu Foru Agindu bidez.

2020an, agerian geratu ziren Iruñeko Udalak eta Nasuvinsak Txantrean eraikina birgaitzeko prest dauden jabekide-erkidegoei laguntza emateko (Efidistrict proiektua) sinatutako hitzarmenaren ondorioak.

Lehentasunez birgaitu beharreko hiriko eremuak (Alde Zaharra eta Zabalguneak) edo hiriko gainerako 50 urtetik gorako eraikinak birgaitzeko udal-laguntzei dagokienez, 2020an, aurrez aurre emandako etengabeko informazioaz gainera, Birgaitze Babestuari buruzko 24 txosten egin dira Lehentasunez Birgaitu beharreko Eremuetako eraikin eta etxebizitzetarako (Alde Zaharra eta Zabalguneak).

Aldi horretan, bistan geratu zen behera egin zutela alde horietako birgaitze-jarduketek; hori horrela, Alde Zaharreko 21 eraikin eta Zabalgunetako 171 etxebizitza birgaitzeko proiektuak kalifikatu ziren hasiera batez, 2.589.245 euroko inbertsio partikularraz. Udalak 1.110.716 euroko dirulaguntza eman du jarduera horietarako.

Udalak babestutako birgaitze-jarduketen ondorioz, halaber, aldamioak laga dira Lehentasunez Birgaitu beharreko Eremuetako eta Auzo Kalteberetako fatxadetan eta estalkietan esku hartzeko. 2020an, 16 eraikinek jaso dute laguntza, 72.911 euro guztira.

# HIRIA BERRONERATZEKO JARDUKETAK – EREMU KALTEBERAK

2012. urteaz geroztik, hiriko eremu hondatuenetako hiri-kalteberatasunari buruz aurrez egindako azterlanetatik abiatuta, Hiria Berroneratzeko jarduerak garatzen eta ezartzen ari dira eremu kalteberetan, Esku-hartze Orokorreko proiektuen erredakzioa Esparru Hitzarmenen onespenari lotuz. Hala, hitzarmen horiei esker, eragindako eremuetan informazio- eta kudeaketa-laguntzak eta -neurriak ezartzen ahal dira.

2020an, buru eman zieten Lezkairuko Zalduko eraikinen (2015ean onetsitako esparru-hitzarmena) birgaitze-lanari, hitzarmenak izapidetzeari eta laguntzak ordaintzeari; 2017an onetsitako Agur Maria zeharkaleko (Arrotxapea) eraikinekin esparru-hitzarmenari lotutako jarduketek jarraitu zuten; eta hasiera eman zitzaion Sanduzelaiko eremu kalteberari (2018an onetsitako esparru-hitzarmena), 16 etxebizitza-multzoari (2018an onetsitako esparru-hitzarmena) eta Gridillas Etxeetako uharte-etxeari lotutako birgaitze-jarduketak izapidetzeari. Halaber, Arrotxapeko Oscoz etxe-multzoan (2019an onetsitako esparru-hitzarmena) eta Txantreako San Migel Kolonian (2020an onetsitako esparru-hitzarmena), hiru hitzarmen sinatu dira aipatu eremu kalteberetako jabekide-erkidegoekin.

Ekintza horiek 2020an garatzeak berekin ekarri du eremu kalteberetako 8 erkidegori laguntzak ordaintzea, guztira, 398.926 euroan. Gainera, hasierako kalifikazioa eman zen eremu horietan eraikinak birgaitzeko 4 proiektutarako.

# HIRIGINTZAKO GERENTZIA

## JARDUERA NAGUSIAK

### HILTEGI ZAHARREKO PARKEA

**Proiektua:** Iruñeko Udal Planeko ARS-3ko S.O-1 unitatea urbanizatzeko proiektua. Likidazio-aurrekontua: 885.999,79 euro (BEZa kanpo).

Urtarrilean eta otsailean zuhaitzak eta zuhaixka-espezieak landatzeko lanak —bere unean geroratuak— egin dira, eta jarduketa itxitzat jo da. Gunea eraldaturik dago, eta 13.300 m2-ko parke handi bat, jarduera ekonomikoko gune bat eta zuzkidura-lursail bat hartuko ditu.

Iruñetik hurbilen dagoen aldean sortua da, trataturiko mendi-hegal batean; lehengoratu egin da inguruaren orografia, eta espezie autoktonoen zuhaitzek eta zuhaixka-masek zipriztindutako belardi bat eratu da, tantakako ureztatze-sistemaz hornituta. Parkearen goiko aldean begiratoki bat dago eserlekuekin, eta hegoaldean, berriz, egonaldiko espazio txiki bat, piknikak egiteko, eta haurrentzako jolasak, altzariekin. Proiektuak barne hartzen du errepidetik gertuen dagoen eremua urbanizatzea aparkalekuekin, espaloi berri batekin eta bidegorriarekin, Iruña-Orkoien ibilbidean mugikortasuna eta oinezkoen lotura errazteko. Urbanizazio berriak jarduera ekonomikoetarako lurzati bat sortuko du errepidetik eta Orkoiengo mugatik hurbilen dagoen zatian, bai eta zuzkidura-lurzati bat ere parkearen ondoan.

### IRUÑA-ORKOIEN OINEZKOENDAKO LOTURA EGITEKO LANAK (PA30)

**Proiektua:** Iruña-Orkoien oinezkoendako lotura egiteko proiektua (PA-30). Likidazio-aurrekontua: 439.838,16 euro (BEZa kanpo). Bi udalerrien eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmenaren bidez.

Iruña eta Orkoienen artean, PA-30 errepidearen gainean oinezkoen pasabidea egiteko proiektua da, bide-segurtasunari lotutako azpiegitura, oinezkoak eta bizikletak igarotzea ahalbidetzen duena. 751.193 euroko aurrekontuak (BEZa barne) barne hartzen ditu desjabetzea, lanak eta horien zuzendaritza (% 59,8, Nafarroako Gobernuak jarria; % 22,6, Iruñeko Udalak, eta % 17,6, Orkoiengoak). Uztailean lanak APEZETXEA ANAIAK SL enpresari esleitu zaizkio.

Pasabidea, 32,5 metro luze eta 2 metro zabal, PA-30 errepidearen 20,8 kilometroan dago, hiltegi zaharretik gertu. Argiteriako instalazioak led-motako luminariak ditu. Lanen barruan, 430 metro luze eta 3 metro zabal den oinezkoendako bidexka bat egin da, bi aldeetako espaloiekin lotura duena. Halaber, hiru eskailera-tarte sortu dira, oinezkoendako bidexkan egin beharreko ibilbidea murrizteko.

### TRENBIDEKO KALEAREN 2. ZENBAKIKO ERAIKINAREN ERAISKETA ETA C-2 UNITATEAREN BERRURBANIZAZIOA

**Proiektua:** Trenbideko kalearen 2. zenbakian dagoen eraikina eraistea eta C-2 unitatea berrurbanizatzea. Likidazio-aurrekontua: 165.910,09 euro (BEZa kanpo).

Trenbideko kalearen 2ko eraikina eraisteko lanei esker, ingurunea berrurbanizatu eta espaloiak eta bidegorria handitu dira eremuan. Jarduketak C-2 unitatearen 7. industrialdeko 960. katastro-lurzatia hartu du jomuga, Buztintxuri – Euntzetxiki – Dona Grazia auzoan, eta 278 m2-ko azalera du. Lanak Construcciones y Excavaciones Erri Berri SL enpresak egin ditu eta 148.898,42 euroan adjudikatu dira (BEZa kanpo). % 15,31 aldatu da adjudikazio-aurrekontua, babespeko hegaztiek egindako habiak bildu behar izateagatik eta eraistean segurtasuna bilatu behar izan delako.

Eraitsitako eraikina 1950eko hamarkadakoa zen, antolamenduz kanpo zegoen eta espaloia estutzen zuen, bidegorrirako tokia besterik ez utzita. Eraispenaz gain, kontratua betetzeak berekin dakartza kale horretako 4. atariko mehelinaren itxiera berria, euri-uren sareak hobetzea eta eremuaren berrurbanizatzeari buru ematea. Desagertutako eraikinaren ordez tamaina txikiagoko bloke bat eraikiko da (8 etxebizitza eta merkataritza-lokalak). Ondoko atariak Udalaren dirulaguntzekin birgaitu dira eta egoera onean daude.

**MAGDALENAKO ARS-1 URBANIZATZEKO 1. FASEA (1. LOTEA- S1 UNITATEA)**
**Proiektua:** Magdalenako ARS-1 urbanizatzeko 1. fasea (1. lotea- S-1 unitatea). Likidazio-aurrekontua: likidatzeke 2021ean. Adjudikazio-aurrekontua: 6.935.385 euro (BEZa kanpo).

Proiektuak V/S-1 izeneko lurzoru urbanizagarriaren sektorea urbanizatzea proposatzen du, V/GSA-2 Sistema Orokor atxikia sartu gabe (ARS-1 Banaketa-gunea).

Lanen lehen fase honek lurzati guztiak berrurbanizatzea proposatzen du, instalazio-harguneei eta ibilgailuen zein oinezkoen sarbideei dagokienez. Esku-hartzeak barne-hartzen ditu hala Torralba del Río kalea nola Mendigorria, Torralba del Rio eta San Kristobal kaleak lotzen dituen egungo plazatxoa biribilgune bihurtzea; Burlatarekin mugakide den eremu baten urbanizazioa ere zedarritzen du, Irabia ikastetxetik gertu, Ezkaba kaleko autoendako sekzio osoa eta oinezkoen zein txirrindularien zati bat osatzeko, Magdalena kaleraino jarraitutasuna emanez (Irubide institutuaren ondoan).

**MAGDALENAKO ARS-1 URBANIZATZEKO 1. FASEA (2. LOTEA - PARKEA)**
**Proiektua:** Magdalenako ARS-1 urbanizatzeko 1. fasea (2. lotea - PARKEA) Likidazio-aurrekontua: likidatzeke 2021ean. Adjudikazio-aurrekontua: 1.811.867,87 euro (BEZa kanpo)

Proiektu honek U.I. V-Txantreako GSA-2 sistema orokor atxikiaren urbanizazioa garatzen du (Txantrea hegoaldeko parkearen ARS-1 eta ARS-3 banaketa-eremuak).

Arga ibaiak, Donejakue Bideak, Burlatako mugak eta Txantrearen hegoko ertzak zedarritzen dute eta 101.628 m2-ko azalera dauka.

Parkearen iparraldeko muga honako hau izanen da: ARS-1 Banaketa-eremuaren barruan V/S-1 sektoreak zedarritzen duen eremua urbanizatzeko proiektuan hegoaldeko muga zehazten duen kalea. Parke berriaren bidez, proiektuak proposatzen du trantsizioak ebaztea, konektatzea eta artikulatzea ertzeetan dauden paisaia ezberdinen artean: luzeran, hiriko erdigunearen eta naturalizatutako paisaiaren artean, Burlatako mugan ubidea leheneratuz, eta zeharkakoan, Txantreako hiri-paisaiaren eta Magdalenako landa-paisaiaren artean.

Parkearen lehen fase honen esparrua honako hau da: Magdalenako zubiarekiko zein Arga ibaiarekiko lotura sarbide-plaza txiki baten bidez sortzea Magdalenako zubitik, halako moduz non fisikoki eta bisualki lotzen baita Txantrea Iruñeko goi-lautadarekin eta Josefina seroren komentuko baratze zaharra Irubide parkearekin, komentuaren hesiaren parte bat eraitsita eta lehengo bide nagusia egonleku bihurtuta.

**ITURRAMA BERRIKO A LURZATIKO GARAJE TAPA URBANIZATZEA**
**Proiektua:** Iturrama Berriko A lurzatiko garaje tapa urbanizatzea. Likidazio-aurrekontua: 34.034,33 euro (BEZa kanpo). Hitzarmenaren bidez eginda.

# PROIEKTUAK IDAZTEA

**ARGA, ELORZ ETA SADAR IBAIEN IBAI-PLANGINTZAREN EREDUA**

Proiektuaren idazketa 2019an adjudikatu zen TENADA, PROYECTOS Y OBRAS DE INGENIERÍA DEL SUELO Y MEDIOAMBIENTAL, SLUri (hemendik aurrera, TENADA, SLU), 37.500 euroan (BEZa kanpo).

Lan-esparrua Arga ibaiari eta Elorz eta Sadar ibaiadarrei dagokien ibai-eremua da, bai eta horrek hiri-espazioarekin dituen loturagune guztiak ere. Ereduak jarraitu beharreko estrategia jasotzen du: lan-fase batzuk ezarri dira ibai-, gizarte-, ekologia- eta hiri-lehentasunen arabera, eta egutegi bat osatu da faseak gauzatzeko, haien aurrekontuarekin eta jotako gauzatze-aldiarekin bat hierarkizaturik. Jarduketa-programa osoaren lehentasunezko helburua da hiriko ibai-inguruneak hiriaren egituran integratzea, bertako balio natural eta hirigintzakoak mantenduz eta sustatuz, dauden inpaktuak zuzenduz eta funtzionamendu hidraulikoa hobetuz.

2020ko ekainean onetsi zen agiri-aurrerakina, honako hauek barne hartuta: ibaien eta haien inguruneen azterketa, indarreko lege-esparrua, arazo zein beharren identifikazioa eta lokalizazioa, zonifikazioa eta proposamenak. Horrela amaitu da aurreikusitako hiru faseetako lehenengoa.

**ZNO-1 (GRIDILLA) EREMUAREN INGURUKO LAN-PROIEKTUAREN IDAZKETA**

Indarrean den Iruñeko Udal planak "Gridilla Etxeak" eraistea jasotzen du eta osatu gabe dagoen etxe-uhartea osatzea behe solairu eta lau solairu altxatuko bizitegi-eraikin kolektibo batekin, zeinaren hondoa, lerrokadurak eta gailur-altuera ondoko eraikinen berberak izanen baitira. Jarduketa garatzeko beharrezkoa da Xehetasun-azterlan bat egitea, dagoeneko izapidetu eta behin betiko onetsita dagoena. Planeamenduak, halaber, bidea ematen du gunea inguruko kaleekin lotzeko, hau da, Salva doktorearen, Sanduzelai eta Labayen doktorearen kaleekin, oinezkoendako eta autoendako lotura hobetuz auzoko alde honetan. Jarduketa hau "Erdigune Sanduzelai" partaidetzako prozesuan eztabaidatu zen.

Urbanizazio-proiektua idazteko kontratua eta obren zuzendaritza teknikoa CIMA INGENIEROS SLUk (% 80) eta Sergio Murillo Saldíasek (% 20) osatutako lantaldeari adjudikatu zitzaizkion, 2018an, 56.000 euroan (BEZa kanpo). Enkarguak bi proiektu ezberdinen idazketa barne hartzen du: patinodromoaren ingurukoa eta Gridillas Etxeena, eta horietako bakoitza, bestalde, hiru gauzatze-fasetan banatuta dago.

**MAGDALENAKO PROIEKTUA EGUNERATZEA**

2019ko maiatzean, «Magdalenako ARS-1eko S-1 unitatea urbanizatzeko proiektua eguneratzeko, 1. faseko (S-1) separata idazteko eta, hala badagokio, 1. fase honetako (S-1 eta Parkea) obrak zuzentzeko» kontratua adjudikatu zitzaion Sergio Murillok eta Cima Ingenieros etxeak osatutako lantaldeari, 134.800 euroan (BEZa kanpo). Proiektuaren berrikuspena 2019ko abenduan onetsi zen, eta gaurkotze-lanak egiteari dagozkion ordainsariak 2020ko urtarrilean ordaindu ziren.

Proiektuak 2012an onetsitako dokumentua eguneratu zuen: aplikatu beharreko araudi berrietara egokitu zuen, prezioak eguneratu zituen, eta partaidetza-prozesu batean auzotarrek egindako ekarpenak, 'Begibistan' lantaldearen irizpideetan garatuak, gehitu zituen proiektura. Auzotarren honako proposamen hauek jaso dira: plangintzan jasotako biribilgunearen ordez semaforoz araututako bidegurutze bat jartzea (Irubideko eremua); kale berria auzoaren eta etxebizitza-eremu berriaren zerbitzu gisara ulertzea, Alde Zaharraren eta Burlataren arteko lotura azkar bat izatea eragotziz; zirkulazioa baretzeko elementuak sartzea, oinezkoen eta bizikleten zirkulazioari lehentasuna emanez, eta bidegorriak parkearen periferiatik

diseinatzea, barruko bideak oinezkoentzat utzita.

Proiektuak eremuko kale mugakideekiko loturak jasotzen ditu, eta, bereziki, Torralba kalearen birmoldaketa, eta Mendigorria, Torralba del Rio eta San Kristobal kaleak lotzen dituen egungo plazatxoa biribilgune bihurtzea. Burlatarekin mugakide den eremu baten urbanizazioa ere zedarritzen du, Irabia ikastetxetik gertu, Ezkaba kaleko autoendako sekzio osoa eta oinezkoen zein txirrindularien zati bat osatzeko, Magdalena kaleraino jarraitutasuna emanez.

### TRINITARIOS PARKEKO PASEALEKUA ETA IGOGAILUA

2019ko ekainean, «Trinitarios parkeko urbanizazioa (D fasea)» proiektua onetsi zen. Idazketa-proiektua 61.382,79 euroan adjudikatu zen.

Agirian aurreikusita dagoenaren arabera, mendiko hegala handituko da eta oinezkoen ibilbideak harmonikoki txertatuko dira, bai eta 20 metroko desnibela gainditu ere, Corten altzairuko metalezko egitura —L itxurakoa, beirazko gorputz bertikal batekin— daukan igogailu bat instalaturik, Trinitariosen eta gainerako hiri-aldeen arteko komunikazioak artikulatzeko, bereziki hiriko lautadarekin. Igogailuak López Sanz doktorearen kalearekin lotuko du parkea. Behealdean Plazaola pasealekuarekiko paraleloa den oinezkoen pasealeku berriko plazan egonen da. Bigarren fase batean, goiko aldea urbanizatzea aurreikusten du proiektuak: López Sanz doktorearen kalea berrantolatzea eta Larraina kaletik jarraitzea, bai eta Larraina kalearen eta Iratxeko Monasterioaren kalearen arteko bidegurutzean oinezkoendako pasabideak berriro banatzea ere.

2020ko maiatzean agiriaren aldaketa bat onetsi zen, igogailuaren oinarri-aldean dagoen saneamendu-hoditeriaren afekzioak kontuan hartzeko.

## PLANEAMENDUA

### UDALAREN EKIMENEZ

Jada eraikita dagoen hiria berritzeko planeamendu-lanei dagokienez, 2020an jarraitu zen Hiri Jarduketarako Plan Bereziak (HJBPB) egiten Lehen Zabalgunean, Bigarren Zabalgunean eta XIX. UIn (Milagrosa eta Santa María la Real auzoak). Halaber, Udal Planaren aldaketa egituratzaile bat erredaktatu da, ARS4, XIX. Ui-ren 2. Sektorerako (Milagrosa).

### PARTIKULARREN EDO BESTE ADMINISTRAZIOEN EKIMENEZ

Lehendik abiatu diren eta izapidetzea 2020an amaitu duten espedienteen zerrenda:

- Hiri Jarduketarako Plan Berezia, Buztintxuri-Euntzetxiki-Dona Graziako Plan Partzialaren 23C eta 24C etxe-uharteetan.

- Aldaketa Xehatua XXIII. UIko (NUP-Sadar) ZNO-1aren UM-3an.

- Xehetasun Azterlana, Iruñeko Udal Planaren XIX. UIko Z3 eta GZ4 unitateetan (Oberena elkartea).

- Xehetasun Azterlana, Iruñeko katastroko 7. industrialdearen 1.378 lurzatian, X. UI - Landaben unitatearen barruan.

- Irunlarreko ospitaleetako Plan Berezia aldatzea (UI: XVII/Z-1).

- Alde Zaharraren Babes eta Barne Berrikuntzarako Plan Bereziaren (BBBPB) aldaketa puntuala, 1. poligonoaren 80. katastro-lurzatiarentzat, Maiatzaren biaren kaleko 3an.

- Iruñeko Udal Planaren aldaketa egituratzailea, 292. Oinarrizko unitatean, XV.UIren (Santa María la Real-Maristas ikastetxea) ZOR-1aren barruan.

2020an izapidetutako espedienteen zerrenda:

- ARS-3 banaketa eremuaren plan partziala aldatzea erabilera tertziarioko lurzatietan.

- Buztintxuri-Euntzetxiki-Dona Graziako Plan Partzialaren aldaketa puntuala E2 oinarrizko unitatean (osasun-zentroa).

- Sarrigurengo errepidearen Plan Berezia aldatzea (1etik 10era).

- Aldaketa, S1 sektoreko Plan Partzialean eta Iruñeko Udal Planaren V. UIko ARS-1 banaketa eremuarena den GSA-2 sistema orokor atxikian.

- Aldaketa Puntual Xehekatua Udal Planaren V. UIren Z-6an (San Migel Kolonia - 199. lurzatia, 6. poligonoa).

2020an izapidetzen hasitako espedienteen zerrenda

- Xehetasun Azterlana, ARS-3 Banaketa Eremuaren (Arrosadia-Lezkairu) Plan Partzialeko L-22 oinarrizko unitatean.

- Plan Berezia, Marcelo Celayeta etorbideko 144ko atzealdean (Errotazar kalea) irisgarritsuna hobetzeko.

- Xehetasun Azterlana, Lezkairuko Plan Partzialeko (Arrosadia-Lezkairu) L-6 oinarrizko unitatean.

- Plan Berezia, igogailuak instalatu eta oztopo arkitektonikoak ezabatzeko Txantrea plazako 1, 2, 4, 8, 10 eta 11n.

- Xehetsun Azterlana, XIV. UIren Z-1ean (Larraina kirol zelaia).

- Hiri Jarduketarako Plan Berezia, katastroko 2. poligonoaren 551. eta 541. lurzatietan.

- Buztintxuri – Euntzetxikiu – Dona Graziako sektorearen birpartzelazio-proiektuaren aldaketa, 30 A.E. lurzatian.

# OSASUNA

## ELIKAGAI-IKUSKARITZA

2020ko urtarrilaren 1ean, honako hauek zeuden jasota establezimenduen erroldan Iruñean: ostalaritzako 1.024 establezimendu, 135 jangela kolektibo, 86 industria/lantegi/biltegizain eta 1.059 elikagai-establezimendu, jarduera ez-iraunkorre gain. Establezimendu horietan 1.334 ikuskapen-bisita egin dira guztira.

Martxoaren 12an eta 13an, kanpaina bat abiatu zen pintxoen erakusketa eta tabernetako komunen eta barraren higiene-elementuak kontrolatzeko, eta 148 ostalaritza-establezimendu zein kafe-makina duten okindegi-gozotegi bisitatu ziren. 2020an, osasun-kontrola egin zen Mercairuñako arrain, fruta eta barazkien handizkako merkatuan eta hiriko hornidura-azokan, bai eta Landabengo azokan ere.

2020an, alerta sanitarioko 31 egoeratan esku hartu du, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak jakinarazita; egoera horiek elikadura-establezimenduetan edo farmazietan banatutako elikagaiei eragiten zieten. Kontrolatu dira edo aholkua eman da ostalaritzako eta elikadurako 30 jarduera ez-iraunkorretan, eta 25 postu ikuskatu dira hainbat jaiegunetan edo ospakizunetan. Hirigintza eta Etxebizitzako zerbitzuekin batera, kontrol-zereginak egin dira Erantzukizunpeko adierazpenaren/Irekitzeko lizentziaren baldintzak aldatu edo bete ez dituzten establezimenduetan. Gainera, 27 ziurtagiri egin dira Iruñean dauden elikagaien esportaziorako enpresetatik.

2020an 346 espediente ireki dira ofizioz, Elikagaien Ikuskaritzari lotuta. Horietako 96tan zehapen-espedientea hastea proposatu da, eta 306 errekerimendu-txosten izapidetu dira gabeziak zuzentzeko. Irekitako beste 60 espediente zerbitzuak kudeatutako hainbat gairi zegozkien (salaketak, alertak eta antzekoak).

| Instalazioa | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Errekerimenduak | 540 | 428 | 486 | 306 | **346** |
| Zehatzaileak | 106 | 113 | 87 | 204 | **96** |

Elikagaien Ikuskaritzak elikadurari lotutako 26 salaketa bideratu ditu, partikularrek eta poliziak esku-hartzeetan eginak, edo beste erakunde publiko batzuek abiatutakoak.

Zerbitzuak, 2020an, guztira elikagaien 52 lagin hartu ditu. Horietatik, 21 analisi mikrobiologikoak egiteko eta 2, elikagai gehigarriak zehazteko. Lagin-kopurua murriztu egin da, aurreko urteekin alderatuta, Elikagai Ikuskaritzak parte hartu duelako laginketa-programan, zeina Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak ezarri baitu, Nafarroako Foru Komunitaterako, AESAN agentziaren jarraibideak betez. Udalaren parte-hartzea erroldatutako biztanleen eta Iruñeko udalmugartean dauden establezimenduen araberakoa izan da.

2020an, handitu da koordinazioa Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuarekin (ikuskapen-protokoloak, laginak hartzea, osasun-erregistroari edo ikuskapenari buruzko bilerak).

*Elikagai Ikuskaritzak 2015tik 2020ra bitartean hartutako elikagai-lagina*

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Udal Laborategiarekin batera eginiko programa | 538 | 516 | 538 | 457 | 140 | **29** |
| Gainerakoak | 59 | 30 | 50 | 27 | 27 | **23** |
| **GUZTIRA** | **597** | **546** | **588** | **484** | **167** | **52** |

**ZOONOSIA**
2020an, 189 txakur eta katu sartu dira Animaliak Hartzeko Zentroan, eta horien sarrera-arrazoia eta destinoa dagokien taulan zehazten dira, bai eta urtean sartu direnen kopuruaren eboluzioa ere.

| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Zakurrak | 171 | 190 | 177 | 181 | **135** |
| Katuak | 35 | 37 | 82 | 62 | **54** |
| **Biak** | **206** | **227** | **259** | **243** | **189** |

*189 animalia horietatik, 85 jabeei itzuli zaizkie, eta 113 adoptatu egin dira. Udalaren webgunean adopzioak egiteko orri espezifiko bat dago; hantxe eskura daiteke prozesuaren gaineko informazio guztia, bai eta animalien argazkiak ikusteko aukera ere.2015etik 2019ra adoptatutako animaliak*

*Animalia adoptatuak*

| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Zakurrak | 51 | 64 | 78 | 57 | **62** |
| Katuak | 25 | 24 | 47 | 58 | **51** |
| **Biak** | **76** | **88** | **125** | **115** | **113** |

| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Zehapen-arrazoiak | - | - | - | - | - |
| Zakurrak aske eramateagatik | 69 | 128 | 109 | 109 | **120** |
| Gorozkiak ez jasotzeagatik | 11 | 21 | 13 | 10 | **8** |
| Zakurrak egoera egokian ez edukitzeagatik | 5 | 6 | 3 | 6 | **2** |
| Txertatze eta identifikazioarekin lotutako arau-hausteengatik | 3 | 8 | 9 | 8 | **3** |
| APP araudia | 38* | 64 | 50 | 47 | **31** |
| Zakurrekin lotutako bertzelako zehapenak | 16* | 7 | 28 | 19 | **7** |
| Bertzelako animaliekin lotutako bertze zehapen batzuk | 4 | 1 | - | - | **1** |
| **Zergati guztiak** | **152** | **235** | **212** | **199** | **172** |

Espediente bat ireki zaio txakur baten jabeari hura abandonatzeagatik, ez baitu Animaliak Hartzeko Zentrotik jaso.

2020. urtean, 37 kasutan esku hartu da, animaliek pertsonei hozka egiteagatik. Kasu horietan, 4 animaliari behaketa sanitarioa egin zaie, eta kasu bakar batean ere ez da detektatu gaixotasun kutsagarririk. Arriskugarriak gerta daitezkeen animaliak edukitzeari buruzko araudia aplikatuz, urte honetan zehar horiek edukitzeko beste 81 lizentzia eman dira, 36 lizentzia berritu eta 2 kopia eman dira lizentzia galtzeagatik.

CES/R - esterilizatutako, bizkarroiak hildako eta txertatutako katuak programaren estadistika

| | Esterilizatzea, txertatzea, bizkarroiak hiltzea | Bestelako albaitaritza-arretak |
|---|---|---|
| Emeak | 122 | 6 |
| Arrak | 81 | 7 |
| **Guztira** | **203** | **13** |

Uso-populazioaren gaineko kontrola eta usategi ekologikoa abian jartzea Azaroan abian jarri zen Taconera parkean eraikitako usategi ekologikoa, usoen populazioa eta haien ugalketa kontrolatzeko, eta emaitza onak lortu ziren. Halaber, uso batzuk hiritik kanpo dauden usategietara eraman ziren, usoen populazioa pixkanaka murriztea xede harturik.

# INGURUMEN-OSASUNA

Udal-erregistroan salaketak edo eskaerak aurkeztu dituzten herritarraren eskariei erantzuteaz arduratzen da, eta Udalaren esku-hartzea eskatzen du Osasun Ikuskaritzari dagokion gai espezifiko batean. Gainera, ofizioz garatzen ditu merkataritza-jardueren osasun-zaintzako programak eta/edo etengabeko osasun-hobekuntza sustatzeko zerbitzuak.

**ESKATU AHALA**
Herritarrek 2020an egindako salaketa- eta eskaera-kopurua azken urteotako baxuena da.

| URTEA | KOPURUA, GUZTIRA | SALAKETA KOPURUA | ESKAERA KOPURUA | SORRARAZITAKO IKUSKATZE KOP. | KOPURUA SORTURIKO LAGINAK |
|---|---|---|---|---|---|
| 2016 | 54 | 36 | 18 | 36 | 2 |
| 2017 | 51 | 30 | 21 | 37 | 3 |
| 2018 | 36 | 26 | 10 | 57 | 4 |
| 2019 | 43 | 32 | 11 | 70 | 0 |
| 2020 | **29** | **20** | **9** | **48*** | **0** |

*Sorrarazitako ikuskapen-kopurua askoz handiagoa da tatuaje-tinten gaineko osasun-alerta batek eragindako eskaeren kopurua baino, zeinak 28 lokal ikuskatu behar izan baitzituen.

**OFIZIOZKO ZAINTZA**

2020an garatutako osasun-zaintzako urteko programek zerikusia izan dute uraren osasun-kalitatearekin, honako kasu hauetan: kontsumoko ura, ibaiko zein igerilekuetakoa, haurtzaindegi eta haur-eskoletakoa, estetika eta garbitasun pertsonaleko lokaletakoa eta merkataritza-lokaletakoa.

ikuskapenak eta laginak, guztira, murriztu egin dira aurreko urteekin alderatuta. Lehenengo kasuan, ostalaritzako ikuskapenak indartu direlako; bigarrenean, 2019an laborategian egindako aldaketengatik, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko laborategian laginak hartzeko irizpide berriak ezarri direlako.

Ikuskapenak eta laginak

| URTEA | IKUSKATZEAK, GUZTIRA | LAGINAK, GUZTIRA |
|---|---|---|
| 2016 | 1.904 | 1.756 |
| 2017 | 1.759 | 1.761 |
| 2018 | 1.941 | 1.695 |
| 2019 | 1.835 | 1.500 |
| 2020 | 1.555 | 801 |

Ikuskapen guztietatik, 252 igerilekuetan egin dira; 34, haur-eskoletan; 808, estetika-lokaletan; 269, merkataritza-establezimendu berrietan, eta 92 kasutan, jarraipena eman zaie espedienteei ikuskapenetan antzemandako gabeziengatik. Halaber, giza kontsumoko uraren 574 lagin jaso dira, ibaietako uraren 5 eta igerilekuetako uraren 171.

Salaketaren bidez sortutako espedienteen % 85 eta eskaeraren bidez sortutakoen % 88, 2020an amaitu eta artxibatu dira. Beste 3 salaketa 2021ean ebazteke geratu dira –ohiko izapide administratiboa jarraitzen dute– eta 1, 2021eko urtarrilean amaitu zen.

Herritarrek formalizatutako salaketen % 50 udal-erregistroan aurkeztu eta 20 egun igaro baino lehen aztertu ziren. Jasotako eskaerak 17 eguneko epean kudeatu dira batez beste.

# INGURUMEN INGENIARITZA

Zerbitzuaren jarduerak, funtsean, salaketei erantzutean eta zaratari eta usainei buruzko ingurumen-legeria betetzen dela egiaztatzeko eragozpenak sor ditzaketen jarduerak ofizioz ikuskatzean oinarritzen dira. Salaketak izan daitezke herritarrak instantzia orokorrean idatziz aurkezten dituen eta Ingurumen Ingeniaritzako Zerbitzuari zuzenduta dauden kexak, edo Udaltzaingoak herritarrek egindako deiengatik ipinitako salaketak.

| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Salaketa kopurua | 174 | 199 | 133 | 145 | **106** |
| Ikuskatze kopurua | 97 | 175 | 100 | 63 | **58** |

### KUTSADURA AKUSTIKOAK ERAGINDAKO SALAKETAK

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Tabernak | 48 | 46 | 50 | 29 | 33 | **15** |
| Auzotarrak | 56 | 66 | 71 | 59 | 63 | **37** |
| Bertze batzuk | 44 | 42 | 44 | 30 | 38 | **39** |
| GUZTIRA | 148 | 154 | 165 | 118 | 134 | **91** |

2020an, 18 zehapen jarri dira zaratagatik.

### KUTSADURA ATMOSFERIKOAK ERAGINDAKO SALAKETAK

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Keak eta usainak | 23 | 20 | 19 | 15 | 11 | **15** |

Ikus daitekeenez, kutsadura atmosferikoagatik jarritako salaketen kopurua murriztu da azken urteetan, nabarmen ugaritu baitira ofiziozko ikuskapenak.

# UDAL-LABORATEGIA

Udal Laborategiko langileek Nafarroako Lan Osasunaren Laborategietako instalazioetan betetzen dute bere eginkizuna 2019az geroztik; urte horretan Iruñeko Udalak hitzarmen bat sinatu zuen Nafarroako Gobernuko Osasun departamentuarekin NOPLOIren laborategiko instalazioak aldi baterako erabiltzeko.

Elikagaien kontrola. Udalaren Elikagai Ikuskaritza zerbitzuak bat egin zuen NOPLOIren elikadura-segurtasunaren atalak ezarritako elikagaien gaineko lagin-planarekin.

Ingurumenaren kontrola. Giza kontsumorako ura, igerilekuetakoa eta udalerria zeharkatzen duten ibaietako ura kontrolatzean datza.

| Elikagai mota | Saiakuntza kimikoak | Saiakuntza mikrobiolo-gikoak | Guztira |
|---|---|---|---|
| Sareko ura, eguneroko kontrola | 10 | 4 | 14 |
| Sareko ura, analisi osoa | 87 | 5 | 92 |
| Igerileku eta hidromasajeetako ura | 9 | 2 | 11 |
| Ibaietako ura | 7 | 3 | 10 |
| Guztira* | 113 | 14 | 127 |

# EPIDEMIOLOGIA

Epidemiologia Zerbitzua Udalaren osasun-zerbitzu bat da, eta herritarren osasuna babestea eta sustatzea du helburu. Alde batetik, aholkuak ematen ditu bere eskumenekoak diren gaietan dela emailez dela telefonoz, eta bestetik, zenbait programa garatzen ditu  honako hauek sustatzeko: aire zabaleko ariketa fisikoa, ibilbide naturaletan barna ibilaldi nordikoen hastapenak eta 40 urtetik gorakoentzako ariketa fisikoa. 2020an, Udalak ibilketa nordikoko 18 saio eskaini ditu, eta 368 lagunek hartu dute parte. Aurreikusitako programa guztietan eragina eduki zuen oraingo egoerak (ikusi COVID).

Halaber, Herritarrendako Arreta Zerbitzuarekin lankidetzan, Epidemiologiak informazio- eta alerta-sistema kudeatu du, atmosferako polinizazio-maila altuari aurre egiteko (martxoaren 12tik ekainaren 28ra bitarte). 2020an, 18.383 SMS mezu eta 1.660 email bidali zitzaizkien 1.581 pertsonari, eta horietatik 86 izen-emate berriak izan ziren.

*Polen-mailari buruzko informazioa jasotzen duen lagun kopurua*

| 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| 1.035 | 1.182 | 1.323 | 1.404 | 1.495 | **1.581** |

*Epidemiologia Zerbitzuak lankidetzan dihardu Nafarroako Gobernuarekin tenperatura altuegiek osasunean duten eraginaren aurkako prebentzio-planean, eta hori arrisku-mailari eta «bero-boladaren» kasuan prebentzio-neurriei buruzko informazioan zehazten da. 2020ko udan, plana bigarren aldiz aktibatu zen, 2019an aktibatu eta gero (uztailaren 31n)*

*Era berean, Udalaren Desinfekzio Parkearekin eta Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan, 2016az geroztik, zerbitzua lanean ari da udalerrian eltxo tigrearen presentzia detektatzeko, 2020ko maiatzaren 18tik abenduaren 14ra bitartean arrautza-tranpen instalazio- eta bilketa-sistema baten bidez.*

*Arrautza-tranpen taula/erregistroa Iruñerrian. 2016-20*

| URTEA | TRANPA KOPURUA | ASTE KOPURUA | TRANPA KOPURUA | | | | ALDATURIKO LEKUKO KOPURUA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ZAINDUAK | POSITIBOAK | NEGATIBOAK | DESAGERTUAK | |
| 2016 | 8 | 11 | 88 | 0 | 88 | 2 | 1 |
| 2017 | 10 | 16 | 160 | 0 | 160 | 2 | 4 |
| 2018 | 10 | 12 | 120 | 0 | 120 | 0 | 3 |
| 2019 | 10 | 15 | 150 | 0 | 144 | 3 | 3 |
| **2020** | **10** | **16** | **150** | **0** | **148** | **1** | **1** |

# HIGIENE- ETA DESINFEKZIOKO-ZERBITZUA

*DESINFEKZIO-PARKEA*

*Desinfekzio-parkeak arratoi-hiltze, desinfekzio, intsektu-kentze eta usain-kentze lanak egiten ditu lokaletan eta bide publikoan, ofizioz zein partikularrek eskatuta.*

*Desinfekzioak*

| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Desinfekzioak (partikularrak) | 18 | 11 | 14 | 9 | **8** |
| Santo Domingo azoka eta Zabalgunea | 102 | 104 | 104 | 100 | **102** |
| Bide publikoa | 1.949 | 2.663 | 2.432 | 1.991 | **1.875** |
| Hauteslekuak | Bide publikoan bilduriko datuak | | | 69 | **0** |
| Udal-egoitzak | Bide publikoan bilduriko datuak | | | 56 | **90** |
| **Zerbitzuak, guztira** | 2.069 | 2.778 | 2.550 | 2.225 | **2.075** |

Intsektuak hiltzea

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|---|
Deskribapena: esku-hartze taktikoen bidez bi noranzkoko bidegorri babestua egin da, Europa plaza eta Bake plaza elkar lotuz, Baiona etorbidea – Armada etorbidea ardatzaren bidez. Bake plazaren eta Sarasate pasealekuaren arteko loturarekin batera, 1.600 metroko distantzia lineala osatzen dute. Haren konfigurazioan, pintura, kautxuzko bereizgailuak eta bi koloretako oztopo-zutoinak erabiltzen dira, tarte zehatzaren arriskuaren arabera.

Gainera, saneamendu-sistemak birgaitu dira; autobus-geraleku aurreratuak, bidegorrira sartzeko arrapalak eta ertz-erretenak egin dira; Baiona etorbideko aparkaleku-lerroak, edukiontziak eta horiek mugatzen dituzten muga metalikoak lekuz aldatu dira. Armada etorbidean, zirkulaziorako errei bat galdu da Iturrama eta Donibanerako noranzkoan (Pio XII.erantz eta Baiona etorbiderantz), bertan bi noranzkoko bidegorria paratzeko, zeina paralelo baitoa Baluarte Biltzar Jauregi eta Auditoriumarekin mugakide den espaloiarekin.

Baiona etorbidean ere ibilgailu motordunendako zirkulazio-errei bat kendu da Europa plazaranzko norabidean. Bidegorriak espaloiari lotuta jarraitzen du Azueloko Monasterioaren plazaren ondoan, eta Baiona etorbidea gurutzatzen du, non aparkaleku-lerroa lekualdatzen baita, bidegorria espaloiaren eta aparkaleku-lerro horren artean utzita. Bidegorriak bi noranzkokoa izaten jarraitzen du, eta Europako plazaraino iritsiko da.

## GIPUZKOAKO ETORBIDEKO BIDEGORRIAREN LOTURA, TREN GELTOKIAREN ONDOAN

Aurrekontua: 25.356 euro.

Deskribapena: Buztintxuri eta Arrotxapea lotzen dituen bi noranzkoko bidegorriaren tarte berria eratzea, Gipuzkoako etorbidearen eta Trenbideko kalearen arteko bidegurutzera iristen den ziklista-bidea Nazario Carriquiri kalearekin lotuz. Azpiegitura berri honek Santa Engraziako bidegurutzea gainditzen du.

Bidegorri-tarte berria galtzadaren maila berean doa, 160 metro luze da eta 3 metro zabal ditu, eta metro erdiko babes-banda bat dauka gomazko bereizgailu eta oztopo-zutoinekin. Tarte horren hasieran eta amaieran ziklistendako pasabide bana eraiki dira, gorriz margotuta.

Bidegorri-trazadura berrian, bi tarte bereiz daitezke. Gipuzkoako etorbidearen eta Trenbideko kalearen arteko bidegurutzetik abiatzen dena galtzadaren eta Santa Engraziako etxebizitzen arteko bidean barna igarotzen da. Azpiegitura berria abiatzeko, debekatu egin da eremura ibilgailuekin sartzea, eta horri esker oinezkoen gune berri bat prestatu da. Bigarren tartea trenbidearen gaineko zubian barna doa, eta ibilgailuendako erreien zabalera murriztuz ezarri da.

## BIDEGORRIA NAVAS DE TOLOSA KALEAN

Aurrekontua: 9.226 euro

Deskribapena: Dagoen bidegorria egokitzeko eta osatzeko esku-hartzea, Basotxo ondoko hiri-garraioaren geralekuan ere jardunez. Bidegorriaren trazadura espaloiaren eta villavesaren plataforma handituaren ondoan kokatzen da. Hala, biribilgunetik datorren ziklistendako trazadurari jarraipena ematen zaio, Alde Zaharra eta Zabalguneak Pío XII.aren etorbidearekin lotzeko.

## OINEZKOEN PASABIDEEN IRISGARRITASUNA BERGAMÍN KALEAN

Aurrekontua: 7.061 euro.

Deskribapena: Proiektu pilotua Bergamín kaleko sei espaziotan, ikusgaitasuna handitzeko eta segurtasuna hobetzeko. Oinezkoen lau pasabide aldatu dira, kostu gutxiko esku-hartzeen bidez; inguruneko oinezkoendako azalera zabaldu da hiri-altzariz eta beste elementu batzuez egindako 'espaloiaurre' batzuen bidez. Halaber, oinezkoen pasabideak Mugikortasuneko ordenantzara egokitu dira. Pasabide horien ingurunean errepideko zirkulazioaren erreia 2,85 metrora estutu da, zirkulazioa baretzeko eta segurtasuna handitzeko. Hala ere, halako batean ibilgailuren batek zabalera handiagoa beharko balu, gutxienez 3,25 metroko zabalera erreala duen plataforma bat izanen du.

Eratutako azalera berriek berezko ezaugarriak dituzte: beste kolore bat, asfaltoarenaz bestelakoa eta espaloiarenaren antzekoa; 10 cm zabal dituen bide-marra zuri bikoitza jarduketa nabarmentzeko eta oinezkoendako espazioak irregularki okupatzea eragozteko elementuak.

## PONLE FRENO KOMUNIKAZIO-KANPAINA

Aurrekontua: 18.150 euro.

Deskribapena: Atresmedia komunikazio-enpresa trafiko-istripuen prebentziorako kanpaina baten buru da, "Ponle freno" izenekoa. Udalak kanpaina hori lagundu du irrati-iragarkien edukiak aldizka definituz. Iragarki horiek Onda Cero Iruña irratian grabatu eta egunero audientzia handieneko ordutegietan igorri dira.

## LABRIT ETA AMAIA KALEKO INGURUNEKO MUGIKORTASUNAREN AZTERKETA

Aurrekontua: 3.121 euro.

Deskribapena: Lau hilabetez zirkulazio-azterketa bat egin da Joan Labritekoaren eta Amaia kaleen inguruan, eta horretarako, matrikula-irakurgailuak dituzten 7 neurgailu instalatu dira. Sistema eguneko 24 orduetan aktibatuta egon da hainbat astez, eta radar teknologian oinarritzen da. Horri lotuta, matrikulak hautemateko kamerak erabili dira, datu horiek anonimoki landu eta zirkulazio-fluxua zehazte aldera.

Anteral enpresak egindako azterlanean lortutako emaitzak abiapuntutzat hartu dira Labriteko igarobide jasangarriaren proiektua egiteko.

## BIDEGORRIEN AUDITORETZA

Aurrekontua: 0 euro.

Deskribapena: Mugikortasun zerbitzuak hiriko bidegorrien egoerari buruzko auditoretza egin du 2020an. Antzemandako gorabeherak plano batera eraman eta garrantziaren arabera lehenetsi dira. Auditoretza hori "bizirik" dago, udal-teknikariek instalazioak ikuskatzen dituztelako. Herritarrek antzeman eta Udalari hainbat bideren bidez jakinarazitako gorabeherak berrikusteko balio du. Horrez gain, Udalaren bidegorrien sarean egin beharreko mantentze-lanetako esku-hartzeak gauzatzeko abiapuntu da tresna hori.diseinatuz eta gauzatuz.

## AZKEN MILIAKO BANAKETAREN PROIEKTU PILOTUA

Aurrekontua: 0 euro.

Deskribapena: Udalak lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuen Vectalia eta Correos Expressekin, Alde Zaharrean azken miliako banaketa jasangarriko sistemak ezartzeko proiektu pilotu bat garatu eta kudeatzeko, sistema iraunkorrak denboran zehar, eta, ahal izanez gero, udalerri osora zabaltzen ahal direnak. Helburua: CO2-ko isurketak murriztea eta pakete-banaketa jasangarriagoa lortzea. Irailaz geroztik, karga-moto elektriko bat arduratzen da Correos Express-en paketeak banatzeaz.

## BIZIKLETETARAKO APARKALEKU PUBLIKOEN SAREAA

Aurrekontua: 109.635 euro.

Deskribapena: Bizikleta sustatzeko, bizikleta-sare bat behar da, bai eta aparkaleku egokiak ere, bizikleta elektrikoak ere erabiltzen laguntzeko. Behar horri erantzunez, Udalak Bizikletetarako Aparkaleku Publikoen Sarea abiatu zuen; aparkaleku babestuak, seguruak eta txandakakoak dira, sarbide-kontrolarekin eta bideoz zainduak.

Lehenengo hiru moduluak instalatu egin ziren Zezen-plazan (Emilio Arrieta kalearen ondoan), Nafarroako Ospitalegunearen eremuan (Protomedicato plazan, lurpeko aparkalekuaren gainean) eta Arriurdiñeta plazan (Txantreako liburutegi publikoaren ondoan). Urtean zehar, sarea handitu eta hiru modulu berri jarri dira Liburutegi Nagusiaren inguruan (Ermitagaña auzoa), Iturramako Civivoxaren ondoan eta Autobus-geltokiaren ondoan.

Aparkalekuak aluminiozko egituraz eta polikarbonato gardeneko paramentuz eginak dira, eta argiztapen artifiziala dute. Aparkaleku bakoitzak 50 leku, bizikleta elektrikoetarako 2 kargagune adimentsu eta gurpiletarako puzgailu bat dauzka. 2020an, 12.000 lagunek baino gehiagok erabili zituzten udal-instalazio horiek.

## AUZOTARRENDAKO BIZIKLETA-APARKALEKUAK

Aurrekontua: 6.850 euro.

Deskribapena: 2017az geroztik, Iruñeko Udalak bost lokal egokitu ditu bizitegi-erabilerako bizikleta-aparkalekuak izateko, bizikletak etxeetan gordetzearen arazoa konpontzeko. 2020an, Alde Zaharrean beste lokal bat egokitu dute (San Anton kaleko 7an), 57 lekurekin. Apirilean 10 urteko erabilera-baimenak adjudikatu ziren auzoan erroldatutakoen artean, eta horrez gain, 100 lagun baino gehiagoko itxaron-zerrenda sortu zen. Aurten prezioa 60 €/urte eta 30 €/urte bitartekoa da (errenta-maila eta erabilera-modalitatea zein diren). Plazen adjudikaziodunek Biziz aplikazioaren bidez sar daitezke aparkalekura, edo atean markatzen den kodeaz edo larrialdietarako telefono baten bidez ere.

Intelligent Parking enpresak egiten du aparkaleku horien kudeaketa eta mantentzea, urteko zerbitzuak emateko kontratu baten bidez, eta ordainagiriak ANIMSA enpresa publikoak garatutako aplikazio baten bidez kobratzen dira.

## BIZIKLETAK APARKATZEKO EUSKARRIAK BIDE PUBLIKOAN EZARTZEKO PLANA

Aurrekontua: 18.150 euro.

Deskribapena: Urtero bezala, bide publikoan bizikletak aparkatzeko euskarriak ordezkatu eta kopurua handitu da, urteko ezarpen-plan baten arabera. 2020an, ikastetxe eta haur-eskoletako barrutietan bizikletak aparkatzeko 40 modulu paratu dira, "Universal" motakoak, 6 bizikletetarako tokiarekin. Modulua buruz behera jarritako hiru "U"-k osatzen dute, altzairu galvanizatuzko hodiz eginak dira, bi pletinek lotzen dituzte eta torlojuz ainguratzen dira zoruari.

Kokapenak aukeratzeko hiru aldagai hartu dira kontuan: Udaleko teknikarien ikuskaritza bidez ofizioz atzemandako beharrak asetzeari zuzendutakoak; Udal-lurzoruan kokatutako administrazioek, elkarteek, erakunde publikoek eta pribatuek Udalari egindako eskaerak, aztertu eta, hala badagokio, erantzun egiten direnak, eta espazio publikoan birmoldaketak egitea, non beharrezkoa baita euskarri horiek jartzea edo daudenak lekuz aldatzea.

## BIZIESKOLA HELDUENTZAT

Aurrekontua: 3.649 euro.

Deskribapena: 'Bizieskola helduentzat' prestakuntza-programa bat da, eguneroko joan-etorrietarako garraiobide gisa bizikletaren alde apustu egiten duten helduen kopurua sustatzera bideratua, eta bizikletan ibiltzen ikasi ez dutenei edo, jakinda ere, hirian barna ibiltzeko gaitasun edo konfiantza nahikoa ez dutenei zuzendua dago. Ikastaroak taldeka eta mailaka antolatzen dira. 2020an, irailean egin ziren lantegiak, Europako Mugikortasun Astearen barruan, eta 50 lagunek parte hartu zuten

## BIZIKLETA ESKOLAN

Aurrekontua: 38.150 euro.

Deskribapena: "Bizikleta Eskolan" hiriko ikastetxe guztiei zuzenduta dagoen prestakuntza-programa da, hala Lehen Hezkuntzan (5. eta 6. mailak) nola Bigarren Hezkuntzan (DBHko 1. eta 2. mailak). Esparru-akordio baten bidez garatzen da, zeinaren arabera bi enpresak lantegiak ematen baitituzte. Segurtasunez zirkulatzen eta bizikletak eta horien segurtasun-ekipoak egoera onean mantentzen irakatsi nahi da. Ikaskuntza hiru etapatan egiten da, bi etapa teorikotan eta hirugarren etapa praktiko batean, begiraleek gidatutako ibilbide baten bidez. 2019-2020ko ikasturtean 5 ikastetxek eta 400 ikaslek parte hartu dute guztiraaplikazio informatikoa.

## EUROPAKO MUGIKORTASUN ASTEA. EMA-2020

Aurrekontua: 4.383 euro.

Deskribapena: Iruñeko Udalak bat egin du Europako Batzordearen '2020ko Europako Mugikortasun Astea' (EMA-2020) kanpainarekin. Aurten irailaren 16tik 22ra garatu da, "Mobility with Cero Emissions" ("Isurketarik gabeko mugikortasuna") lelopean.

Trantsizio Ekologikoko Ministerioak Iruña aintzatetsi du, Espainiako Mugikortasun Asteko Idazkaritzaren bidez. Idazkaritza horrek Espainiako hirietako kanpainak kudeatzen ditu eta 'Espainiako Mugikortasun Astea' sariak deitzen ditu, urtean egindako mugikortasunaren kudeaketa nabarmena izan eta neurri iraunkorren bidez frogatu duten Espainiako udalerriak saritzeko.

EMA-2020an garatutako jarduerek ardatz izan dute Udalak ezarritako mugikortasun-azpiegiturak eta -zerbitzuak ezagutaraztea eta balioestea, etorkizunean horien erabilera areagotzeko. Orotara, 1.000 lagun inguruk parte hartu dute jarduaretan.

Gazteluko plazan argibidegunea jarri zen, eta horrez gain, Ciclos Martín enpresak bizikleten doako prebentzio-azterketak egin zituen; ibilaldi gidatuak egin ziren bizikleta sarean AMTS elkartearen eskutik, bidegorri berrietan eta esku-hartze taktikoetan zehar ibiliz; helduek bizikletan segurtasunez ibiltzen ikasteko ikastaroak; bi bizikleta-ibilbide kultural (Alde Zaharreko, Donibaneko eta Mendebaldeako hiri-baratzeak, eta hiriko parkeak); ate irekien jardunaldiak deitu ziren Bizikletetarako Aparkaleku Sarean, eta horiei buruzko dibulgazio-kanpaina egin zen.

Hitzaldiak, mahai-inguruak eta hainbat erakusketa egin ziren (Conor Bikes markako bizikleta elektrikoak eta hiri-bizikleta konbentzionalak, bilduma partikular bateko bizikleta-modeloak eta %100 elektrikoak diren ibilgailuak). Halaber, hirian mugikortasunari buruz egin diren hirigintzako esku-hartzeetara bisita gidatuak egin ziren, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoarekin (EHAEO) eta auzo-elkarteekin elkarlanean.

# JASANGARRITASUNA

## IRUÑEKO UDALEKO ENERGIA-AGENTZIA (IUEA)

Aurten hiriko Energiari buruzko Diagnostikoa egin da, eta Energia Trantsizio eta Klima Aldaketarako 2030 Estrategia lantzen hasi dira, ohiko jarduera alde batera utzi gabe: barne- zein kanpo-aholkularitza herritarrentzat, hiri-sareetan parte hartzea energiaren alorrean, Europako proiektuetan eta hainbat sentsibilizazio-ekitaldi eta -jardunalditan parte hartzea. Kontabilizatutako diru-sarrerak Udalaren instalazio fotovoltaikoek (FV) sortutako energiaren salmentatik datoz, modalitate honetan legalizatutako FV instalazioetan zuzeneko autokontsumoen bidez aurreztutako energiatik eta Europako proiektuek emandako finantzaziotik.

### ENERGIA-TRANTSIZIORAKO ESTRATEGIA

Aurrekontua: 40.553 euro.

Deskribapena: 2020an hasi da 2030erako Energia Trantsizio eta Klima Aldaketarako Estrategiaren garapena. Lan hori Iruñeko 2030erako Hiri Plan Estrategikoaren 1. dimentsioaren barruan sartzen da (‘Iruña berdea, ekologikoa eta klimarekin engaiatua’). Energia-trantsizioak inpaktua eduki dezake bai Udalaren beste ekintza-ildo batzuetan bai Iruñeak 2030erako jarrita dituen Garapen Jasangarriko helburu askotan.

### UDAL-INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAK

Aurrekontua: 0 €

Deskribapena: Funtsezkoa da Udalaren energia-eskariari ikuspuntu holistiko batetik heltzea, eta Iruñeko Udaleko Energia Agentzia lanean aritu da urtean zehar ikuspuntu mota hori izaten hasteko eta horren gaineko segimendua zuzen egiteko bitartekoak eskuratzeko. Jarraian 2020ko datu errealak aurkezten dira Udalaren energia-eskariari dagokionez (kWh eta €-tan):

Udalak, besteak beste, energia-kontrol eta kudeaketako tresna hauek ditu behar horiek asetzeko:

- Arelsa, Argiteria Publikoaren kontrola
- TREND Energy Manager, eraikinetarako
- Eguzkiko instalazio foltovoltaikoak, inbertsore fabrikatzaileen teknologiaz

Eta Agentziak iturri horiek guztiak Energia Kudeaketako goi-geruza batean batu ditu, bertan konpainia elektrikoaren kontagailu fiskalak ere txertatuta; horrela, Hiria Plataforma sortzeko lehen urratsak eman dira. Hura tresna garrantzitsuenetako bat izanen baita Iruña benetako Smart City bilakatu dadin.







## KLIMA ETA ENERGIAREN ALDEKO ALKATEEN ITUNAREKIN BAT EGITEA

Aurrekontua: 0 euro.

Deskribapena: 2020an Udalak berritu egin zuen Iruñeak sinatutako Klima eta Energiaren aldeko Alkateen Ituna, eta konpromisoa hartu zuen "CO2 isurketak (eta, ziur aski, berotegi-efektuko beste gas-isurketa batzuk) gutxienez % 40 murrizteko, hemendik 2030era bitarte, bereziki energia-eraginkortasuna hobetuz eta energia-iturri berriztagarriak gehiago erabiliz", eta "erresilientzia areagotzeko klima-aldaketaren ondorioetara egokituz".

Iruñeak aurreikusitako sekuentzia honako hau da: erreferentziazko isurketen inbentarioa eta klima-aldaketaren ondoriozko arriskuen eta kalteberatasunen ebaluazioa egitea; Klimaren eta Energia Jasangarrirako Ekintza Plana aurkeztea bi urteko epean, Udalak erabakia hartu zuenetik hasita, eta egoera-txosten bat aurkeztea, gutxienez bi urtean behin, Ekintza Plana aurkezten denetik aurrera, ebaluazioa, jarraipena eta kontrola egiteko.

## UDAL-INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAK

Aurrekontua: 7.843 euro.

Deskribapena: Iruñeko Udaleko Energia Agentziak Udalaren 31 instalazioen jarraipen teknikoa egiten du hilero, funtzionamendu egokia dutela ziurtatzeko. 2020an, segimendua egiterakoan, mantentze-operazio batzuk egin dituzte, akatsak eta matxurak konpontzeko inbertsoreetan, panel didaktikoetan, fusible-kutxetan edo panel fotovoltaikoetan. Udalak 411 kW-ko potentzia instalatua du.Jasangarrirako Ekintza Plana aurkeztea bi urteko epean, Udalak erabakia hartu zuenetik hasita, eta egoera-txosten bat aurkeztea, gutxienez bi urtean behin, Ekintza Plana aurkezten denetik aurrera, ebaluazioa, jarraipena eta kontrola egiteko.




## EGUZKI-MAPA

Aurrekontua: 18.150 euro.

Deskribapena: Aurten Iruñeko Udala eta Nafarroako Unibertsitatea hiriko eguzki-mapa prestatzen hasi dira. Hiriak eguzki-energia fotovoltaikoa (elektrikoa) eta eguzki-energia termikoa sortzeko duen ahalmenaren azterketa da, jasotako eguzki-erradiazioaren arabera.

Mapak oinarrizko informazioa eskainiko du instalazioaren amortizazioa aztertzeko; izan ere, kontsumo indibiduala teilatu bakoitzean ekoiztu daitekeen energiarekin parekatzeko aukera ematen du, eta, beraz, pizgarri bat izan daiteke sektore horretan inbertsio pribatua mobilizatzeko eta energia-trantsiziorantz aurrerapausoak emateko. Tresna horri esker mapa osagarriak egiteko jarraibideak ezartzen ahalko dira, horien bidez erosotasun termikoko arazoak izan ditzaketen kanpo-eremuak identifikatzeko.

## LAGUNTZAK AUTOKONTSUMOKO INSTALAZIOETARAKO

Aurrekontua: 20.000 euro.

Deskribapena: Udalak autokontsumorako energia elektriko fotovoltaikoa sortzeko instalazioetan egindako inbertsioak diruz laguntzeko deialdia deitu du, 20.000 euroz hornituta eta inbertsioetara zuzendua, bai familia bakarreko etxebizitzetan (banakako autokontsumoa), bai auzotarren komunitateetan (banakako autokontsumoa edo partekatua). Laguntza jasotzeko mugaeguna urriaren 30a da, eta lehenengo aldiz aurrekontu-partidaren % 100 banatu da.

## AUTOBUS-GELTOKIKO INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOA - FOTOLINERA

Aurrekontua: 165.072 euro.

Deskribapena: Udalak mikrosare adimentsu bat instalatu du autobus-geltokian, honako hauez osatua: auto elektrikoak kargatzeko gune bat –eraikinaren estalkian paratutako eguzki-panelen energiaz hornitua–, bigarren bizitzako bateriekin egindako metatze-sistema bat eta elementu horiek guztiak kontrolatzeko sistema bat. Hiriko instalaziorik handiena da, 100 kW-eko potentziarekin.

Ibilgailu elektriko bidezko mugikortasun-eredu berriarentzako euskarri bat da, bereziki garraio publikoarentzako. Izan ere, fotolinera lurpean instalatu da (-1. solairuan), taxi-geralekuaren ondoan. 500 m2-ko estalkian 400 Wp-ko 270 panel fotovoltaiko daude. Energia kargagunera heltzea kudeatzeko sistemak honako hauek ditu: konexio elementuak, fluxuen komunikazio eta bateragarritasuna bermatuko duen kudeatzaile bat, inbertsore bat, bateria-inbertsore trifasiko bat eta kargagailu bat. Gehieneko karga-potentzia DC-n 50 kW izanen da. Kargagailu azkarrak kontrol dinamikoko sistema bat du, gehieneko karga-potentzia ahalik eta handiena izan dadin hargune bakoitzean, modu dinamikoan eta denbora errealean.

Instalazioak inpaktu bisuala ahalik eta gehien murriztu nahi du. Proiektuaren xedea jasangarritasuna bultzatzea da, eta horrekin koherente izateari eusteko asmoz, euskarri-egiturak, ekipamendu elektronikoak eta bigarren bizitzako bateriak ekoiztu dituztenak Espainia iparraldekoak izan dira, horrela instalazioa eraikitzean karbono-aztarna ahalik eta txikiena izan dadin.

## UDAL-ERAIKINEI LOTUTAKO KARGA-ZUTOINAK

Aurrekontua: 32.700 euro.

Deskribapena: Bi kargagune bikoitz instalatu dira Sanduzelaiko Civivoxaren ondoan (Gortari Doktorearen kalean) eta Buztintxuri ikastetxe publikoaren ondoan (Víctor Eusa kalean). Azken puntu hori ondoko eraikinetik elikatzen da, eta bestea, berriz, nola gehitu aztertzen ari dira.

## BARNE-AHOLKULARITZA

Aurrekontua: 0 euro.

2020an, honako entitate eta lan hauekin aritu izan da elkarlanean:

- Gayarre antzokia. Energia elektrikoa kontratatzeko aholkularitza.
- Comiruña. Horniduren kontratu-baldintzak berrikustea.
- Kirolak. Instalazioen azterketa eta ESE auditoretzari buruzko aholkularitza espezifikoa.
- Gizarte Ekintza. Aholkularitza pobrezia energetikoaren arloan.
- Mugikortasuna. Ibilgailuak kargatzeko zutoinen egoera aztertzea eta bilerak egitea hornitzaile izan litezkeenekin.
- Estrategia Bulegoa. 2030 Hiri Plan Estrategikoa eta Europako beste proiektu batzuk garatzeko mahaietan parte hartzea.
- Proiektu Estrategikoak. Exekuzio-proiektuen erredakzioan aritzea, zero energia-kontsumoaren, berriztagarriak txertatzearen eta energia-kudeaketaren ikuspuntutik abiatuta, eta Nasuvinsak Passivhaus etxebizitzetara egindako bisiten koordinazioa.

- Haur Eskolak. Printzearen Harresiko geotermia bidezko klimatizazioa eraldatzen eta haren funtzionamenduan laguntzea.
- Hirigintza Gerentzia. Hornidura elektrikoa optimizatzea: tarifei buruzko aholkularitza, kontratazioa eta kontsumoa optimizatzea kondentsadoreen baterien bidez.
- Iruña Biziberritzen (PCH). Kale Nagusiko 59. zenbakian gas naturalaren horniduraren titulartasuna aldatzeko laguntza.
- Hirigintza Gerentzia. Hornidura elektrikoa optimizatzea: tarifei buruzko aholkularitza, kontratazioa eta kontsumoa optimizatzea kondentsadoreen baterien bidez.
- Iruña Biziberritzen (PCH). Kale Nagusiko 59. zenbakian gas naturalaren horniduraren titulartasuna aldatzeko laguntza.

## KANPO-AHOLKULARITZA

Aurrekontua: 0 euro.

Deskribapena: Iruñeko Udaleko Energia Agentzia erreferentziazko aholku-emailea da hiriko herritarrentzat eta enpresentzat. Hortaz, halako kontsultak jasotzen ditu. 2020an 97 kontsultari erantzun die; horietatik % 65 baino gehiago partikularrek egiten dituzte, % 27 enpresek eta gainerako % 8a beste administrazio batzuek. Edukien eta garrantziaren arabera, autokontsumorako laguntzak, bestelako laguntzak eta energia berriztagarrien aukerak hirian izan dira gaiak.

## HIRIEN EDO ERAKUNDEEN ENERGIA-SAREAK

Aurrekontua: 3.500 euro

Deskribapena: Iruñeko Energia Agentziak zenbait hiri-saretan parte hartzen du, bai Espainia mailan, bai nazioartean. 2020an bereziki bitan jarduten du:

ENERAGENekin lankidetzan aritu da sarien hedapenean eta sarietarako hautagaiak hautatzen, eta http://www.autoconsumoaldetalle.es/ webgunearen mantentze-lanetan, jatorri berriztagarriko elektrizitatearen autokontsumoa sustatu eta bultzatzeko. Horrez gain, aktiboki parte hartu du organo kudeatzailean eta hainbat lantaldetan.

ENERGY-CITIES,  sareko hainbat teknikaririrekin aritu da lankidetzan, Agentziak abian dituen proiektuen balioa nabarmentzeko: energia merkaturatzeko udal-proiektua, energia-pobreziaren jarraipena, udal-instalazioekin energia berriztagarria sortzea, autokontsumoa bultzatzea...

## EUROPAKO PROIEKTUAK

2020an Iruñeko Udalak jasangarritasunari lotutako Europako proiektuen esparruan jarraitu du, hala nola STARDUST (energia-eraginkortasun orokorrari buruz), POTENT (agintari publikoek ematen dituzten energia-zerbitzuen hobekuntza) eta MPOWER (energia berriztagarriak), eta zeregin hori Udalaren Estrategia Bulegoarekin elkarlanean garatzen du.

### EUROPAKO PROIEKTUAK

Aurrekontua: 0 euro.

Iruñeko Udaleko Energia Agentzia eta Estrategia Bulegoa hizlari gisa aritu dira honako hauetan: Energia eta autokontsumoari buruzko jardunaldian (urtarrila, Ingurumen Hezkuntzako Museoa, Iruña), Autokontsumoari buruzko Nafarroako II. Kongresuan (urria, Nafarroako Industri Ingeniarien Elkargo Ofiziala eta Nafarroako Industria Fundazioa) eta Civivox sareko zentroetan argindarraren fakturari buruz egindako hainbat saiotan.

## IRUÑEKO TOKIKO AGENDA 21

### ADIERAZLEAK EGUNERATZEA

Aurrekontua: 0 euro.

Deskribapena: Iruñeko Tokiko Agenda 21ek 14 jasangarritasun-adierazleko sistema bat dauka. Hasiera batean Iruñeko Agenda 21eko Foroan hautatuak eta 2012an aldatuak, hasierako zenbait adierazleri buruzko informazioa ezin zenez eskuratu, 2020an horiek bazter uztea erabaki da eta informazioa eskuratzea bideragarria den adierazle horiek eguneratzen jarraitzea.

Tokiko Agenda 21eko adierazleak

- Biztanleriaren zahartzea
- Pobrezia
- Okupatu gabeko etxebizitzak
- Biztanleria aktiboa
- Dibertsifikazio ekonomikoa
- Ur-kontsumoa
- Energia-kontsumoa
- Energia berriztagarrien ekoizpena
- Hondakinen sorrera
- Airearen kalitatea
- Soinu-kutsadura
- Klima-aldaketa
- Aztarna ekologikoa
- Ingurumen-hezkuntza

## ETXABAKOITZEKO BARATZE ILEGALAK KENTZEA

Aurrekontua: 30.946 euro.

Deskribapena: 2020. urtearen amaieran, hogei bat baratze utzarazi dira Ipar Etxabakoitz eta Hego Etxabakoitzen arteko mendi-hegalean eta eremu horiek lotzen dituen bidean, bai eta jabetza publiko eta pribatuko hainbat lurzati ere, Elortz ibaiaren eskuinaldean. 25.000 euro kostatu da hondakinak kendu eta zabortegira eramatea.

Lurra prestatu da 100 zuhaitz autoktono —haritz ilaunduna, artea, intxaurrondoa, urkia, lizarra, haltza, zumarra, pikondoa— eta ia mila zuhaixka landatzeko, auzoko eremuak lotzeko eta ibai-parkerako sarbidea errazteko. Lehengoratze-lanek 15.946 euro jo dute. Trantsizio Ekologikoaren eta Erronka Demografikoaren Ministerioak eman ditu zumarrak, espeziearen epe luzeko biziraupena bermatzeko hobekuntza-programaren barruan, grafiosiak sortutako arazoaren ondoren.

## AIREAREN KALITATEAREN ESTAZIOA LEKUALDATZEA

Aurrekontua: 0 euro.

Deskribapena: Nafarroako Gobernuaren airearen kalitatearen estazioa Gurutzeko plazatik Felisa Munarriz plazara lekualdatzeak xede du zirkulazioak airearen kalitatean duen eragina neurtzea hiriko sarrera nagusietako baten ondoan dagoen ingurunean. Udaleko zerbitzuek hura lekuz aldatzen lagundu dute estazioarendako kokapenik egokiena definituz eta obra zibila koordinatuz Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean.

## HIRI-BARATZE KOMUNITARIOAK

Aurrekontua: 6.101 euro.

Deskribapena: Hiri-baratze komunitarioetan egiten den hiri-nekazaritzak lotura du autogestioarekin, tokiko garapenarekin, ingurune degradatuen hobekuntzarekin, gizarteratzearekin, komunitatearen indartzearekin eta ingurumen-hezkuntzarekin; horretaz gain, hiriak jasangarriago egiten ditu eta biodibertsitatea babesten du. Inguruko ingurumen-kalitatea hobetzen dute (klima-aldaketa murrizten laguntzen dute, karbono dioxidoaren hustuleku gisa), zero kilometro arauan oinarritutako produktuak ekoizten dituzte eta auzotarren arteko harremanak sustatzen dituzte. Udalak baratze bakoitzarendako beharrezko baliabide ekonomikoak eskaintzen ditu.

Gaur egun Iruñean 5 hiri-baratze komunitario daude, auzoetako elkarteek kudeatuta. Arrotxapea (Mendialdea elkartea), Txantrea (Krispilak elkartea), Alde Zaharra (Piparrika elkartea), Mendebaldea (Ermitaldea elkartea) eta Donibane (San Juan Xar elkartea).

## HEGAZTIAK IRUÑEAN

**Aurrekontua: 2.999,95 €.** 2019an, Ornitolanen eskutik, hegazti arrunten populazioaren tamainari buruzko azterlanaren bertze edizio bat egin da, bizi-kalitatea eta garapenaren jasangarritasuna neurtzeko adierazle nagusietako bat den aldetik (SEO/BirdLife, 2010). 57 hegazti-espezie detektatu dira; 2017an ikusitakoak (61) baino gutxiago badira ere, urte hauetan detektatutako kopuruen artean bigarren tokian dago aurtengoa aurkitutako espezie-aniztasunari dagokionez. Aurten egindako transektuetan (aurrez diseinatutako ibilbideak), 55 espezietako 1.808 hegazti ikusi dira, horietatik 27 ez zeuden maila espezifikoan identifikaturik.

## GAU-SAGUZAR ERTAINAREN URTEROKO BERRIKUSPENA

Aurrekontua: 2.360 euro.

Deskribapena: Gau-saguzar ertaina (Nyctalus noctula) saguzar handia da, migratzailea eta zuhaiztarra. Iberiar penintsulan, 6 talde txiki baino ez dira aurkitu, horietako bat, Iruñean. Azken hamarkadetan 45 babes-zuhaitz desagertu dira, eta horrek berekin ekarri du espeziea gutxienez Iruñeko 9 gunetatik desagertzea. Amaia kluba, Caparrosoren errota, Larrainako aldapa, Sanduzelai, Gaztelugibel, Vistabella parkea, Basotxoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko campusa eta Lezkairuko zaldua.

2000. urtean hasi ziren babes-kutxak jartzen gau-saguzarrentzat Iruñeko parkeetan. 2020an 37 babes-kutxa berrikusi ziren (% 49 beteta zeuden). Bost berrikuspenetan, 17 ale ikusi dira gehienez. Lan horietan aurkitutako espezieak identifikatu, erabili gabeko kutxak birkokatu eta hondatutakoak kentzen dira. Halaber, Iruñeko parke nagusiak berrikusten dira (NUP eta UNAVeko campusak, Miluze-Biritxitu, Basotxoa, Caparrosoren errota), non gau-saguzarren berri izan baita bertako zuhaitzetan, babes naturala ematen dieten zuhaitzak identifikatzen saiatzeko.

## UR-ARRATOIA EDO LURSAGUA MENDILLORRIKO LAKUAN

Aurrekontua: 2.265 euro

Deskribapena: Mendillorriko lakuan ur-arratoia agertzeak kezka sortu zuen bizilagunen artean. Espezie hori kaltebera gisa katalogatuta dago. Espeziea eta lakuaren ingurumen balioak ezagutarazteko inguruaren seinaleak berrikusi ziren eta beste bi eduki sortu ziren: bata ur-bazterraren birnaturalizazioari buruzkoa, eta bestea espezie horri buruzkoa. Ibilbidearen bost panelen diseinua eta kartelak koordinatu ziren, non zuhaitz eta zuhaixken 10 espezie identifikatzen baitira. Irailean instalatu ondoren, ibilbide gidatua antolatu zen lakuan barna.

## ESPEZIE EXOTIKOAK LAKUETAN

Aurrekontua: 0 euro.

Deskribapena: 2020an, espezie exotikoei buruzko jarduerek karramarro amerikarra (Procambarus clarkii) hartzen dute ardatz, Ziudadelako Lubanarroetako eta Gazteluko plazako espezie exotiko eta inbaditzailea baita.

Hilero (abuztutik azarora) ikuskatzen dira putzu eta hobiak, eta karramarro hilak (22) zein biziak (9) aurkitzen dira. Datuak Bide-garbiketako Zerbitzuari helarazten zaizkio, handik kendu ditzan. Lanak egitean, txantxikuen kumeak eta txipak (ziprinidoa) daudela egiaztatu da.

## DRAINATZE-JASANGARRIKO HIRI-SISTEMA

Aurrekontua: 6.124 euro.

Deskribapena: Hirien iragazgaizteak eragiten du euri-ura teilatuetatik, kaleetatik eta espaloietatik igarotzea urak biltzeko sistema tradizionaletara heldu arte, eta bertatik isuriak tratatzeko instalazioetara edo ibaira bideratzea. Euri-lorategiek jariatze-ura jaso, iragazi eta infiltratzen dute, akuiferoak kargatuz eta gehienezko emaria erregulatuz. Lorategia estaltzen duten landareek faunarendako babesleku eta elikagaiak ekartzen dituzte, eta ikusten ditugunendako, gozamena.

2020an, oinezkoendako lehen pasabide iragazkorraren sistema egin zen, Ugaldeko Andre Maria kalean. Oinezkoendako pasabideen aurreko 5 metroetan jartzen denez, galtzada estutuz, oinezkoendako ibilbideak hobetzen dira eta trafikoa baretzen da.

### HONDAKINEN PREBENTZIO-PLANA ARMADA ETORBIDEKO UDAL-ERAIKINEAN

Aurrekontua: 364 euro.

Deskribapena: Armada etorbideko 9. solairuko bulegoetan 4 frakzioko 2 edukiontzi jarri dira, eta dosier bat prestatu da udal-eraikinetako hondakinak kudeatzeko planaren barruan bulegoan sortzen diren hondakinekin. Langileei horiek erabiltzeko moduari buruzko informazioa eman zaie.

### HONDAKINEN PREBENTZIO-PLANA HAUR-ESKOLETAN

Aurrekontua: 150 euro.

Deskribapena: Iruñeko 11 haur-eskolek elikagai ekologikoak erosteko programa bat diseinatu dute, hondakin organikoak eta gertukoak gutxitzen dituena, ontzi berrerabilgarriekin, elikagaien zero hondakin lortzeko bidean. Garbiketa-produktuak erosteko irizpidea ere aldatu da, arlo horretako hondakinak minimizatzeko.

Planaren barruan, sortutako zaborra aztertzen da, eta hondakinak bereizi eta bereizita biltegiratzea antolatzen da, organikoak (guztizkoaren % 50) bosgarren edukiontzira joan daitezen bermatzeko.

### HONDAKINEN PREBENTZIO-PLANA ZENTRO KOMUNITARIOETAN

Aurrekontua: 0 euro.

Deskribapena: Txantreako Udalaren zentro komunitarioa aztertzen da, antzeko tipologia duten 24 zentro komunitarioetarako kudeaketa-plan bat garatzeko oinarri gisa. Gela bakoitzean papererako, ontzietarako, errefusarako eta organikorako edukiontziak jartzea proposatzen da, horiei lotutako kartelekin batera.

### HEGAZTIAK IRUÑEAN

Aurrekontua: 2.990 euro.

Deskribapena: Urtero, maiatzaren erdialdean udalerrian ugaltzen diren hegaztiei buruzko azterlan bat egiten da (migratzaileak eta egoiliarrak). Trantsektuaren metodologia erabili eta auzo guztietan garatzen da.

2020an 55 espezie desberdinetako 1.958 hegazti zenbatu dira. Taconerak eta Arantzadik dute espezie-barietate handiena, 21 espezierekin. Ale kopuruari dagokionez, Magdalena nabarmentzen da (292), eta haren atzetik, Gaztelugibel (177). Espezie ugariena haitz-usoa da (523 ale). Ondoren etxe-txolarrea (324) eta sorbeltz arrunta (286) datoz.

# INGURUMEN-HEZKUNTZA

## INGURUMEN-HEZKUNTZAKO ZERBITZUA

Aurrekontua: 0 euro.

Deskribapena: Ingurumen-hezkuntzako Zerbitzuak hiru lan-ildotara bideratzen du bere esku-hartzea: Ingurumen-hezkuntza ikastetxeetan, ingurumen-hezkuntza herritarrentzat eta ingurumen-hezkuntza Udalean. Esparru horretan, 2020an, 15 programa edo ingurumen-hezkuntzarako proiektu garatu ditu, non 9.467 lagunek parte hartu baitute aurrez aurre; horrez gain, beste 2.220k materialak deskargatu, onlineko proposamenetan parte hartu edo Ecozineko laburmetraiak ikusi dituzte (ikus COVID-19).

Jarduera orokor horiez gain, zerbitzuak unean uneko jarduerak egiten ditu eta/edo hainbat entitaterekin lankidetzan aritzen da.

## «JASANGARRITASUNA LANTZEN ELKARREKIN» PROGRAMA

Aurrekontua: 11.837 euro.

Deskribapena: Ingurumen Hezkuntzako Museoak garatutako programa, haur hezkuntzatik unibertsitateko irakaskuntzara bitarteko ikastetxeei zuzendua. 2020an, ohikoak ez diren ekintzak garatzen dira, eta batez beste talde bakoitzeko parte-hartzaile gutxiago daude (ikus COVID-19).

2020-2021eko proposamena lantzen da, honako hauez osatua: unean uneko jarduera dinamizatuen programa, onlineko proiektuak, Natura sentitu programa, Maleta ibiltariak eta Museoa zeureganatu.

## NATURA SENTITZEA HEZKUNTZA-PROGRAMA

Aurrekontua: 7.260 euro.

Deskribapena: Natura sentitu proiektua sortzen da hezkuntza arloko esku-hartzea konfinamenduaren ondorengo gizarte premiara egokitzeko, hiriko naturarekin berriz ere konektatzeko. Haur eta Lehen Hezkuntzako 46 taldetako 581 parte-hartzaile izan zituen, eta udazkenean egin zen.

## ESKOLA-BARATZEEN HEZKUNTZA-PROGRAMA

Aurrekontua: 7.020 euro.

Deskribapena: 2020an proiektuak aurrera jarraitzen du 2020-2021eko ikasturtean, 5 ikastetxerekin (Doña Mayor IP, García Galdeano IP, Amaiur IP, Mendigoiti IP eta Mendillorri IP). 2.798 ikaslek eta 260 irakaslek parte hartzen dute (ikus COVID-19).

## IRAKASLEENDAKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMA

Aurrekontua: 0 euro.

Deskribapena: prestakuntza eskola-baratzeetan eta klima-aldaketan. 2019-2020ko ikasturtean garatzen dira Baratze-eskolako prestakuntza ikastaroak (gaztelaniaz) eta Klima-aldaketakoak (euskaraz). 2020ko irailean hezkuntza-eskaintza berria egin zen, osasun-neurrietara egokitua.

- Baratze-eskoletako prestakuntza ikastaroa: 2 saio online eta 2020-2021eko ikasturtean zehar norberak egin beharreko 9 etxeko lan.
- Klima-aldaketako prestakuntza ikastaro erdipresentziala: aurrez aurreko 2 saio eta onlineko 2, 2020-2021eko ikasturteko 2. hiruhilekoan zehar garatzeko

## PLANETA DANTZAN PROGRAMA

Aurrekontua: 5.524 euro. Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdearen deialdiek finantzatua.

Deskribapena: Ingurumen Hezkuntzako Lantaldeak Sirenas- Itsas Laminak–Sirènes programa garatu du Miarritzeko Malandain baletarekin eta Donostiako Cristina Enea fundazioarekin batera 2018-2019 eta 2019-2020ko ikasturteetan zehar.

2020-2021eko deialdian Planeta Dantzan izena eman zitzaion proiektuari, modu globalagoan diseinatzen baita, eta Euroeskualdearekin batera lankidetza estrategikoa lortu zen, 3 urterako finantzaketarekin. Proiektua 2020ko urriaren erdialdean sinatu zen. Hasierako ibilbide pedagogikoa mantendu egiten da, baina beste ekintza batzuk ere gehitzen dira, hala nola erakusketa bat eta dokumental bat Malandain Baletaren ikuskizunaren proiektuari buruz, "Fossile", ingurumen-krisiari buruzkoa.

Parte hartzen duten hirietako bakoitzean (Biarritz, Donostia eta Iruña), Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko 15 taldek, gehienez ere, eginen dute ibilbide pedagogiko hau. Iruñean 282 ikaslek eta 3 irakaslek parte hartzen dute.

## XAHUTZEAREN AURKAKO EKINTZA PROGRAMA

Aurrekontua: 26.146 euro.

Deskribapena: 2020an, erakunde bat kontratatzeko prozesuari ekin zitzaion, energiaren arloko gamifikazio-tresna bat egiteko, Stardust proiektuaren esparruan, zeina Udaleko Estrategia Bulegoak kudeatzen baitu. Ikastetxeei zuzendutako tresna horren helburua da CO2 isurpenak murriztea, larrialdi klimatikoaren ondorioz trantsizio ekologiko baterantz joanez. Programa 2021etik aurrera gauzatuko da.

## JASANGARRITASUN-ESKOLAREN PROGRAMA

**Aurrekontua: 10.479,38 €.** 2019ko maiatzean, Golem Baiona aretoetan, topaketa honen bigarren edizioa egin da Iruñean (Zaragozan 12 urtez jarraian egindako jaialdia). Zinema-jaialdiko Gazte Atala Bigarren Hezkuntzako ikasleak ingurumenaz sentsibilizatzeko espazio bat da, eta ikus-entzunezko lanak baliatzen dira horretarako. Atal hau Civivox Iturraman egin da, eta bertan 497 ikaslek parte hartu dute.

| Jarduerak | Jarduera kop | Parte-hartzaile kop. |
|---|---|---|
| Hitzaldiak, lantegiak, familiarteko irteerak, etab. | 43 | 724 |
| Dirurik gabeko truke-azoka txikia | 9 | 305 |
| Jostailuen azoka txikia | 4 | 106 |
| Bisitaldia aldi baterako erakusketetara | 8 | 627 |
| Antolatutako taldeendako jarduerak eta urtaroko jarduerak | 21 | 284 |
| Ingurumen-gai ezberdinei buruzko baliabideak newsletter-aren bitartez (konfinamenduan) | | 348 sarrera materialetara |
| Herritarrendako erronkak newsletter-aren bidez (konfinamenduan) | | 70 proposamen |
| GUZTIRA | 86 | 2.033 |

## IRUÑA BERDEA DA PROGRAMA

Aurrekontua: 2.281 euro.

Deskribapena: Irailaren 15etik azaroaren 21era, Ingurumen Hezkuntzako, Kulturako eta Turismoko udal-zerbitzuen arteko ekintzak koordinatzen dituen programa bat garatzen da.

- Ornitologiari buruzko herritarren zientzia (3 saio: 2 prestakuntzakoak eta 1 behaketa-irteera).
- Udazkeneko sendabelarrei buruzko lantegia (2 saio).
- Ezagutu dezagun Taconera familiartean.
- Bizikleta-ibilaldia Iruñeko baratze komunitarioetan barna.
- Ibilbidea Ezkaban barna, hurbilekoaren balioa.
- Argaren sekretuak familiartean.
- Baratze-lantegi praktikoa (Piparrika baratzea).
- Arantzadi: Baratzea eta tradizioa.

- Iruñeko zuhaitz zahar eta bereziak bizikletan.
- Natura sentitu: behatu, sortu eta sentitu artearen bidez.
- Natura eta sormena familiartean.
- Aintzira baten balioa (Mendillorriko aintzira).
- Ziudadela eta Gaztelugibel
- Yamaguchi eta Galaxiaren Lorategia.
- Media Luna parkea

## KLIMA-EKINTZARAKO LANTALDEA PROGRAMA

Aurrekontua: 0 euro.

Deskribapena: Iruñeko Udaleko Ingurumen Hezkuntzako lantaldeak konpromisoa hartu zuen 2020ko urria eta 2021eko maiatza bitartean hileko topaketa batean egungo gizarteak klima-erronkari aurre egiteko dituen moduak jorratzeko, trantsizio ekologikoaren bidez. Lantaldea 15 parte-hartzailerekin hasi zen, osasun-egoerak edukiera murrizten zuelako

## BISITA PARTIKULARREN PROGRAMA

Aurrekontua: 0 euro.

Deskribapena: Ingurumen Hezkuntzako Museoak bisitariei aurrez aurre arreta emateko zerbitzua eskaintzen du, bai kontsultak egiteko, bai espazioaren erakusketa iraunkorra bisitatzeko. 2020an 745 bisitari joan ziren Ingurumen Hezkuntzako Museora, % 76 kontsultetarako eta % 24 erakusketa bisitatzera.

## ESPAZIOAK LAGATZEKO PROGRAMA

Aurrekontua: 0 euro.

Deskribapena: Ingurumen Hezkuntzako Museoak jarduerak egiteko espazioak lagatzen dizkie Udaleko berezko zerbitzuei eta talde eta/edo kolektibo antolatuei. 2020an, 60 lagapen egin ziren, eta horietan 691 lagunek hartu zuten parte.

Udalarenak ez diren kolektibo eta entitate hauek eskatu dute “Museoa zeureganatu” espazioen lagapena: ASANACEM, San Pedroko liburutegia, Suma con Causa, Mundu Bat eta Gorosti. Parte-hartzea % 62 murriztu da 2020an, 2019arekin alderatuta. Aldiz, ekitaldien kopurua oso antzekoa izan da, 2020an 60 erregistratu baitziren eta 2019an, 65.